



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 19a

127. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2013ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2013ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak igorri duela 2013ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena,

ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2013ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>I. Sarrera (4. or.).</p> <p>II. Foru sektore publikoaren zedarritzea, 2013an (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1 Foru Sektore Publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera. (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, kontabilitate nazionalaren terminoetan (9. or.).</p> <p>III. Helburua (11. or.).</p> <p>IV. Norainokoa (12. or.).</p> <p>V. Iritzia (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. 2013ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (14. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. 2013ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa. (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Gomendioen jarraipena (28. or.).</p> <p>VI. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (29. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. 2013ko aurrekontuaren likidazioa (29. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. 2013 ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Diruzaintza-gerakina, 2013ko abenduaren 31n (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (31. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. 2013ko emaitzen kontua (33. or.).</p> <p>VII. Egindako lanaren azterketa (35. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.1. Nafarroako Gobernuaren 2013ko aurrekontua-2012ko aurrekontuaren luzapena (35. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.2. Gai orokorrak (38. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.3. Nafarroako Gobernuaren zorpetzea (40. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.4. Ekitaldiko gastuen egoera-orriaren aurrekontu- eta kontabilitate-ebakeraren analisia. (43. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.5. Hornitzaileen ordainketa-epeen jarraipena. (44. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.6. Langile-gastuak (46. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.7. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (53. or.).</p> |
|---|---|

- VII.8. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferenziengatiko gastuak (55. or.).
 - VII.9. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa. (58. or.).
 - VII.10. Inbertsioak (62. or.).
 - VII.11. Tributuen arloko diru-sarrerak eta zordunak (73. or.).
 - VII.12. Diruzaintza (81. or.).
 - VII.13. Ibilgetu ez-finantzarioa (83. or.).
 - VII.14. Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa taldea eta sozietate publikoak (84. or.).
 - VII.15. Fundazio publikoak (91. or.).
1. eranskina Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera (2008tik 2013ra) (93. or.).
 2. eranskina Nafarroako Gobernuaren defizitaren eta zorpetzearen bilakaera, aurrekontu egonkortasunaren ondorioetarako (2008tik 2013ra) (97. or.).
 - 2.1. Finantzaketa-beharrak (97. or.).
 - 2.2. Zorpetzea , GDPren arabera (99. or.).
 3. eranskina Nafarroako parlamentu-erakundeen 2013ko aurrekontuaren likidazioa. (101. or.).
 - A. Nafarroako Parlamentua (101. or.).
 - B. Arartekoa (102. or.).
 - C. Nafarroako Kontuen Ganbera (103. or.).
- 2013ko Kontu Orokorraren oroitidazkiaren laburpena foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:
- www.cfnavarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, araubidetzat duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuari jarraikiz, Nafarroako 2013ko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2014rako onetsi zuen urteko programan.

Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuaren 2014ko ekainaren 25eko erabakiaren bitartez onetsi zen. Gero, proiektu hori Nafarroako Parlamentuari igorri zitzaion, eta horrek, 2014ko ekainaren 30ean, erabaki zuen hura ganbera honi igortzea.

Landa-lana auditoriako zazpi teknikarik eta auditore batek osatutako ekipo batek egin zuen, 2014ko apiriletik irailera bitartean. Talde horrek, bestetik, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Zehaztu beharra dago, ezer baino lehen, 2013ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak 2012ko aurrekontuen luzapena direla.

2013ko ekitaldian Foru Ogasunari aplikatzekoa zitzaion oinarrizko araudia, funtsean honakoek osatzen dute: 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea; Nafarroako Gobernuaren 2013ko urtarrilaren 9ko Erabakia, 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak 2013ko ekitaldirako luzatzeko exekuzio arauak ematen dituena; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea; sektoreko araudia eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arau indardunak.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atala foru sektore publikora mugatzen da, bai foru araudiaren eraginetarako, bai aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako ere. Hirugarren atalean, fiskalizazioarekin lotu nahi izan diren helburuak erakusten dira; laugarrenean, berriz, exekuzioan aplikatutako norainokoa eta metodologia deskribatzen dira. Bosgarren atalak erakusten du nolako iritzia daukagun 2013ko Kontu Orokorrari buruz. Seigarren atalean, laburpen bat jasotzen da Kontu Orokorraren egoera-orri finantzario garrantzitsuenei buruz. Zazpigarren eta azkenak egindako lanaren arlokako analisi zehatza dauka, Nafarroako Gobernuaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioekin.

Hiru eranskin biltzen ditu txostenak: bi 2008tik 2013ra bitarteko bilakaerari buruz, bai gastuei eta aurrekontuko diru-sarrerei dagokienez, bai defizitari eta zorpetzeari dagokienez ere, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako; hirugarren eranskina parlamentu-erakundeen 2013ko aurrekontu-likidazioari buruzkoa da.

Txostenarekin batera, 2013ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egindako oroitidazkiaren laburpen bat ageri da. Haren testu osoa hemen ikus daiteke: www.navarra.es/presupuestos/cuentas_generales_del_año_2013.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde autonomoetako eta haren sozietate eta fundazio publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA, 2013AN

Atal honetan, lehenbizi, foru sektore publikoaren zedarritzea ageri da, 2013koa, bi aldetatik:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- Aurrekontu- eta kontabilitate-egonkortasun nazionalari buruzko arauen arabera.


II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4ko 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA.

Foru Sektore Publikoa honakoek osatzen dute, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen arabera:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta hari atxikitako erakunde autonomoek.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Foru Komunitatearen sozietate publikoak eta haien erakunde publikoak. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen arabera, Foru Komunitateko Administrazioaren edo/eta haren erakunde autonomoen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza duten sozietateak dira, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengoa osatzen badu. Orobat sozietate publikotzat jotzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren menpeko erakunde publikoek administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna dutenak; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa dutenak.
- Fundazio publikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek beren eskumeneko xedeak betetzeko sortutakoak, baldin eta beren sorrerako ondarearen gehiengoa sortzailearen zuzeneko nahiz zeharkako ekarpenen bitartez eratu bada. Halaber, halakotzat jotzen dira sortu ziren garaietan izaera pribatua izan arren, horrekin batera beren gobernu organoetan Administrazioaren ordezkariak gehiengoa osatzearen baldintza betetzen dutenak.

Foru sektore publikoaren irudikapen grafikoa, 2013aren amaieran, 1. eta 2. tauletan erakusten dena da:

1. taula. Foru sektore publikoa, 2013



2. taula. Enpresen sektore publikoa, 2013

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. (NEKP) izeneko sozietatearen kapitalaren ehuneko 100 dauka. Sozietate matrize horrek honako sozietate publikoetan hartzen du parte:

A) NEKPk zuzenean parte hartu eta partaidetzen gehiengoa dueneko sozietate publikoak

Enpresa publikoa	Jarduera ekonomikoa
1. Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA)	Lurzorua eta etxebizitza.
2. Agencia Navarra del Transporte y Logística, S.A. (ANL)	Garraioa eta logistika
3. Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L. (CAT)	Nekazaritza-elikagaiak
4. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. (INTIA)	Nekazaritza-elikagaiak
5. Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (GAN)	Ingurumena
6. Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA)	Tokiko azpiegiturak
7. Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. (NICDO)	Azpiegitura tematikoak, kulturalak, aisiakoak eta kirolekoak
8. Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI)	Hezkuntza eta talentua
9. Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC)	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
10. Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.L. (CEIN)	Berrikuntza eta ekintzaileak
11. Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA)	Ogasuna eta ondarea
12. Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. (SODENA)	Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa

Oharra: Guztiek ere NEKPren ehuneko 100eko zuzeneko partaidetza dute beren kapitalean, salbu eta SODENA, zeinaren zuzeneko partaidetza ehuneko 98,06 baita.

B) Nafarroako Gobernuak partaidetzaren gehiengoa daukan beste sozietate publiko batzuk, NEKPren zeharkako partaidetza dutenak:

Beste enpresa publiko batzuk	NEKPren partaidetzaren ehunekoa	Jarduera ekonomikoa
13. Start Up Capital Navarra, S.A.	59,36	Enpresak ezagutarazi eta sustatzea
14. Salinas de Navarra, S.A,	76	Gatza eta haren deribatuak sortu, prestatu eta merkaturatzea
15. Potasas de Subiza, S.A.	100	Ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea
16. Natural Climate Systems, S.A.	66	Higiezinaren sustapena, efizientzia energetikoko irizpideekin

2013an, Foru Sektorre Publikoaren antolaketaren alderdi azpimarragarri moduan, honakoak adierazi behar ditugu:

- 2012ko uztailetik Nafarroako Gobernuaren egitura indarduna, departamentuka –zortzi dira– eta erakunde autonomoka –bederatzi dira, guztira–, ondoko taulan ageri dena da:

Departamentuak	Erakunde autonomoak
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	Nafarroako Larrialdietako Agentzia
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	Nafarroako Enplegu Zerbitzua. Nafarroako Zerga Ogasuna
Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua	
Hezkuntza	Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
Osasuna.	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.
Gizarte Politikak	Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	
Sustapena	

- Enpresaren sektore publikoa. 17 enpresa publiko daude, eta lautan jaitsi dira aurreko urtearekin alderatuta: Burnizko azpitaldea osatzen zuten hiru enpresen salmenta eta Navarra Deporte y Ocio, S.L.ren¹ eta Navarra de Espacios Culturales, S.A.ren xurgatze bidezko bategitea. Enpresa-kopuru hori, NEKPa beraz gainera, honela banatzen da: zuzenean Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren menpekoak diren 12 sozietate eta korporazio horrek zeharka partaidetzen gehiengo dauzkan lau sozietate. Hurrengo taulan ikus daiteke osaketa hori eta izandako bilakaera:

Enpresen Sektore Publikoaren osaera:	2012	2013
NEKP	1	1
NEKPren zuzeneko partaidetza duten sozietate publikoak	13	12
NEKPren zeharkako partaidetza duten sozietate publikoak	4	4
Aldi baterako atxikipena-Burnizko azpitaldea	3	-
Guztira	21	17

Sodena sozietateak Caviar Per Se, S.L. enpresaren kapital sozialaren ehuneko 80ko partaidetza dauka; horrenbestez, azken enpresa hori sozietate publikotzat jo beharra dago. Hala eta guztiz ere, 2013ko kontuen aurkezpenean adierazi bezala, egoera hori guztiz koiunturazkoa da, eta partaidetza hori saltzekotan dago.

Gainera, ganbera honen iritziz, Parque de la Naturaleza de Navarra, S.A. sozietateak (Parquenas)² Ondareari buruzko Foru Legeak aipatzen dituen baldintzak betetzen ditu enpresa publikotzat har dadin (ikus txosten honetako VII.14 atala).

2013an, hasi da Enpresen Sektore Publikoa Berrantolatze II. Plana. Haren azken xedea da 2014an NEKPren menpeko enpresa publikoak zortzi baizik ez izatea. Hartara, honako jarduketak egin hasi da edo hasia aurreikusita da:

a) Gestión Ambiental de Navarra (GAN) NILSAn sartzea eta CEIN, berriz, SODENAn, kudeaketa-unitate bakarraren formularen bitartez.

b) Kanpora ateratzea Hizkuntzen Auto ikaskuntzarako Nafarroako Zentroa (CNAI) –akzioak bere enplegatuei salduz– eta Nafarroako Zirkuituaren kudeaketa.

¹ Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. sozietatearen sorrera.

² Senda Viva aisia-parkearen jabea den sozietatea.

c) Agencia Navarra del Transporte y Logísticaren (ANL) eta Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria-
ren xurgatze bidezko bat-egitea NASUVINSAn.

Zehaztu beharra dago ezen NEKPren bidez finkatutako taldea, merkataritzakolegediaren eraginetarako, osatzen dutela, batetik, berez publikoak diren enpresek eta, bestetik, enpresa pribatuek, zeinaren gainean enpresa nagusiak influentzia gradu desberdinak baitaizka (ikus txosten honetako VII.14 atala).

• Fundazio publikoei dagokienez, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako, zazpi dira, aurreko urtean bezalaxe, eta Moderna Fundazioa halakotzat hartu gabe jarraitzen da. Hurrengo taulan ageri dira xehetasunak:

Fundazioa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Nafarroako Bikaintasunaren aldeko Fundazioa	Nafarroako enpresetan –publikoetan zein pribatuetan–kalitate-zerbitzuak sustatzea.
Pertsona Helduen Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza

2014ko urtarrilean, Gobernuak erabaki zuen bere fundazio publikoak gutxitzea, guztira hiru izan daitezzen; gainerako lauak azkendu egin dira. Zehazki, honakoek fundazio publiko izaten jarraituko dute: Baluarte, Miguel Servet eta Tutela de las Personas Adultas.

II.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA, KONTABILITATE NAZIONALAREN TERMINOETAN

Foru sektore publikoaren mugatzea edo finkapen fiskalaren perimetroa erabakigarria da Nafarroako Gobernuak 2013ko ekitaldirako bereganatutako defizitaren eszenatokiaren betetzea egiaztatzeko; hain zuzen ere, azken hori heldu da Espainiako administrazio publikoen multzoan aurrekontu-egonkortasunaren baldintzen betetzea bermatzeko helburutik. Hori guztia kontabilitate nazionalen terminoetan (SEC) neurtuta.

Zehazki, 2013rako, honakoak hartzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoretzat, kontabilitate nazionalaren eraginetarako:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Foru erkidegoko sozietate publikoak, gehien bat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen dituztenak edo ondasunak sortzen dituztenak. Zehazki, 2013rako, hurrengo 11 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikotzat: Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKPa); Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas; Centro Europeo de Empresa e Innovación, SL; Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL; Gestión Ambiental de Navarra, SA; Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA; Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, SL; Navarra de Servicios y Tecnologías, SA; Sodena; Tracasa eta Start Up.
- SECren arabera, lehengo berak izaten jarraitzen dute 2013an administrazio publikotzat jotzen diren foru erkidegoko fundazio publiko eta pribatuek, hau da, ekonomikoki haien menpekoak direnek. 12 fundazio dira guztira:

a) Partaidetza publikoa duten zazpi fundazioak, aurreko atalean aipatutakoak.

b) Ekonomikoki menpekoak diren beste fundazio batzuk, bost hain zuzen ere: Itoiz-Canal de Navarra Fundazioa, Centro de Recursos Ambientales de Navarra Fundazioa, Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa eta Pablo Sarasate Fundazioa. Horri dagokionez, jotzen dugu Oteiza Fundazioa ere sail horretan sartu beharko litzatekeela, ia guztiz finantzaketa publikoaren menpekoa baita.

Fundazio horien multzoari dagokionez, gogorazi behar dugu ezen, Nafarroako Gobernuaren 2014ko urtarrileko erabaki batez, berez publikoak diren lauak azkendu direla; menpekotasun ekonomikoa duten fundazioei dagokienez, hurrengo lauak azkendu dira: Centro de Recursos Ambientales de Navarra Fundazioa, Itoiz-Canal de Navarra fundazioa, Yesa Fundazioa eta Valle de Erro-Roncesvalles Fundazioa.

Laburbilduz, kontabilitate publikoaren terminoei begiratuta, Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorearen osaera honakoan bereizten da Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean araututakotik:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa sartzen da.
- Sozietate publikoetan, 17 sozietateetatik halakotzat jotzen dira soilik merkataritza bidezko diru-sarrerez finantzatzen ez diren zerbitzuak eskaintzen edo ondasunak produzitzen dituzten Foru Komunitatearen sozietate publikoak.
- Fundazioen barruan, berez publikotzat katalogatutako zazpiez gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakundeen mendetasun ekonomikoa duten bost fundazioak.

III. HELBURUA

Aplikatzekoa den legediaren arabera, 2013ko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorren finantzak eta legezkontasunaren betetzea fiskalizatu dira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Gure iritzian, Nafarroako Gobernuaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek 2013an eramandako jarduera ekonomiko-finantzarioari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

- 2013ko abenduaren 31n, Foru Ogasunak eta Foru Sektore Publikoak, bere osotasunean, duten egoera finantzarioa.

- 2013ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea.

- Aurreko fiskalizazio-txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioak bete izanaren jarraipena.

Txostenari egokitzen jo ditugun gomendioak gehitu dizkiogu, ezarritako barne kontroleko sistema eta sistema ekonomiko eta kontabilitatekoa hobetzeko edo/eta osatzeko.

IV. NORAINOKOA

Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrek Foru Sektore Publikoa osatzen duten enteen kontuek osatuta daude. Honakoak dira ente horiek, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen arabera:

- Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Administratiboa edo Administrazioaren Sektorea eta haren erakunde autonomoak.
- Sektore parlamentarioa: Nafarroako Parlamentua eta gainerako parlamentu-erakundeak.
- Enpresaren sektore publikoa.
- Fundazioen Sektore Publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2013ko ekitaldiko kontu orokorrek, funtsean, honako egoera-orriak biltzen dituzte:

- Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak, aurrekontu-emaizta eta diruzaintza-gerakina.
- Egoera-balantze bateratua.
- Emaizta kontu bateratua.
- Emaizta, aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako.
- Oroitidazkia, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabaltzen eta iruzkintzen duena.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztu zituen aurrekontu-programetako emaitzen balantze bat eta kudeaketari buruzko txosten bat.

Metodologia gisa, lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatuzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz.

Zehazki, fiskalizazioa honakoan oinarritu da: aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren eta balantzeko ondare-kontuen azterketa, bai eta prozedura administratiboen, kudeaketakoen eta barne-kontrolakoen azterketa ere, probak eginez eta lanaren inguruabarren eta helburuen arabera egokientzat jo diren teknikak erabiliz; prozedura horien barrenean, laginketaren teknika erabili da kontusailen kasuan, bai eta eragiketa jakin batzuen azterketa selektiboa ere.

Lanaren denbora-esparrua 2013ko ekitaldian zentratzen bada ere, zenbait kontutarako 2014kora ere zabaldu da.

2013rako aurrekontu-egonkortasunaren helburuak noraino bete diren egiaztatzeko, aztertu ditugu bai Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluaren erabakiak eta Nafarroako Gobernuaren eta Estatuaren arteko akordioak –bereziki, 2013ko abenduaren 31koa³, bai Estatuako Administrazio Orokorren informazioa.

Halaber, aintzat hartu dira Nafarroako Gobernu Kontu-hartzaitza Orokorrek egindako txostenak, bai kontu-hartzaitzaren ikuspuntutik, bai kontrol finantzario iraunkorraren ikuspuntutik.

Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako sektoreetarako, honakoak hartu dira kontuan:

- Nafarroako Parlamentuaren 2013ko kontu orokorrak, Nafarroako Arartekoarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak Kontuen Ganbera honek aztertu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2013ko kontu orokorrak auditoriako enpresa batek aztertu ditu.
- Sozietate eta fundazio publikoen urteko kontuen auditoria kanpoko profesional batzuek egiten dute.

Txostenen aipatutako multzotik haien iritzi profesionala eta ondorio nagusiak atera ditugu.

Halaber, Kontuen Ganberak egindako txosten hauek hartu ditugu kontuan:

³ Bertan onesten dira aurrekontu-egonkortasunaren helburuak eta zor publikoarenak 2013ko ekitaldirako eta 2014tik 2016ra bitarteko aldirako.

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 43. artikulutik 50. artikulura bitartekoen eta haiekin bat datozen artikuluen babesean egindako aurrekontu-aldaketen legezkotasunari buruzko txostenak.
- Mendetasunari buruzko Legeko ordainketen kudeaketa eta kontrola Nafarroan
- Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea
- SODENA enpresa publikoaren finantza-inbertsioak (2002-2013).
- Foruzaingoa (2013)

V. IRITZIA

Nafarroako Gobernuaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako VI. atalean.

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentua da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu leialki irudikatuko baitituzte Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Nafarroako Gobernuak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zerbatekoerik eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuaren balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatzea aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia erortzen da.

V.1. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik "Ibilgetze materialen" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 2.135,54 milioi eurokoa zen 2013ko abenduaren 31n–, zeren eta hark ez baititu biltzen Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzakoak diren ondasun guztiak eta ez baitago babestuta egoki baloratutako ondasunen eta eskubideen inbentario orokor batean.

- Ez balantzean, ez oroitidazkian ez da informaziorik erregistratu Administrazioaren langile funtzionario jardunekoaren eta pasiboaren montepioek sortutako betebeharrak aktuariari buruz. 2013an egindako azterlan eta kalkuluen arabera, montepio horren prestazioetatik –2087ko ekitaldira arte egonen da indarrean– heldu den kostua 2.800 milioi euro konstanteena da.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Foru Komunitateko Administrazioaren 2013ko

abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Finantzen fiskalizazioari buruzko gure iritzian eragin gabe bada ere, honako alderdiak aipatu nahi ditugu:

- Estatuarekiko akordioen ondorioz, aldatu egin da Hitzarmen Ekonomikotik heldu diren zerga bidezko diru-sarreraren doikuntzen behin betiko urteko likidazioen aurrekontu-egozpena egiteko metodoa. Izan ere, 2012ra arte, hitzarmeneko doikuntzen ondoriozko diru-sarrerak, ekitaldiko hiru hilabete bakoitzeko likidazioez gainera, aurreko ekitaldiko behin betiko likidazioa biltzen zuten; alabaina, sartu ditugu bai 2012ko behin betiko likidazioa, bai 2013ko ekitaldiko hiru hilabete bakoitzeko likidazioak ere, 2013ko behin betiko likidazioaren aurrerapen batekin batera; aurrerapen horrek 200,31 milioi euroko aurrekontuko diru-sarrera ekarri.

- 2014ko irailean, Zerga Agentziak iragarri du errekurtsio bat aurkeztuko duela Auzitegi Gorenean Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurka, 2007tik 2011ra bitarteko ekitaldietako BEZaren itzulketen gaineko eskumen-gatazkari dagokionez. Errekurtsio horretan, Nafarroako Ogasunari erreklamatzeko zaio esportaziorako ibilgailuen merkaturatze-eragiketetan jatorria duen BEZA itzultzeko, eta erreklamazio hori 1.513,75 milioi eurotan kuantifikatuta dago –hau da, Nafarroaren 2013ko aurrekontu-gastuaren ehuneko 41–. Erreklamatuak zenbateko hori, nolana ere, zuzendu egin beharko litzateke Hitzarmen Ekonomikoko 65. artikuluan aurreikusitako doikuntzekin. 2014ko urrian, Hitzarmeneko Koordinazio Batzordeak erabaki zuen, batetik, Estatuko Administrazio Zentralak errekurtsio horren etete prozesala gauzatu duela, eta, bestetik, gatazkaren xede den auzia Batzordearen baitan ebatzi behar dela –bi administrazioek 2012an adostu zuten bezala–.

V.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2013ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

V.3. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

2013ko aurrekontu luzatuen abiapuntu-zuzkiduran, 3.837,72 milioi euroko kredituak ageri dira gastuetarako eta diru-sarrerarako. Zenbateko hori 2012ko aurrekontuetan jasotakoaren berdina da.

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko 4,35eko igoera garbia izan dute –166,78 milioi euro– aldaketan bitartez, eta kreditu bateratuak 4.004,50 milioioak izatera iritsi da. Aldaketa horiek finantzatu dira, funtsean, zor publiko gehiago jaulkiz –60,64 milioi euro–, diruzaintza-gerakinarekin –9 milioi euro– eta langileen maileguen itzulketarekin, aparteko soldataren aurrerapenaren ondorioz –82 milioi euro–.

Aitortutako betebeharrak 3.679,62 milioi euro egin dute 2013an, eta betetze-maila % 92koa izan da. Kapitulu guztiek gaintzen dute portzentaje hori, salbu eta inbertsioek –ehuneko 73– eta kapital-transferentziek –ehuneko 79–.

Aitortutako eskubide garbiek 3.732,53 milioi euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 93 da. Honakoak dira betetze handiena izan duten kapituluak: kapital-transferentziak –ehuneko 129–, tasak –ehuneko 116– eta ondare bidezko diru-sarrerak –ehuneko 111–; eta honakoak, aldiz, betetze txikiena izan dutenak: inbertsio errealeko besterentzea –ehuneko 15– eta transferentzia arruntak –ehuneko 68–.


Eskubideak eta betebeharrak alderatuz gero, 52,92 milioi aurrekontu-saldoa ateratzen da.

Bestalde, zehaztu beharra dago 2013ko aurrekontu-betetzeak, zehazki haren gastu eta diru-sarreraren 8. kapituluak, jasotzen duela langile publikoek ordaindutako aparteko soldaten aurrerakinaren aurrerakina bera eta geroko itzulketa, abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legearen aplikazioaren ondorioz. Foru lege horren bidez, izan ere, Nafarroako Foru Komunitatean aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak ezarri ziren. Aurreratutako eta itzultutako zenbatekoa 81,93 milioi da guztira.

2013ko betetzea orokorrari buruz, honakoa esan behar dugu:

• Guztizko gastuaren finantzaketa honela egin da: ehuneko 85 diru-sarrerera berekiekin; ehuneko 2 jasotako transferentzien bidez, eta ehuneko 13 zorpetzearen bitartez. Ehuneko horiek bat datoz 2012koekin.

• *Datuak, milioitan adieraziak, honela azal daitezke irudi bidez:*



• Nafarroako Gobernuak 2013an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2012an	Zenbatekoa, 2013an	Finantza iturria	Zenbatekoa, 2012an	Zenbatekoa, 2013an
Langileak	30	30	Tributu bidezko diru-	85	82
Ondasun arrunten eros-	15	14	Transferentzien bidezko	2	2
Transferentzien bidezko	45	42	Ondare bidezko diru-	1	3
Inbertsio errealak	4	3	Zorpetzea	12	13
Finantza-karga	5	8			
Finantza-aktiboak	1	3			
	100	100		100	100

2012. urteari dagokionez, aldaketa nagusiak finantza-zaman ikusten dira –haren garrantzi erlatiboak hiru unitatetan egiten du gora–, bai eta transferentziengatik eta zerga bidezko diru-sarreraren ondoriozko gastuetan ere –hiru unitatetan behera egiten dute–.

- Aurrekontu-gastuaren xedeari edo funtzioari erreparatuta, hurrengo taulan islatzen dira 2013ko bai biztanle bakoitzeko gastua, bai 100 euro bakoitzeko aplikazioa.

2013ko eginkizuna	Biztanleko gastua	100 euro bakoitza
Osasuna	1.382	24
Estatuko zama orokorre eustea	887	16
Hezkuntza	870	15
Gizarte politika	570	10
Zor Publikoa	465	8
Beste oinarrizko zerbitzu batzuk	426	8
Toki entitateen jarduera kofinantzatzea	362	6
Azpiegiturak	278	5
Nekazaritza	131	2
Industria, energia eta ikerketa	122	2
Etxebizitza	87	2
Gainerako xedeak	129	2
Biztanle bakoitzeko gastua, guztira	5.709	100

2013ko biztanle bakoitzeko gastuak ehuneko 1,5 egin du gora 2012koarekin alderatuta; hau da, 84 euro handiagoa da.

Gastuaren ehuneko 73 honakoetan aplikatu da: osasuna, entitate publikoei egindako transferentziak, hezkuntza, gizarte politika eta zor publikoa. 2012arekin alderatuta, eginkizun garrantzitsuenetako biztanle bakoitzeko gastuak honako aldea ageri du, portzentajejan:

Funtzioa	Biztanleko gastua 2013/2012 aldea, ehunekotan
Osasuna	-5
Estatuko zama orokorre eustea	10
Hezkuntza	2
Gizarte politika	-8
Zor Publikoa	50

Ondoren, 2013ko finantza-egoerari buruzko adierazle batzuk –eta haien 2012rekiko alderaketa– ematen ditugu, bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, bai haren enpresen eta fundazioen sektore publikoari dagokionez ere.

V.3.1. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen adierazleak.

Hurrengo taulan, 2012an eta 2013an adierazleen multzo batek izandako bilakaera erakusten dugu.

(euroak, milioitan)			
Adierazlea	2012	2013	Aldearen ehunekoa
Gastua, guztira	3.625,4	3.679,6	1,5
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	3.112,9	3.114,0	0,03
Funtzionamendu gastuak (1, 2 eta 4. kap.)	3.019,9	3.006,7	-0,4
Inbertsio errealeen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	383,9	269,1	-29,9
Finantza eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	128,7	296,4	130,3
Diru-sarrerak, guztira	3.624,9	3.732,5	3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.152,8	3.140,4	-0,4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3. kapitulura)	3.081,7	3.076,1	-0,2
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	99	99	
Tributuen diru-bilketa likidoa	2.978,6	2.907,1	-2,4
Tributuen diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat egiten duen	% 16,4	% 16,6	
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	30,5	24,2	-20,7
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	441,6	567,9	28,6
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-313,4	-218,5	30,3
Lehen mailako saldoa	-220,4	-111,2	49,5
Aurrekontu-emaiza doituak	-3,3	67,7	2.151,5
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-239,7	-221,2	7,7
Aurrezki gordina	132,9	133,7	0,6
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	200,3	300,5	50
Aurrezki garbia	-67,4	-166,8	-147,5
Zorpetze-mailaren ehunekoa	% 6,35	% 9,57	
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezkoa)	-385,4	-257,5	33,2
Funts berekiak	246,5	-10,9	
Nafarroako Gobernuaren zorra ⁽¹⁾	2.231,1	2.501,6	12,1
Zorrek diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehunekoa	% 70,76	% 79,66	
Zorra/Aurrezki garbia	16,78	18,71	
Eratutako abalak (saldo bizia)	163,1	157,8	-3,2
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako aurrekontu-gastuak	3.122,3	3.273,6	4,8

(1) Amortizatutako kostua

Bilakaera horri buruz, honakoa nabarmendu behar dugu:

- 2013an, guztizko gastuek ehuneko 1,5 egin dute gora, 2012. urtearekin alderatuta. Izaerari erreparatuta, portaera askotarikoa izan da; esate baterako, gastu arruntak ia berdin mantendu dira, nahiz eta horien barruan, finantza-gastuek eta langile-gastuek ehuneko 15 eta ehuneko 2 egin duten gora, hurrenez hurren. Kapitaleko gastuak dira gutxitze handiena izan dutena, ehuneko 30ekoa; nabarmentzekoa da kapital-transferentziak ehuneko 40 gutxitu direla. Finantza-zamak –interesak gehi zorraren amortizazioa– ehuneko 50 egin du gora.

Finantza-aktiboen eta -pasiboen eragiketengatik gastuaren igoera –ehuneko 130– funtsean justifikatuta dago funtzionarioen aparteko soldaten aurrerapenei eman zaïen kontabilitate-tratamenduarengatik – 8. kapituluaren erregistratu da– eta zorpetzearen amortizazioa handiagoa izateagatik –107,3 milioitik 193,2 milioira–.

2013ko guztizko diru-sarrerak ehuneko hiru egin dute gora 2012koekin alderatuta. Zergen bidezko diru-sarrerak ia ez dute alderik izan; gutxitze handienak tasa eta prezio publikoetan ikus daitezke –ehuneko 10 gutxiago baitira– eta kapital-transferentzietan –ehuneko 14 gutxiago–. Nabarmentzen dugu 2013an 463,7 milioi euroko finantza-pasiboak hartu zirela; 2012an, aldiz, 418,9 milioi hartu ziren, ehuneko 11 gutxiago beraz.

2013koa lehenengo ekitaldia da non urte osoari aplikatzen zaion BEZaren doikuntza kalkulatzeko metodo berria, 2012ko maiatzean onetsitako aldaketaren ondoriozkoa. Halaber, kalkulu-metodoaren aldaketa berri baten ondorioz, lehenengo urtea da aurrekontuari ekitaldiko doikuntzen gaineko behinbetiko likidazioaren aurrerakin bat egotzen zaiona; aldaketa horrek, 2013an, 200,31 milioi euroko aurrekontuko diru-sarrera ekarri du.

Bi ekitaldietan, tributu bidezko diru-sarrerak aukera ematen dute soilik Administrazioaren gastu arruntaren bolumentan finantzatzeko.

Zergen bidezko diru-bilketa likidoak⁴ ehuneko 2,4 egin du behera, nahiz eta Nafarroako BPGan duen garrantziak pixka bat gora egin duen. Azken lau urteetan, diru-bilketa horrek honako bilakaera izan du (euroak, milakotan):


	2010	2011	2012	2013
Tributuen diru-bilketa likidoa	2.868.906	3.142.504	2.978.590	2.907.130

- Aurrekontu saldo ez-finantzarioa oraindik ere 218,5 milioi negatiboa da, baina hobera egin du, 2012ko zenbatekoari erreparatzen bazaio –hura ere 313,4 milioi negatiboa izan zen–. Hau da, haren balio negatiboa ia 96 milioi jaitsi da.

- Lehen saldoa finkatzen da aurreko aurrekontu-saldo ez-finantzariotik abiatuta, baina horretan zorpetzetik heldutako finantza-gastuak sartu gabe; 2013an, 111,2 milioiko balio negatiboa zuen, nahiz eta hobera egin duen 2012ko 220,4 milioiko balio negatiboaren aldean. Zenbatekoa negatiboa izateak esan nahi du diru-sarrerak ez direla nahikoak bere gastuak finantzatzeko, nahiz eta horretan ez sartu zorpetzearen interesak, eta horrek berarekin dakar zorpetzera jotzen jarraitzeko beharra.

- Gastu orokorretarako 2013ko diruzaintza-gerakina 221,2 milioi negatiboa da, eta ehuneko zortzi egin du hobera 2012tik. Magnitude horrek 2008tik 2013ra izan duen bilakaera ondoko taulan eta iruditzen erakusten da (euroak, milakotan):

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	100.504	-147.161	-126.369	-174.939	-239.750	-221.192



Hau da, krisia hasi zenetik, magnitude hori negatiboa da. Horrek erakusten ditu, batetik, diruzaintzaren defizit erreala eta, bestetik, etorkizuneko ekitaldietan gastuak finantzatzeko ezintasuna. Hala eta guztiz ere, hobekuntza txiki bat ikusten da 2013ko datuetan, zeren eta 18,6 milioi gutxiago negatiboa baita.

Aurrezki gordinak⁵ zeozer gora egin badu ere, 133,7 milioiko kopurura iritsi arte, zenbateko hori ez da nahikoa zorpetzearen zama finantzarioari aurre egiteko eta 166,8 milioiko aurrezki garbi negati-

⁴ Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxizko ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

⁵ Aurrezki gordina: diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura) ken funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)

boa6 sortu da. Aurrezki garbi horrek 1,5 halako egin du bere balio negatiboa, 2012rekin alderatuz gero.

Ekitaldiko emaitzak. Ekitaldiko emaitzak, 257,46 milioi negatiboa izaten jarraitzen badu ere (desaurrezkia), bere balio negatiboa 2012koaren aldean ehuneko 33 jaitsi da.

Hurrengo taulan ikusiko dugu magnitude horrek 2008tik izan duen bilakaera (euroak, milakotan):


	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezkia)	-363.788	-424.977	-299.948	-301.089	-385.434	-257.456

Hau da, ekitaldi guztietan, emaitzak negatiboak izan dira, nahiz eta 2013an joera hori nolabait ere aldatzen has litekeen. Zehaztu beharra dago 2007an magnitude horrek 254,85 milioiko balio positiboa erdietsi zuela.

- Funts berekiak. 2008tik ekitaldiko emaitzen balioak negatiboak izatearen ondorioz, Nafarroako Gobernuaren funts berekiek, 2013an, lehenengo aldiz 10,9 milioiko saldo negatiboa dute. Aipatutako 2008ko ekitaldian, funts berekiak 1.612,8 milioi positiboak ziren.

- Nafarroako Gobernuaren 2013ko abenduaren 31ko zorra 2.501,6 milioi eurokoa da⁷; aurreko urtean baino ehuneko 12,13 handiagoa, beraz. Haren ehuneko 12 epe laburrean du muga-eguna. Diru-sarrera arruntan aldean, ehuneko 80 da; aurreko ekitaldian baino ehuneko bederatzi handiagoa. Gobernuak 2013an sortutako aurrezki gordinarekin, ia 19 urte beharko lirateke zor hori amortizatzeko; 2012an, 17 urtekoa zen aldi hori.

Nafarroako Gobernuaren zorraren urteko bolumenaren bilakaera –2008tik 2013ra–, bere balio nominalaren arabera, hurrengo irudian erakusten duguna da: Aldi horretan, Gobernuaren zorrak ehuneko 208 egin du gora..



⁶ Aurrezki garbia: Aurrezki gordina ken finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak).

⁷ Amortizatutako kostua. Balio nominalaren irizpidearen arabera, zor hori 2.509,8 milioikoa da.

- Gobernuak eraturako abalen saldo bizia 5,33 milioi gutxitu da. 2013an 157,8 milioikoa izatera iritsi da. Hona horren xehakatzera (euroak, milakotan):

Eratutako abalak	2012	2013
I+G	692	560
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	13.204	12.076
Nafarroa abala (SONAGAR azpi-abalak)	5.377	4.633
NDO Los Arcosko zirkuitua	30.962	28.269
C.A. Osasuna	9.613	8.414
Sodena	103.287	102.922
NUP-Iberus programa	-	932
Guztira	163.135	157.806

Sodenarentzako abala eraten da sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua.

“NDO. Circuito de los Arcos” enpresa publikoari emandako abalaren jatorria 2009an dago, Circuito Los Arcos SL sozietate publiko azkenduak –gaur egun NICDO barrenean dago– jasotako mailegu batean; hasierako kopurua 35 milioikoa zen eta 2024ko maiatzean zuen muga-eguna. C.A. Osasunari emandako abala 2003ko Foru Legearen bitartez eman zitzaion.

2013an, Nafarroako Gobernuak 1,80 milioi egiten duen gastu bat aitortu du guztira zazpi enpresa pribatuei egindako maileguen ondorioz finkatutako betebeharrak ez betetzeagatik⁸; 2012an, 1,48 milioi izan ziren.

Aurreko abalez gainera, Nafarroako Gobernuak arrisku batzuk hartu ditu “comfort letter” delako edo babesletza-gutuna formularen bidez⁹ –Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean jasota ez dagoen figura bat da hori– Ciudad Agroalimentaria de Tudela enpresa publikoan, zeinaren saldo bizia 53 milioikoa baita 2013ko abenduaren 31n. 2012arekin alderatuta, arrisku modalitate horrek 150 milioi egin du behera, Sodena enpresaren aldeko babesletza-gutunak kitatzearen ondorioz. Gaur arte, gutun horiek ez dute berarekin ekarri Nafarroako Gobernuak baliabide publikoak aplikatu behar izatea.

- Etorkizuneko ekitaldietarako aurrekontu-gastuen konpromisoak: "Erabileraren" kontabilitate fasean, etorkizuneko¹⁰ ekitaldietarako hitzartutako gastuek 3.273,6 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 89 zorraren zama finantzarioari dagozkio; biztanle bakoitzeko 5.084 euro egiten dute guztira. 2012ko datuekin alderatuta, etorkizuneko gastu horiek ehuneko bost egin dute gora, funtsean finantza-zama handitu delako.

⁸ Halere, enpresa pribatu baten beste ez-betetze bat erregistratzea falta da.

⁹ Tresna finantzario bat da, enpresa-taldeetan erabili ohi dena. Haren bitartez, sozietate matrizeak edo partaidetzaren gehiengoa duen bazkideak –hau da, Nafarroako Gobernuak– sozietate filialei kreditu-entitateen aurrean laguntza finantzarioa emateko konpromisoa hartzen du –eta kasua bada, kasuko betebeharrak finantzarioak bere gain hartzen ditu–, lehendik dagoen edo egiteko dagoen kontratu batengatik –oro har, kreditu edo mailegu bat da–. Finantzen merkatuan exijitu ohi diren bermeen (aktiboak, prenda, abalak...) elementu osagarri bat da.

¹⁰ Ez ditu biltzen ez funtzionarioen montepiotik, ez itzaleko bidesarrietatik heldutako betebeharrak aktuarialak.

Ondoren, kapituluaren eta urtearen arabera xehetasunak ematen ditugu (euroak, milakotan).

Kapitulua	2014	2015	2016	Gainerakoa	Guztira	% Guztizk. gain.
1 Langileria-gastuak	2.041	0	0	0	2.041	-
2. Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	102.140	14.610	11.721	6.007	134.478	4
3 Gastu finantzarioak	101.445	88.156	72.087	154.124	415.812	13
4 Transferentzia arruntak	13.000	1.484	310	209	15.004	1
6. Inbertsio errealak	62.290	28.318	5.767	0	96.376	3
7 Kapital-transferentziak	72.644	35.163	545	1.769	110.121	3
9. Finantza-pasiboak	296.501	307.197	346.048	1.549.985	2.499.730	76
Guztira	650.062	474.928	436.478	1.712.093	3.273.562	100
Ehuneko/urtea	20	15	13	52	100	

V.3.2. Enpresen sektore publikoa

Enpresen sektore publikoak, zeina soilik osatzen baitute NOPFLaren eraginetarako publikotzat jotako enpresek, 2013an, 17 sozietate dauzka, aurreko ekitaldian baino lau gutxiago. Kopuruaren gutxitze horren arrazoia da bai Burnizko azpitaldearen –hiru sozietatek osatua– salmenta, bai Navarra Deporte y Ocio, S.L. ren eta Navarra de Espacios Culturales S.A. ren xurgatze bidezko bategitea ere¹¹.

Hurrengo taulan, adierazle metatu batzuk erakusten ditugu, aurreko urteko datuekin alderatuak. Alderaketa hori homogeneoa izan dadin, 2012ko datuek ez dute biltzen Burnizko azpitaldearen informazioa.

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Adierazlea	2012 ¹²	2013
Enpresa publikoen kopurua	18	17
Ondare garbia	876.711	850.155
Epe luzerako zorra (metatua)	320.146	249.096
Finantza-entitateekin epe laburrera hartutako zorra	152.267	201.464
Negozio-zifren zenbateko garbia	171.514	147.476
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	16.089	9.092
Langile-gastuak	49.330	47.584
Ekitaldiko emaitza (metatua)	-109.643	-48.123
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak	244.667	174.811
Enplegatu kopuruaren batez bestekoa	1.113	1.040

- Epe luzeko zorra 249 milioikoa zen 2013an, aurreko ekitaldian baino ehuneko 22 txikiagoa –hau da, 71 milioi gutxiago–; zor horretatik, ehuneko 66 finantza-entitateekin hartutako zorra da –165 milioi inguru–. Honakoen zorpetzeak nabarmendu behar dira: Sodenarena –100 milioi–, Nasuvinsarena –37,6 milioi– eta Nilsa –29,6 milioi–. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nabarmen egin du behera Nasuvinsarenak –25 milioi gutxiago– eta CATena –53 milioi gutxiago–; hala eta guztiz ere, azken enpresa horri dagokionez, gutxitze hori kontabilitate hutsezkoa da, epe laburreko zor gisa birsailkatu baita.

- Finantza-entitateekiko epe laburreko zorpetzeak ehuneko 32 egin du gora –49,2 milioi–; zor horren ehuneko 66 inguru Sodenan enpresan kontzentratuta dago –133 milioi–. Magnitude horren balioaren igoera funtsean justifikatuta dago CATen zorra birsailkatu egin delako, aipatu den bezala.

- Negozio zifra orokor horren zenbateko garbiak ehuneko 14 egin du behera –24 milioi–; horietatik, 19 milioi Nasuvinsari, 4,7 milioi NEKPri eta 3,6 milioi Tracasari dagozkie. Nabarmentzekoa da INTIAN izandako 7,4 milioiko igoera.

- Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzek ere behera egin dute 2013an, ehuneko 43 behera hain zuzen –ia zazpi milioi gutxiago, beraz–.

- Langile gastuek ehuneko 3,54 egin dute behera; hau da, 1,75 milioi gutxiago daude.

¹¹ Horrek Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. (NICDO) sozietatearen sorrera ekarri du.

¹² Alderaketa egiteko, ez da Burnizko azpitaldeari buruzko informazioa jaso.

- 2013ko emaitza negatibo metatuak ehuneko 56 egin du behera, eta 2013an 48,1 milioikoa da; aurreko urtean, berriz, 109,6 milioikoa izan zen. Galera handienak Sodenan ikus daitezke -14,2 milioi-, bai eta NEKPan ere -12,7 milioi-; galera horiek heldu dira, funtsean, enpresen partaidetzen balio oespenari buruz eta emandako mailegu eta bermeei buruz egindako zuzenketetatik; aurreko urtean balio negatibo horiek 61,3 eta 36 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren. Halaber, nabarmendu behar ditugu Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio sozietatearen galerak, 9,1 milioikoak, bai eta Nasuvinsarenak ere, sei milioikoak -enpresa horrek 2,7 milioiko etekinak izan zituen 2012an-. Etekin handienak Salinas de Navarra sozietateak lortu zituen; 1,3 milioi eurokoak, hain zuzen.

- Enpresek hirugarrenei emandako abalen bolumenak ehuneko 29 egin du behera; hau da, 69,9 milioi txikiagoa da. Abal horiek, funtsean, Sodena enpresan kontzentratuta daude.

- Langileen urteko batez besteko kopuruan, 73 pertsona gutxiago ageri dira; hau da, aurreko urtean baino ehuneko 6,5 gutxiago. Nabarmentzekoak dira CEINen -32 langile gutxiago- eta GANen zein Naserticen -18na langile gutxiago- egindako murrizketak. Tracasa sozietateak izan du langile-kopuruan igoerarik handiena, zortzi gehiago baitauzka. Hiru sozietate publikok ez dute langilerik (Potasas de Navarra, Start Up eta Natural Climates Systems).

V.3.3. Fundazioen Sektore Publikoa

Honako datu metatuak eskaintzen ditu sektore horrek 2013an, 2012ko datuekin alderatuta (euroak, milakotan; salbu eta zenbaki bidez aipatutako kasuetan):

Adierazlea	2012	2013
Fundazio publikoen kopurua	7	7
Ondare garbia	4.515	3.822
Epe luzeko zorra	0	0
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	6.533	6.556
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	2.763	2.805
Langile-gastuak	1.985	2.976
Ekitaldiko emaitza (metatua)	-148	-581
Enplegatu kopuruaren batez bestekoa	55	77

Nabarmendu beharra daukagu emaitza metatu negatiboak ia lau aldiz handiagoak direla. Bai jardueratik heldutako diru-sarrek, bai Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzek antzeko zenbatekoak erakusten dituzte.

Langile kopurutik -77-, 53 langile Miguel Server fundaziokoak dira; 2012ko datuekin alderatuta, fundazio horrek batez beste 20 langile gehiago dauzka, funtsean ikerketa- eta irakaskuntza-jarduketak egiteko.

Azken batez, Nafarroako Gobernuaren finantza-egoeraren ezaugarria da kanpoko finantzaketara jo behar duela bere gastuak estaltzeko, nahiz eta nolabaiteko egonkortasuna duen gastu eta diru-sarrera arrunten kopuruan eta inbertsio-ahalmenean etengabe behera egin duen.

Zorpetze handiago hori eragiten ari da hartatik heldutako finantza-zama finantzatzera bideratutako baliabideak pixkanaka handitzen joatea.

2013an, ikusi da nolabaiteko hobekuntza egon dela urteko adierazle eta magnitude nagusietako balio negatiboetan, salbu eta aurrezki garbiari dagokionez, zorpetzearen aipatutako finantza-zamak izan duen igoeraren ondorioz. Hobekuntza horretan, eragin adierazgarria izan dute Hitzarmen Ekonomikoaren doikuntzen egozketari buruzko kontabilitate-irizpideen aldaketaren ondoriozko diru-sarrera gehigarriek.

Halaber, Nafarroako Gobernuak azken urteetan izan duen desaurrezki edo emaitza ekonomiko negatiboak berarekin ekarri du bere balantzean jasotako funts berekiek, lehenengo aldiz, balio negatiboak izatea.

Bestalde, enpresen sektore publikoa, behin Burnizko azpitaldea besterendu ondoren eta NEKPk ezarritako aurrezki- eta doikuntza-neurrien aplikazioaren ondorioz, bere emaitza bateratu negatiboak, zorpetze-bolumena eta langile-kopurua gutxitzen ari da.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen ziurgabetasuna, ziurgabetasun horrek kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabilera gardentasuna izateak herritarren beharrek bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

Ganbera honek bere azken txostenetan behin eta berriz adierazi duen moduan, Nafarroako aurrekontuak egungo egoerara egokitzeak exijitzen du bai gastuen eta diru-sarreraren politikak eta erdietsi nahi diren helburuak, bai antolamendua bera sistematikoki eta modu jarraituan berrikustea, identifikatze aldera zein diren lehentasuneko arloak edo/eta zeinen kudeaketa hobetu daitekeen; bestalde, ahaleginak egin behar dira gastu produktiboko partidak lehenesteko eta kritikoki aztertu beharra dago diru-laguntzen eta inbertsioen arloko politika. Hori guztia zuzendu behar da harmonizazio eta oreka ahal diren handienak lortzera kontu publikoen saneamenduaren, aurrekontu-egonkortasuneko arauak betetzearen eta Nafarroako ekonomiaren eta enpleguaren hazkunde jasangarriaren artean.

V.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEKO ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Nafarroako Administrazio Publikoaren mugaketatik edo Kontabilitate Nazionalaren Terminoetan (SEC) adierazitako zerga-finkapeneko perimetrotik abiatuta –ikus txosten honetako II.2 atala–, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudi indardunak, funtsean, honako zerga-arauak aipatzen ditu 2013rako:

- Finantzaketa beharrek ez dute gaindituko barne produktu gordinaren (BPG) ehuneko 1,2a¹³.
- Zor publikoa, gehiegizko defizitaren protokoloa (GDP) metodologiaren arabera kalkulatu. 2013ko abenduaren 31n, zorpetzeko gehieneko gaitasunak ezin izanen du gainditu BPGaren ehuneko 16,7a.

Honakoak dira SECaren ondorioetarako Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektoreak hartzen dituen enteak: Foru Komunitatearen Administrazioa eta haren erakunde autonomoak, Parlamentua eta haren menpeko enteak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, nagusiki merkatuko diru-sarreraren bidez finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen edo ondasunak sortzen dituzten 11 sozietate publikoak eta Administrazioaren menpetasun ekonomikoa daukaten 13 fundazioak.

Estatuaren Kontu-hartzaitza Orokorra da administrazio publikoen sektoreko kontu ekonomikoak egiteko organo eskuduna, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak neurtzen du aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen ote den. Nafarroaren kasuan, eta Hitzarmenaren Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legearen arabera, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeari buruzko analisia hitzarmen horretan araututako Koordinazio Batzordeari dagokio.

Zehaztu beharra dago ezen bai finantzaketa-beharrek, bai zorraren bolumenak, kontabilitate nazionalako terminoetan, Foru Komunitatearen BPGaren magnitude ekonomikoen erreferentzia dutela; egungo abagune ekonomikoan, magnitude horren estimazioak oso aldakorrek dira, eta horrek eragin oso garrantzitsua dauka finantzaketa beharren kuantifikazioan eta zor publikoaren bolumenen finkapenean eta, horrenbestez, aplikatzekoak lirakeen doikuntzetan. Bestalde, 2014an, eta SEC'2010aren beharkizunen ondorioz, Europar Batasuneko herrialdeen BPGaren kalkulua aldatu da, zeren eta aldaketa metodologikoak eta estatistikoak eta legez kanpoko jardueri buruzkoak sartu baitira¹⁴.

¹³ Hasiera batean, portzentaje hori BPGaren ehuneko 0,7.

¹⁴ Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Espainiako 2013ko BPGa ehuneko 2,6 igo da aldaketa horien ondorioz; hau da, 26.193 milioi gehiago biltzen ditu. Horren ondorioz, Estatuaren 2013ko defizita BPGaren ehuneko 6,62 izatetik ehuneko 6,46 izatera pasa da, eta zor publikoa, berriz, BPGaren ehuneko 94,4tik ehuneko 92,1era. Ez dago oraindik jasota aldaketa horiek zenbaterainoko eraginak izanen dituzten Nafarroako BPGan.

V.4.1. Finantzaketa-beharrak

“Defizit (superabit) publikoa” da Administrazio Publikoaren Sektoreak daukan finantzatze-beharra (ahalmena). Hau da, diru-sarreraren eta gastu ez-finantzarioen arteko alderaketak erakutsiko digu, positiboa bada, finantzatzeko ahalmena badagoela (superabita) inbertsioak edo bestelako gastuak finantzatzeko; hala ez bada, finantzaketa-behar batzuk badaude (defizita) gastu horiek egin ahal izateko zorpetzera jo behar izatea inplikatzeko dutenak. Hori guztia kontabilitate nazionalako printzipioak aplikatuta. Horrek, izan ere, exijituko du doikuntza batzuk egitea aurrekontu-informazioan.

2013rako, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak finantzatzeko¹⁵ dauzkan beharrak ondorengo taulan adierazitakoak dira:

(euroak, milioitan)	
Finantzaketa-beharrak	2013
I. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa (diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura, ken gastuen kapituluko 1. kapitulutik 7. kapitulura)	-220,2
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	-218,5
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena	-0,3
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena	-1,4
II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak	-20,9
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	25,1
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	-4,8
Europako funtsetako transferentziak	-2,7
Barneko transferentziak	0,2
Diru-bilketa ez-segurua	-94
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	3
Inbertsioak elkarte publiko-pribatuen bidez	3
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	-5,7
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)	29,2
Abalen exekuzioa	-1,8
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	27,6
Farmazia-gastuaren sortzapena (1)	-9
Osasun kohesiorako funtsa (1)	1
Hidrokarburoen gaineko zerga (1)	8
III. Elkarte publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)	-13,5
IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharra (I.etik III.ra)	-254,6
Finantzaketa-beharraren ehunekoa BPGaren gainean (2)	-1,45
Ezarritako helburua, BPG erregionalaren gaineko ehunekoan adierazia	-1,20
Helburuaren gainean, beharra gehiegizkoa izatea (milioitan)	44

(1) EAKNk zuzenean sartutako doikuntzak

(2) Nafarroako 2013ko BPGa 17.557 milioikoa izan dela jo da (Estatuko Estatistika Institutuaren arabera)

Ekitaldiko aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren eta aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako emaitzaren arteko aldea (edo finantzaketa-beharra) azaltzeko, kontuan hartu behar dira aurrekontu-kontabilitateko irizpideen eta aurrekontu-egonkortasuna kalkulatzeko aplikatzekoak diren SEC kontabilitate-irizpideen arteko dibergentziak. Alde aipagarrienak honakoetatik heldu dira:

- Hitzarmen Ekonomikoaren ekarpenak 25,1 milioiko doikuntza positiboa ageri du, Nafarroaren eta Estatuaren arteko irizpide-desberdintasuna dela eta. (Ikus VII.9 atala)

- Diru-bilketa ez-segurua Tributuen tratamendurako, eta kontuan izanda kontabilitate nazionalako terminoetan kutzaren irizpidea aplikatzen dela sortzapenaren aurrekontu-irizpidearen gainean, doikuntza bat egiten da aurrekontuan sortutako zenbatekoa eta egiaz ekitaldi korrontean eta itxitako ekitaldian bildutakoa alderatu ondoren. 2013an, doikuntza hori 94 milioi euro negatiboa izan da; hau da,

¹⁵ Behin-behineko informazioa da, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak behin betiko berretsi beharrekoa.

zergengatik likidatutako eskubideak zenbateko horretan handiagoak dira ekitaldian bertan egiazki bildutako diru-sarreraren gehi aurreko ekitaldietan bildutakoen batura baino.

- Aurrekontuari aplikatzekoak zaizkion eragiketek, hau da, ekitaldiko aurrekontuari egotzi ez zaion 2013ko gastu efektiboak, krediturik ez izateagatik nahiz beste inguruabar batzuegatik, hiru milioi euroko doikuntza positiboa (defizita kenduta) ageri du (ikus VII.4 atala).

- Itzaleko bidesariaren formularen bidez finantzatutako azpiegiturak. Urtean zehar obrarik exekutatu ez denez, kontabilitate nazionalean balio positiboekin (defizit txikiagoa) doitzen da amortizazioa, egindako obretako finantza-irizpideen arabera; hartara, 2013an, Pirinioko autobiarako, doikuntza bi milioikoa da eta ureztaketetarako, berriz, milioi batekoa.

- AHT. 29,2 milioiko doikuntza positibo bat jaso da, Nafarroako Gobernuak 2013an zehar egindako obrei dagokiena. Estatuarekiko hitzarmenaren arabera, obra horiek ez dira kontuan hartzen finantza-keta beharrak kalkulatzearen ondorioetarako.

- Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik. Zergen itzulketak zenbatekoaren arabera sortzen dira, eta subjektu pasiboak eskatzen duen unean; horrenbestez, kontabilitate nazionaleko doikuntza ezartzen da 2013an zergen itzulketengatik hartzekodunek zeukaten hasierako saldotik abiatuz eta hura alde-atuz kontu horien amaierako saldoarekin¹⁶. 2013an, horrek 27,6 milioiko doikuntza positiboa ekarri du.

- EAKNk sartutako doikuntzak:

- a) 2013an, farmazia-gastua erregistratzeko kontabilitate-irizpidea aldatu zen. Hartara, tradizional, gastua azarotik azarora erregistratzen zen; 2013an, ordea, irizpidea aldatu zen, urte bakoitzeko abendu-ere sartu baitzen. Hilabete horren kuantifikazioa –bederatzi milioi– EAKNk zuzenean egiten du, eta berarekin dakar Nafarroako Gobernuaren defizita kopuru horren arabera igo beharra dagoela.

- b) Osasun Kohesioko Funtsak Espainian egoitza duten eta ohiko etxebizitza dutenaz beste autonomi erkidego batera bideratzen diren gaixoei ematen zaion osasun laguntza, Osasun Ministerioak erreferentziakotzat katalogatutako zentro/unitateetan arta ditzaten. Positiboan kuantifikatu da, milioi bat euroan.

- c) Hidrokarburoen gaineko zerga, zerga berri horretatik diru-sarreretatik heldu diren zortzi milioiko kopuruaren doikuntza positiboa eginez –Nafarroari dagozkio, nahiz haien diru-bilketa jatorrizko tokian egin, hau da, foru lurraldetik kanpo.

Azken batez, 2013rako, Nafarroako Gobernuaren minus 220,2 milioiko aurrekontu-saldo ez-finantzariotik abiatuta, aurrekontu-kontabilitatearen arabera, beste ente batzuen beharrak gehitu ondoren eta kontabilitate nazionaleko betebeharretatik heldu diren doikuntzen ondoren, emaitza da Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektoreak 254,6 milioiko finantzaketa-premiak dituela. Premia horiek Nafarroako 2013ko BPGaren ehuneko 1,45 dira eta, horrenbestez, aurrez finkatutako ehuneko 1,2ko helburua gainditzen da. Desbideratze hori dela eta, finantzaketa-beharrak 44 milioitan handitu behar dira.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, finantzaketa-behar horiek ehuneko 18 jaitsi dira; hau da, 57 milioi gutxiago daude.

¹⁶ Amaierako saldo hori honakoek osatzen dute: aurkezpen-epaia 2013 baino lehenagokoa duten zergei dagozkien hartzekodunak eta 2013ko amaieran aurkeztu diren baina itzulketa egin gabe dauden aitortzenen kalkulu bat.

V.4.2. Zor publikoa, gehiegizko defizitaren protokoloko (GDP) arabera.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten enteent zorraren bolumena 3.133,7 milioi eurokoa da 2013ko abenduaren 31n, eta honela azaltzen da:

Zorra GDPren arabera (euroak, milioitan)	2013
Nafarroako Gobernua	2.486,9
Nafarroako Gobernua. Pirinioetako Autobia dela-eta egotzitako zorpetzea.	199,3
Nafarroako Gobernua. Nafarroako Ubideko urreztaurretatik egotzitako zorpetzea	124,9
Sozietate publikoak	315,3
Fundazio publikoak ¹⁷	7,2
Zorpetzea, guztira, 2013-XII-31n	3.133,6
Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehunekoak	17,85
Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoak	16,70
Biztanle bakoitzeko gastua (eurotan)	4.867

Horrenbestez, zorpetzearen bolumenak, 2013ko abenduaren 31n, aipatutako protokoloaren arabera, puntu bat baino gehiago gaintzen du Nafarroako BPGaren gainean finkatutako helburuaren ehunekoak, Estatuarekiko akordioaren arabera –ehuneko 17,85a ehuneko 16,70aren aldean–. Biztanle bakoitzeko, 4.867 euroko zorra dago.

2012rekin alderatuta, honakoa adierazi behar dugu:

- Zorpetzearen bolumen orokorrak ehuneko 9,7 egin du gora; hau da, 276,9 milioi, guztira. Igoera horren azalpena dago, funtsean, Nafarroako Gobernuan –295,1 milioiko igoera– eta sozietate publikoen jaitsieran –18 milioi gutxiagoko zorra–.

- Nafarroako BPGari dagokionez, ehuneko 15,76 izatetik ehuneko 17,85 izatera pasa da.

- Biztanle bakoitzeko, 4.432 eurokoa izatetik 4.867 eurokoa izatera pasa da; hau da, ehuneko 9,8 egin du gora.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez ditu bete 2013rako finkatuta zeuden finantzaketa-beharraren helburua eta BPGaren gaineko zorraren ehunekoak.

2014ko urrian, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeak erabaki zuen Nafarroako Gobernuak Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioari foru-fidantzen doikuntza-plan bat igortzea, 2013rako defizit-helburuaren ez-betetzearen emaitza gisa. Txosten hori berriki igorri da.

Txosten honen 2. eranskinean erakusten da 2008tik 2013ra izandako bilakaera, bai finantzaketa beharrena, aurrekontu-egonkortasunaren araudia betetzearen eraginetarako, bai zorpetze bolumenarena ere. Ondoren horren laburpen bat ematen dugu (zenbatekoak milioitan adierazita daude).

Finantzaketa-beharrak	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Finantzatzeko beharra, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen ondorioetarako (milioitan)	-877	-477	-564	-368	-311	-255
Nafarroako BPGaren gaineko finantzaketa beharraren ehunekoak	-4,70	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72	-1,45
Ezarritako helburua, Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,75	-0,75	-2,40	-1,30	-1,50	-1,20
Zor publikoa, GDP	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Bolumena (milioitan)	867	1.085	1.692	2.443	2.857	3.134
Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoak	4,69	5,97	9,10	13,05	15,76	17,85

Ikusten da ahalegin handi bat egin dela finantzaketa-beharren gutxitzean –877 milioitik 255 milioira hain zuzen–, nahiz eta sei urteetan ekitaldirako aurrez finkatutako egonkortasun-helburua ez den bete. 2012ko eta 2013ko zorpetzearen bolumenak BPGaren gaineko ehunekoaren helburua gaintzen du.

¹⁷ Zorpetze hori Cener-Ciemat Fundazioari dagokio.

Azkenik, adierazi beharra dago 2014ko ekitaldiari begira honako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak ezartzen direla:

- Finantzaketa beharrek ez dute gaindituko barne produktu gordinaren (BPG) ehuneko 1a.
- Zor biziaren bolumenak, gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera, ez luke gaindituko bere BPGaren ehuneko 18,1a.

V.5. GOMENDIOEN JARRAIPENA

2012ko txostenean jasotako lehentasunezko gomendio hauek edo bete dira edo betetzeko fasean daude:

- *Nafarroako Kontu Orokorrak ixteko data hurrengo urteko irailaren 15etik uztailaren 1era aurreratu dira.*
- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen sistema aztertzeke eta aldatzeko prozesua garatzen ari da. Horrek aukera emanen du bai tributu zordunen jarraipena emateko bai kontabilitate orokorreko sistemarekin koordinatzeko.*
- *Fakturen erregistroaren barruan, haren, kontabilitate sistemaren eta aurrekontuari aplikatzekoak zaizkien zordunen kontuen tratamenduaren arteko lotura osatzen ari da.*
- *Azterlan bat egin da “Nafarroako Gobernuaren pentsioen gastuaren aurreikuspenari” buruz, oinarriztat balio dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioko pentsio arrunten kontusailaren aurrekontua egiteko.*
- *Foru Komunitateko zerga-esparru indarduna eta Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa egokitzeari buruzko azterlanak hasi dira.*

VI. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN 2013KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren 2013ko kontu orokorrak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak aurkezten ditugu.

VI.1. 2013ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2013ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Bateratua	Baimendua	Erabilia	Gauzatua	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.066.683	1.098.463	1.096.453	1.096.453	1.096.411	100	1.096.090
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	517.885	539.212	525.305	524.495	523.190	97	471.140
Finantza-gastuak	101.452	108.027	107.325	107.325	107.325	99	106.413
Transferentzia arruntak	1.361.976	1.401.302	1.392.119	1.390.244	1.387.088	99	1.324.181
Osoko kreditua	240.657	198.777	-	-	-	-	-
Inbertsio errealak	157.509	171.668	130.116	127.570	125.051	73	104.843
Kapital-transferentziak	178.984	182.027	146.263	145.666	144.097	79	106.912
Finantza-aktiboak	19.359	111.814	103.244	103.244	103.244	92	103.244
Finantza-pasiboak	193.211	193.211	193.211	193.211	193.211	100	193.211
Guztira	3.837.717	4.004.501	3.694.036	3.688.208	3.679.616	92	3.506.034

2013ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Hasierako aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	% betetzea	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.434.617	1.434.617	1.423.100	99	1.382.056
Zeharkako zergak	1.763.838	1.763.838	1.522.068	86	1.406.477
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	104.790	113.130	130.885	116	93.916
Transferentzia arruntak	67.759	68.667	46.855	68	42.638
Ondare bidezko diru-sarrerak	9.952	15.674	17.471	111	13.468
Inbertsio errealen besterentzea	9.405	9.410	1.438	15	1.275
Kapital-transferentziak	17.578	17.746	22.838	129	20.986
Finantza-aktiboak	21.527	112.527	104.221	93	103.657
Finantza-pasiboak	408.250	468.893	463.657	99	463.657
Guztira	3.837.717	4.004.501	3.732.533	93	3.528.130

VI.2. 2013 EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.140.379	3.114.014	26.365
2. Kapital-eragiketak	24.276	269.148	-244.872
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	104.221	103.244	977
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta	3.268.876	3.486.406	-217.530
II. Finantza-pasiboen alde garbia	463.657	193.211	270.447
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa			52.917
4. Diruzaintza-gerakinaren bidez finantzaturako betebeharrak aitortuak.			20.755
5. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			3.479
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			- 9.495
V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)			67.656

VI.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2013KO ABENDUAREN 31N

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
+ Kobratzeko dauden eskubideak	255.118.286
Diru-sarreren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	733.251.327
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-477.991.841
Aplikatzeko dauden kontusailak	-1.067.168
Diru-sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	4.450.593
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-4.138.394
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	827.302
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-213.532
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	514.051.643
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	458.406.049
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	8.806.852
Aurrekontuz kanpoko gastuak	46.838.742
Epe laburreko obligazioak eta bonoak	
Finantza-pasiboen itzulketa	
+ Funts likidoak	123.152.931
Diruzaintza-gerakina, guztira	-135.780.425
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	78.608.539
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	6.803.158
Atxikitako diruzaintza-gerakina	85.411.697
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-221.192.122

VI.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)		
AKTIBOA	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
A) Ibilgetua	2.595.420.805	2.562.314.048
III. Ibilgetu materialak	2.135.544.664	2.076.868.200
1. Lursailak eta eraikinak	1.419.186.332	1.399.511.026
2. Instalazio teknikoak eta makineria	66.273.649	66.084.099
3. Tresneria eta altzariak	357.189.677	351.189.446
4. Bestelako ibilgetua	239.953.751	236.305.240
6. Ekitaldiko ibilgetua	52.941.256	23.778.399
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	459.876.141	485.445.848
1. Epe luzerako baloreen zorroa	474.448.894	469.918.657
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	59.760.912	64.198.792
4. (Hornidurak)	-74.333.665	-48.671.601
C) Aktibo zirkulatzalea	461.712.172	533.127.107
I. Izakinak	13.929.942	13.005.540
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	13.929.942	13.005.540
II. Zordunak	324.613.579	326.725.992
1. Aurrekontuko zordunak	806.145.764	750.248.173
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	94.687	111.461
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazioan	69.005	450.418
5. Bestelako zordunak	14.317.472	11.493.204
6 (Hornidurak)	-496.013.350	-435.577.264
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	15.720	3.911.168
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	0	3.895.449
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	15.720	15.720
IV. Diruzaintza	123.152.931	189.484.407
Aktiboa, guztira (A+B+C)	3.057.132.978	3.095.441.155

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
A) Funts berekiak	-10.912.637	246.531.151
I. Ondarea	631.965.381	887.858.837
1. Ondarea	631.965.381	887.858.837
III. Aurreko ekitaldiko emaitza	-385.422.211	-255.893.456
1. Aurreko ekitaldiko emaitza	-385.422.211	-255.893.456
IV. Ekitaldiko emaitzak	-257.455.807	-385.434.230
C) Epe luzeko hartzekodunak	2.290.458.016	2.141.433.710
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.660.499.050	1.433.354.694
1. Obligazioak eta bonoak	1.660.499.050	1.433.354.694
II. Epe luzeko bestelako zorrak	629.958.967	708.079.016
2. Bestelako zorrak	629.469.747	707.571.500
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	489.220	507.516
D) Epe laburreko hartzekodunak	777.587.598	707.476.294
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	263.027.797	136.466.108
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	243.039.935	131.416.325
2. 520. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	19.987.861	5.049.783
III. Hartzekodunak	514.559.802	571.010.186
1. Aurrekontuko hartzekodunak	469.245.734	512.988.750
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazio-erakunde hartzekodunak	6.026.218	4.395.050
4. Administrazio publikoak	2.768.143	1.848.307
5. Bestelako hartzekodunak	33.489.853	48.946.649
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	3.029.853	2.831.430
Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)	3.057.132.978	3.095.441.155

VI.5. 2013ko EMAITZEN KONTUA

(eurotan)

Zor	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	212.415.412	236.697.750
b) Ekitaldiko kontsumoak	212.415.412	236.697.618
c) Kanpoko beste gastu batzuk	0	133
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.600.277.162	1.623.261.418
a) Langile-gastuak.	1.021.331.733	1.002.018.318
a.1) Soldatak eta ordainsariak	871.698.212	841.458.559
a.2) Gizarte-zamak	149.633.521	160.559.759
b) Gizarte-prestazioak	75.288.925	70.844.844
d) Trafiko horniduretako aldeak	60.436.085	68.025.256
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	60.436.085	68.025.256
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	310.404.298	316.020.611
e.1) Kanpoko zerbitzuak	310.390.640	316.002.156
e.2) Tributuak	13.658	18.455
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	107.154.057	130.600.252
f.1) Zorrek direla eta	107.154.057	130.600.252
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	25.662.064	35.752.137
4. Transferentziak eta diru-laguntzak	1.530.762.771	1.633.020.091
a) Transferentzia arruntak	1.386.665.797	1.391.738.419
c) Kapital-transferentziak	144.096.973	241.281.672
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	78.182.143	76.692.083
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0	1.138.056
c) Aparteko gastuak	64.859.171	61.825.128
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	13.322.972	13.728.899
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)		
Zorra, guztira	3.421.637.488	3.569.671.342

Hartzeko	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak	2.972.677.375	2.966.803.970
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	2.956.568.649	2.949.037.966
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.086.628.933	1.138.117.701
a.2) Sozietateen gaineko zerga	164.636.186	196.908.841
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	90.661.944	48.979.714
a.4) Ondarearen gaineko zerga	54.528.361	36.523.998
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	26.644.735	0
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta E.J.D.en gaineko zerga	39.807.606	44.144.400
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	985.662.777	1.049.974.880
a.11) Zerga bereziak	496.597.550	421.260.224
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	11.400.555	13.128.207
b) Kotizazio sozialak	2.955.930	3.128.376
c) Zerbitzu-emateak.	13.152.797	14.637.628
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	13.152.797	14.637.628
2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	115.019.375	125.826.457
a) Diru-itzultzeak	12.578.218	25.837.285
c) Salmentak eta zerbitzu-emateak.	36.825.421	34.186.779
c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	48.753.884	49.485.786
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	48.753.884	49.485.786
d) Kapitaleko partaidetzen bidezko diru-sarrerak	0	435
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	16.861.851	16.316.172
f.1) Beste interes batzuk	16.861.851	16.316.172
3. Transferentziak eta diru-laguntzak	69.763.843	75.987.584
a) Transferentzia arruntak	46.854.886	49.630.051
b) Kapital-transferentziak	22.908.957	26.357.533
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	6.720.933	15.619.100
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	1.097.339	7.414.353
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	0	26.765
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	5.623.749	8.177.982
Saldo zorduna (desaurrezkia)	257.455.807	385.434.230
Hartzekoa, guztira	3.421.637.489	3.569.671.342

VII. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA

Ondoren, arlo jakin batzuetan egindako lanaren lanaren analisi zehatza ematen dugu, bai eta Nafarroako Gobernuaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendio nagusiak ere.

VII.1. NAFARROAKO GOBERNUAREN 2013ko AURREKONTUA-2012ko AURREKONTUAREN LUZAPENA

2012ko abuztuan, Nafarroako Gobernuak gastu ez-finantzarioaren 2013rako muga onetsi zuen, eta 3.384,49 milioian finkatu zuen –aurreko ekitaldian baino ehuneko 8,81 gutxiago–; AHTko obren aurre-rakinaren ekarpena kenduta, muga hori 3.316 milioi euroan geldituko da. Kopuru hori lortzeko, kontuan hartu dira makroekonomiako honako hipotesiak edo agertokia:

- BPGaren ehuneko 1,2ko kontrakzioa.
- Enplegu-mailak 2,4 jaitea.
- Prezioak ehuneko 1,7 igotzea.
- Kontabilitate nazionalaren eraginetarako, 2013ko BPGaren ehuneko 0,7ko finantzaketa-beharra¹⁸; hau da, 131 milioi eurokoa.

Kontabilitate nazionaleko terminoetan, gastu-muga edo -sabai hori honela xehakatzen da (milioitan):

Adierazleak	Zenbateko partziala	Zenbatekoa, guztira
Finantzaz besteko diru-sarrerak		3.178,75
Finantzaketa-beharrak, BPGaren ehuneko 0,7a		131,06
Kontabilitate Nazionaleko doikuntzak		74,68
Foru Sektore Publikoa	6,20	
AHTren lanak	68,48	
Finantzaz besteko gastuaren muga		3.384,49

2012ko urriaren 31n, Gobernuak Nafarroako Parlamentuari 2013ko Aurrekontu Orokorrei buruzko lege proiektua aurkeztu zion. Parlamentuak osoko zuzenketa bat onetsita, 2012ko azaroan atzera bota zen aurrekontuei buruzko proiektu hori. Horrenbestez, 2012ko aurrekontua automatikoki luzatu zen, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 37. artikulua aplikatuta.

Gobernuak, 2013ko urtarrilaren 9ko erabaki baten bitartez, jarraibide edo arau batzuk onetsi zituen 2013ko aurrekontuaren betetzerako. Honakoa da arau horien laburpena:

- Diru-sarreraren eta gastuen kredituek 3,837,72 milioi egiten dute; kopuru hori bat dator 2012ko hasierako aurrekontuarekin.
- Eutsi egiten zaio 2012ko abuztuan onetsi eta arestian aipatu dugun gastu ez-finantzarioaren mugari, zeina 3.384,49 eurokoa zela kalkulatzeko baitzen. Finantzaketa-beharrak, berriz, BPGaren ehuneko 0,7an ezarri ziren.
- 2013rako aurreikusitako finantza-gastua, guztira: 212,57 milioioia da.

¹⁸ Nafarroarako kalkulaturako BPGa 18.723 milioioia da.

• Luzapen-funts bat eratzen da, 240,66 milioikoa, zeina 2012ko hasierako aurrekontuaren – 3.837,7 milioi– eta aurreko bi kontusailen arteko diferentziaren emaitza baita. Honakoa hau da (milioitan):

Luzapenaren funtsa	Zenbatekoa
Hasierako aurrekontua 2012	3.837,72
Gastu ez-finantzarioaren muga, 2013an	- 3.384,49
2013an aurreikusitako finantza-gastua	- 212,57
2013ko luzapenaren funtsa	240,66

• Halaber, ezartzen de zorpetze garbiaren bolumenak ezin izanen duela gainditu 199,55 milioiko kopuruan baino gehiagoan 2013ko urtarrilaren 1etako saldo bizia; bolumen horren barruan, AHTaren obrak egiteko 68,49 milioi ageri dira.

• Helburu gisa ezatzen da gastu sozialari eustea, hau da, hezkuntzako, osasuneko eta gizarte politiketako kontusaileri eustea. Halaber, indarra ematen zaio bultzatzeari ekonomiaren berraktibazioan eta enplegu-sorreran eragina duten gastu-kontusaileri, bai eta Administrazioaren beraren egitura- eta funtzionamendu-gastua gutxitzeari ere.

Gero, 2013ko azaroan, Nafarroako Gobernuak eta Estatuak hitzartu zuten 2013ko aurrekontuaren finantzaketa-beharrak ekitaldi horretako BPGaren ehuneko 1,2ren parekoak izan zitezela; horrekin, ehuneko 0,7 handitu zen hasiera aurreikusitakoa. Portzentaje berri horrek 225 milioiko defizit teorikoa dakar.

Aurrez aipatutako **luzapenaren funtsari** dagokionez, honakoa esan behar dugu:

• Betetzea. Hasieran, 240,66 milioiko zuzkidura jarri zen; kopuru horri, behar ziren aldaketen bitartez, 41,88 milioi kendu zitzaizkion; horrenbestez, 198,78 milioiko kreditu bateratua geratu zen. Daukan izaera dela eta, ez zen betebeharririk aitortu bateratu horren gainean.

• Aurreko aldaketa horiekin, honakoak finantzatu ziren:

a) Funtsen mugimendua: Langileen ordainsariak, 30,47 milioi.

b) Funtsen mugimendua: Ikastetxe itunduetarako diru-laguntzak: 2,91 milioi.

c) Aparteko kreditua: Canal de Navarra, S.A. sozietateari 8,5 milioiko aurrerakina ematea.

Hasierako aurrekontu luzatuari –3.837,72 milioi–, **aurrekontu-aldaketen bitartez**, ehuneko 4,35 gehitu zaio, hau da, 166,78 milioi. Honakoa da aldaketa horien tipologia eta kopuru garbia (euroak, milakotan):

2013ko aldaketak	Zenbatekoa
Kreditu gehikuntzak	74.832
Diru-sarreraren bidez sortutako kredituak	84.826
Kredituak sartzea	7.126
Guztira	166.784

Honakoak dira aldaketa horien xehetasunak, gastu-kapituluaren eta departamentuaren arabera adieraziak (euroak, milakotan):

Gastu-kapitulua	Zenbatekoa	Departamentua	Zenbatekoa
Langileak	31.780	Lehendakaritza	92.318
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	21.327	Ekonomia eta Ogasuna	- 5.579
Finantza-gastuak	6.575	Hezkuntza	7.178
Transferentzia arruntak	39.327	Osasuna	45.145
Luzapenaren funtsa	- 41.880	Sustapena	17.050
Inbertsio errealak	14.158	Landa Garapena, Industria eta Enplegua	7.063
Kapital transferentziak	3.042	Gizarte politika	3.657
Finantza-aktiboak	92.455	Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua	- 47
Guztira	166.784	Guztira	166.784

Aldaketa horiek finantzatu dira, funtsean, zor publiko gehiago jaulkiz -60,64 milioi euro-, diruzaintza-gerakinarekin -9 milioi euro- eta langileen maileguen itzulketarekin, aparteko soldataren aurrerapenaren ondorioz -82 milioi euro-. Honakoak izan dira zor publikoaren aipatutako handitzearekin finantzatutako jarduketak (euroak, milakotan):

Zorpetzea handitzearen bitartez finantzatutako aldaketak	Zenbatekoa
Estatuarentzako ekarpena	20.780
Farmakoak	20.000
Bide sareko zorua sendotzea	14.861
Irauteko baliabiderik ez duten familientzako diru-laguntzak	2.500
Udalekiko hitzarmenak, 0-3 eskoletarako	1.341
Nafarroako zorraren interesak	896
Atentatu terroristengatiko diru-laguntzak	265
Zorraren handitzea, guztira	60.643

2013ko ekitaldian, aurrekontuko **kontusail batzuk blokeatu dira**, 14,59 milioi euro egiten dutenak; aurreko ekitaldian, berriz, 82,01 milioirainokoa izan zen kontusailen blokeatzea. Departamentuko, eragin nabarmenena izan zutenak Ekonomia -ehuneko 36-, Kultura -ehuneko 15- eta Gizarte Politikak -ehuneko 14- izan ziren.

Izaera ekonomikoari erreparatuta, blokeo horiek eragina izan dute, funtsean kapital-transferentzien kapituluaren -ehuneko 44- eta transferentzia arruntenean -ehuneko 23-.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak, 2013an, ez du errespetatu ekitaldi horretarako onetsitako **gastu ez-finantzarioaren muga edo sabaia** (kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua); horixe azaltzen dugu hurrengo taulan:

	(euroak, milioitan)
2013ko gastu ez-finantzarioa (kontabilitate nazionala)	2013
Gastu ez-finantzarioaren muga, 2013rako aurreikusia (a)	3.384,49
Gastu ez-finantzario errealaren muga, 2013an (b)	3.471,10
Aldea (a-b)	-86,61

Aurreko alde hori justifikatuta dago, funtsean, finantzaketa beharrek gora egin dutelako; hartara, gastu-sabaia onesteko fasean, 131,06 milioikoak zirela jotzen zen -hau da, BPGaren ehuneko 0,7-; gero, kopuru hori igo zen BPGaren ehuneko 1,2 egiteraino. Horrekin, behar horiek 225 milioitan handitu ziren; azkenik, 2013ko abenduaren 31n, 254,6 milioikoak direla jotzen da.

2014rako, Nafarroako Gobernuak 3.405,55 milioiko gastu ez-finantzarioko muga edo sabaia onetsi du.

- *Gomendatzen dugu NOPFLan aurrekontu luzatuei buruz jasotako lege-araupetze indarduna azter dadin, egiaztatze aldera ea bat datorren egungo betekizunekin, bereziki aurrekontu-egonkortasunaren arloari dagokionean.*

VII.2. GAI OROKORRAK

Kontu orokorrak aurkezteko datari dagokionez, Parlamentuak apirilaren 17ko 16/2013 Foru Legea onetsi zuen, zeinak data hori aldatzen baitu. Foru lege horretan ezartzen da Nafarroako Gobernuak Kontu Orokorraren kasuko foru lege proiektua urte bakoitzeko uztailaren 1a baino lehen onetsi eta Parlamentura igorri behar duela¹⁹. Aurreikuspen horiek jada 2012ko kontu orokorraren proiektuan aplikatu ziren.

Aztertu beharra dago enpresen eta fundazioen sektore publikoak gaur egun daukan osaketa, kontu orokorretan jasota dagoena, ikuste aldera ea ale batzuk bertan sartu behar ote diren. Horien artean daude Parquenasa sozietatea eta Moderna Fundazioa, zeinak, gure iritziz, publikotzat jo behar baitira.

Foru Komunitateko Administrazioak 2013an jarraitzen du 1994ko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra aplikatzen, salbu eta zorra eta haren interesen kontabilitate-erregistroarako eta diru-laguntzen erregistroarako –horiek, izan ere, 2010ko Kontabilitate Publikoko Plan Orokor berriaren irizpideen arabera lantzen dira²⁰–; horrek, aurkeztutako informazioa hobetzen badu ere, tratamendu berezitu bat eragiten du gainerako arloei ematen zaienaren aldean, zeren eta azken horiek oraindik ere 1994ko kontabilitate publikoko plan orokorraren irizpideekin arautzen baitira. Zehaztu beharra dago Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 128. artikulua adierazten duela ezen Nafarroako Gobernuak berariazko araurik onesten ez badu, Estatuko sektore publikorako indarra duen plan orokorra izanen dela aplikatzekoa. Nafarroako Gobernuak ez du aplikatu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aplikatzekoa den kontabilitate planik.

Zergen kudeaketaren arloan aplikatutako kontabilitate-tratamenduaren eskasiak eta haiek ekitaldiaren itxieran duten eragina direla eta, kontabilitatez besteko eragiketak behar izaten dira, eta haiek ez daude beti agiri bidez bermatuak; halaber, saldo-konprobaketaren arabera balantzearekin amaierako egoeraren balantzea osatzeko, zenbait eskuzko eragiketa egin behar dira. Horrek guztiak Nafarroako Gobernuaren kontabilitate-kudeaketa zaildu eta konplikatu du, eta horri gehitu behar zaizkio kontabilitate-informazioaren etengabeko beharkizun berriak, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiak eskatzen dituenak.

Oroitidazkiaren edukia osatu beharra dago, bereziki zorpetzeari buruzko informazio orokorrarekin, kontabilitate nazionalako terminoetan, eta onura fiskalen betetzearekin eta hark ezarritako helburuak lortzean duen eraginarekin.

2013an, azterlan bat egin da “Nafarroako Gobernuaren pentsioen gastuaren aurreikuspenari” buruz, oinarritzat balio dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioiko pentsio arrunten kontusailaren aurrekontua egiteko. Azterlan horren arabera, kalkulatu da montepioaren indarraldiak 2087ra arte iraunen duela, eta 2.785,64 milioi euro konstanteko kostua kalkulatu zaio. Uste dugu zenbatespen hori Nafarroako Gobernuaren balantzean jaso beharko litzatekeela, edo, guztienez ere, oroitidazkian.

2014an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak honako epaiak eman ditu, Foru Ogasunean balizko gorabeherak eragin ditzaketanak:

- Otsailean, legez kanpokotzat jo zuen zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenta, "osasunerako zentimoa" deitutakoa. Foru Ogasunak jotzen du aurreko epaiak berarekin dakartzan itzulketen kopuruak 20 milioi inguru egin dezakeela.

- Egoiliar ez direnen oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zerga. Irailean, jo zuen Europako araudia ez dela betetzen ari, zeren eta egoiliarren eta egoiliar ez direnen arteko desberdintasunak bideratzen baitira zerga horren tratamendu fiskalean.

Aurrekontu-programen betetzeari buruzko oroitidazkiari dagokionez, aurreko txostenetan deskribatutako egoerari eusten zaio, bereziki, emandako zerbitzuen kostuari buruzko informaziorik ez egoteari dagokionez eta helburu eta adierazlearen definizioa osatu gabea izateari dagokionez.

¹⁹ Aldaketa hori baino lehen, kontuak aurkezteko data irailaren 15a zen.

²⁰ Apirilaren 13ko 1037/2010 Aginduaren bidez onetsia; bertan arautzen da hura nola aplikatuko zaion Estatuko sektore publikoari 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta berariaz indarririk gabe uzten da 1994ko Plana.

Azkenik, 2014ko maiatzean, NOPFLa aldatzeko 10/2014 Foru legea argitaratu zen, eta urte bereko maiatzaren 27an hartu zuen indarra. Hartan, laburbilduz, honako alderdiak arautzen dira:

- Kontabilitate-printzipio publikoei dagokienez, Gobernuaren ibilgetuaren barruan sartu beharko dira azpiegiturak eta erabilera publikoko gainerako ondasunak.

- Kontu orokorraren oroitidazkian, honakoak aipatuko dira:

a) Etorbizuneko ekitaldien kargura konprometitutako gastu-konpromisoen egoera-orria, gutxienez ere kapitulu ekonomikoen arabera xehakaturata.

b) Zorpetzeari buruzko kontu orokorra eta emandako abalen egoera-orria, honakoak xehakaturata: batetik, Foru Komunitateko Administrazioa eta, bestetik, haren menpeko entitateak –enpresa publikoak eta fundazio publikoak–.

- Ogasun Publikoak emandako maileguak. Muga batzuk sartzen dira bai kobratu beharreko interesei dagokienez, bai gabealdiei eta maileguak aurreikusitako xedera bideratzen direla segurtatzeari dagokienez ere. Halaber, adierazten da aurrekontuei buruzko foru legeek eman daitezkeen maileguen gehieneko bolumena finkatuko dutela, eta bolumen hori honela xehakaturata dela: batetik, Foru Administrazioa eta, bestetik, haren menpeko entitateak. Halaber, ezartzen da inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin dela izan gehieneko bolumen horren ehuneko bost baino gehiago egiten duten maileguen onuradun, Parlamentuak berariazko baimena eman ezean.

- Abalak. Aurrekontuei buruzko foru legeek ekitaldian eman daitezkeen abalen gehieneko arrisku bizia eta eman gehienez eman daitezkeen abal kopurua ezarriko dituztela, eta biak ala biak honela xehakaturata direla: batetik, Foru Administrazioa eta, bestetik, haren menpeko entitateak. Halaber, ezartzen da inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin dela izan gehieneko bolumen horren ehuneko bost baino gehiago egiten duten maileguen onuradun, Parlamentuak berariazko baimena eman ezean.

Gomendioak:

- *Enpresen eta fundazioen foru sektore publikoaren barruan sartzeari buruzko Foru Legea eta aurrekontu-egonkortasuna aplikatuta– araudi horietako bakoitzean adierazitako baldintzak betetzen dituztenak.*

- *Kontabilitatea 2010eko kontabilitate-plan publiko berriari egokitzeko prozesuan, Nafarroako Gobernuaren kontuen plan berekia onestea, non haren informazio-betekizunak jasoko diren eta eragiketa nagusietan aplikatu beharreko irizpide eta jarraibideak ezarriko diren.*

- *Balantzean sartzeari buruzko funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktuarialak.*

- *Ekitaldiko kontu orokorraren oroitidazkiari erantzia ekitaldi bakoitzean betetako jarduerak hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarria den informazio guztia; bereziki honakoei dagoki-ena:*

a) *Foru sektore publikoaren finantza-egoera orokorra.*

b) *Zorpetzearen bolumena, kontabilitate nazionalaren terminoetan, eta hura dela-eta ezarritako helburuen betetze-maila.*

c) *Estatuarekiko Ekonomi Hitzarmenetik heldu diren fluxu finantzarioak.*

d) *Zerga onuren exekuzioari buruzko azterlana.*

e) *Fundazioen sektore publikoaren informazio ekonomiko-finantzarioa.*

f) *Geroko gorabehera eta egitate garrantzitsuenak.*

- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

- *Aurrekontu programetarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak osatzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izanzen dira, eta haien betetze maila eta gertatutako desbideratzeak aztertuko dira.*

VII.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ZORPETZEA

Zorraren eta maileguen tratamenduari, kontabilitate plan berriaren arabera aplikatutako kontabilitate-irizpidearen aldaketa –kostu amortizatua–, zeina 2012an ezarri baitzen, abiapuntutzat hartuta, Nafarroako Gobernuaren 2013ko abenduaren 31ko zorpetze finantzarioa (epe luzekoa eta epe laburrekoa) eta haren 2012koarekiko alderaketa, kasuan kasuko balantzeen arabera, honako taulan islatu ditugu (euroak, milakotan).

Nafarroako Gobernuaren zorra	2012	2013	2013/2012 alde garbia
Epe luzeko zor publikoa	1.433.355	1.660.499	227.144
Epe laburreko zor publikoa	90.152	196.604	106.452
Epe luzerako maileguak	707.572	644.525	-63.047
Zorpetzea honaino, guztira	2.231.079	2.501.628	270.549
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi	46.314	51.369	5.055
Balantzea, guztira	2.277.393	2.552.997	275.604

Bi ekitaldien artean, Nafarroako Gobernuaren zorraren bolumen garbiak 275,60 milioi egin du gora; hau da, 2012an baino ehuneko 12 gehiago. Haren ehuneko 12k epe laburreko muga-eguna dauka.

Balio nominalaren kontabilitate-irizpidea aplikatuta, honakoa litzateke zorpetze finantzarioa (euroak, milakotan):

Nafarroako Gobernuaren zorra	2012	2013	2013/2012 alde garbia
Zor Publikoa	1.522.852	1.865.270	342.418
Maileguak	707.572	644.525	-63.047
Guztira	2.230.424	2.509.795	279.371

Hau da, 2013an, Nafarroako Gobernuaren zorpetzeak, balio nominaletan, 279,4 milioi egin du gora, guztira. Zor publikoak, 2012an, ehuneko 68 egin zuen; maileguak, berriz, ehuneko 32. 2013an, portzentaje horiek ehuneko 74 eta ehuneko 26 dira, hurrenez hurren.

Aurreko datuen multzoa dela eta, honakoa adierazi behar dugu:

- Obligazioetan edo "Nafarroako zorrean" dagoen zorra honako jaulkipenek –muga-egunaren arabera ordenatuta– eta zenbateko nominaletan osatzen dute:

Jaulkipen data	Muga-eguna	Zenbateko nominala	Interes tasa nominala
29.09.2011	29.09.2014	81.500.000	4,750
04.11.2004	04.11.2014	115.000.000	3,950
10.02.2012	10.02.2015	30.000.000	3,650
28.04.2005	28.04.2015	138.200.000	3,600
16.11.2000	16.11.2015	82.000.000	5,850
24.02.2011	24.02.2016	204.000.000	5,529
04.03.2011	04.03.2016	35.000.000	5,250
29.01.2013	30.06.2016	50.000.000	4,200
17.02.2010	17.02.2017	293.000.000	3,875
09.06.2011	09.06.2018	180.000.000	5,800
31.10.2008	31.10.2018	60.000.000	4,875
05.02.2013	05.02.2019	20.000.000	4,930
20.06.2013	20.06.2019	40.000.000	4,075
30.09.2009	30.09.2019	95.380.000	4,200
17.02.2010	17.02.2020	219.000.000	4,300
23.11.2006	23.11.2021	207.190.000	4,000
19.12.2013	31.01.2024	15.000.000	4,250
Guztira		1.865.270.000	

Aipatutako zor horren batez besteko tipoa ehuneko lau inguruan dago.

2013an, zorraren jaulkipena egin da, 432,57 milioiko nominalarekin –aurrekontuetan 423,62 aitortu dira– eta, guztira, 90,15 milioi amortizatu dira (2012an, 220 eta 42 milioi, hurrenez hurren). 2013ko zor-jaulkipenetatik, 307,57 milioi aurreko jaulkipenen berririkitzei dagozkie, eta 125 milioi, berriz, jaulkipen berriei.

- Emaille den sektoreari erreparatuta, Nafarroako Gobernuak itundutako maileguen saldo garbia honakoetatik heldu da (euroak, milakotan):

Kreditu-emaillearen sektorea	2012	2013
Finantza-entitateak	369.000	306.600
Europako Inbertsioen Bankua	300.000	300.000
Gizarte Segurantzak	9.783	9.783
Sektore Publikoaren gainerakoa	13.734	13.087
AUDENASaren akzioak erosteagatik zorra	15.055	15.055
Epe luzeko maileguak, guztira	707.572	644.525
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	5.049	4.933
Maileguak, guztira	712.621	649.458

2013an, 40 milioi euroko maileguak itundu dira, eta 103,06 milioi amortizatu dira guztira. (2012an, 200 eta 65,3 milioi, hurrenez hurren).

Europako Inbertsio Bankuaren maileguak ordainketa bakarrarekin amortizatuko dira 2024an –90 milioi– eta 2025ean -210 milioi–; Audenasaren akzioak erostekoa eta Gizarte Segurantzarena, berriz, 2014an eta 2023an, hurrenez hurren. Finantza entitateekiko gainerako maileguk 2014 eta 2019 bitartean amaitzen duten beren amortizazio epea.

- Hurrengo taulan erakusten da Nafarroako Gobernuaren zor honi buruzko adierazleen multzo bat.

Nafarroako Gobernuaren zorraren adierazleak (kostu amortizatua)	2012	2013
NGren zorra (milioitan)	2.231,10	2.501,60
Zor biziaren ehunekoa, diru-sarrera arrunten gainekoa	70,76	79,66
Zorraren ehunekoa, Nafarroako BPGaren gainean	12,31	14,25
Aurrezki gordinaren gaineko zorra	16,79	18,71
Zor bizia biztanleko (eurotan)	3.456	3.885

Nafarroaren BPGa; lehen kalkuluaren arabera, 17.557 milioikoa

a) Zorraren bolumen hori diru-sarrera arrunten ehuneko 79,66koa da –2012an, ehuneko 70,76koa izan zen–, eta biztanle bakoitzeko 3.885 euroko zorra egiten du –2012an baino 429 euro gehiago–.

b) Nafarroako Gobernuak sortutako aurrezki gordinarekin, ia 19 urte beharko liriateke zor hori amortizatzeke; 2012an, balio hori 17 urtekoa zen.

c) 2013ko Nafarroako BPGaren gainean, ehuneko 14,25 egiten du; 2012an, ordea, ehuneko 12,31 zen.

- Nafarroako Gobernuaren zorraren bilakaera (2008-2012) –balio nominalaren arabera– hurrengo taulan erakusten duguna da:

Nafarroako Gobernuaren zorra (balio)	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Zenbatekoa (milioitan)	816	1.030	1.524	1.918	2.230	2.510
Aurkibidea	100	126	187	235	273	308

Hau da, Nafarroako Gobernuaren zorrak ehuneko 208 egin du gora aztertutako aldirian.

Epe hori bat dator krisialdi ekonomikoaren hasierarekin eta mantentzearekin, eta zorpetze handiago horrek balio izan du gastuen aurrekontua orekatzeko, aipatutako krisiaren eraginez diru-sarrerak nabarmen jaitsi izatearen aurrean. Halaber, zehaztu beharra dago 2008ko abiapuntua zorpetze-maila oso txikia zela, Nafarroako BPGaren ehuneko 4,4 egiten zuena.


• Nafarroako Gobernuaren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (2012-2011) (aurrekontuaren 3. eta 9. kapitulua) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Finantza-zama (milioiak)	90,70	35,13	144,99	148,83	200,30	300,54
Aurkibidea	100	39	160	164	221	331
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoa	2,63	1,01	4,24	4,66	6,35	9,57

Hau da, finantza-zamak ehuneko 231 egin du gora aztertutako aldian. Ikusten den bezala, diru-sarrera arruntetan duen garrantziak gora egin du, eta 2013an haien ehuneko 9,57 izatera iritsi da.

• Hurrengo taulan eta irudian erakusten dira Gobernuaren zorraren guztizkoak datozen ekitaldietan amortizatzeke dauden aurreikuspenak (euroak, milakotan).

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira.	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2014	297.511	11,85	11,85
2015	308.206	12,28	24,13
2016	347.057	13,83	37,96
2017	309.908	12,35	50,31
2018	256.959	10,24	60,55
2019	237.634	9,47	70,02
2020	221.511	8,83	78,84
2021	209.852	8,36	87,20
2022	2.814	0,11	87,32
2023	2.933	0,12	87,43
2024	105.329	4,20	91,63
2025	210.080	8,37	100
Guztira	2.509.795	100	



Hau da, zor horren ehuneko 50 2014tik 2017ra doan aldiaren amortizatu beharrekoa da.

• Azkenik, ondoko taula honetan Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Erreinuaren zorraz Standard&Poor's (S&P) rating-agentziak emandako kalifikazioak aldi horretan izan duen bilakaera adierazten da:

Zorren kalifikazioa S&Pren arabera	Nafarroako kalifikazioa	Espainiako Erreinuaren kalifikazioa
2009ko urtarrila	AAA	AA+
2010 otsaila	AAA	AA+
2010 apirila	AA+	AA
2011 urria	AA+	AA-
2012 otsaila	AA-	A
2012ko maiatza	A	BBB+
2012 urria	BBB+	BBB+
2013ko uztaila	BBB+	BBB+
2013ko abendua	BBB+	BBB+
2014ko ekaina	A-	BBB

2013an, ez da aldatu ez Nafarroaren ez Espainiako Erresumaren zorren kalifikazioa; 2014ko ekainean, bi zor horien kalifikazioa hobetu da, maila bat gora egin baitute.

Ikus daitekeen bezala, Foru Komunitateak bere zorrean Estatuak baino kalifikazio hobea dauka –bi maila gorago–, eta horren arrazoia da, aipatutako agentziaren arabera, "Nafarroak bere finantza-konpromisoak betetzeko gaitasun handia duela", nahiz eta, dioenaren arabera, Nafarroaren ekonomia oraindik ere "aurkako baldintza ekonomikoen eta inguruabar-aldaketan halako menpekotasun duen". Halaber, Nafarroaren erakunde-esparrua, autonomia fiskala eta finantza-kudeaketaren historial ona baloratzen ditu.

VII.4. EKITALDIKO GASTUEN EGOERA-ORRIAREN AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-EBAKERAREN ANALISIA.

Gastuen egoera-orriaren aurrekontu-ebakeraren egokitasuna egiaztatzeko, hau da, 2013ko aurrekontuaren likidazioak urte horretan sortutako gastuen guztizkoa islatzen duela, honakoak analizatu dira bereziki:

- Aurrekontuari egoztekoak zaizkion betebeharreratiko zordunen kontuetako saldoak.
- Aurrekontuetako hartzekodunen amaierako saldoen ordezgarritasunaren lagin bat, eta haren eta zordun horiei igorritako zirkularizazioari buruzko berrespenaren alderaketa.
- 2014ko lehenengo hiruhilekoan egindako betebeharren aitortpenari buruzko kontabilitate-oharrak.

Hurrengo taulan erakusten da ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren exekuzioa –2008tik 2013ra bitarteko ekitaldiak–, 2. 4. 6. eta 7. kapitulueterako, itxierako foru agindua argitaratu zenetik hasi eta abenduaren 31ra artekoa, bai eta hurrengo urteko urtarrilean betetakoaren eta urteko aurrekontuaren arteko alderaketa ere.

Ekitaldia	Azaroan eta abenduan betetakoak ekitaldiko guztizkoan zenbat egiten duen	Hurrengo urtarrilean betetakoak aurrekontuan zenbat egiten duen
2008	35,19	4,68
2009	33,75	3,94
2010	33,27	4,27
2011	30,46	5,14
2012	23,18	5,25
2013	22,10	6,43

Ikus daitekeen bezala, azaroari eta abenduari dagokien betetzearen ehunekoak behera egiten du pixkanaka, hurrengo urteko urtarrilekoak gora egiten duen bitartean. Egoera hori honela interpreta daiteke: aurrekontuaren betetzean, nolabaiteko homogeneousatze bat lortzen ari da hilabeteetan.

Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunen 409 kontuen funtzionamenduari dagokionez, esan beharra daukagu ezen urte amaieran "MM aurrekontuei aplikatzekoak zaizkien eragiketen hartzekodunak" kitatu eta 413 kontuetara eraman direla, kontabilitate publikoko plan berriaren irizpideei jarraituz; azpi-kontu horien mugimendu guztiak osasunaren arlotik datoz eta MM deitutako SAPen modulu berezi batean kontabilizatzen dira. 2014an, fakturen kontabilitate-erregistroarako erreforma bat ezarri zen (ikus txosten honetako VII.5 atala), eta hari esker kontu horien erabilera Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren betetze osora zabaldu ahalko da.

Aurrekontu-egonkortasunari dagokion finantzaketa-beharrak (defizita) zehazte aldera, 2013an hiru milioiko doikuntza positibo bat sartu zen (defizit txikiagoa), aurrekontuari aplikatzeko zeuden eragiketengatik. Zenbateko hori heldu da bai fakturen erregistroaren azterketatik, bai MM osasun moduluen azterketatik. Hurrengo taulan datoz xehetasunak:

Aurrekontuari aplikatzeko dagoen hartzekodunengatiko kontabilitate nazionalako doikuntza	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa	Kontabilitate nazionalako defizitaren eragina
Fakturen erregistroa	5.881,00	2.830,70	-3.050,30
Osasun modulua	666,31	728,33	62,02
	6.547,31	3.559,03	-2.988,28

Horrenbestez, horrek, kontabilitate nazionalako terminoetan, berarekin dakar finantzaketa-behar txikiagoak izatea, ia hiru milioikoak.

Aurreko taulari jarraituz, 2014ko aurrekontura aldatutako gastuak 3,56 milioi egiten du (6,55 milioi izan ziren 2013ko aurrekontuan). Zenbateko horretatik, 2,83 milioi egotzi gabeko gastuari dagozkio, fakturen erregistroa dela-eta egindako azterketaren arabera.

Horrenbestez, egindako azterketen eta proben multzotik ondoriozta dezakegu 2013an ez dela aurkitu 2014ko aurrekontura aldatutako gastu-kopuru garrantzitsurik.

- *Gomendatzen dugu modu orokorrean aplikatzea aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketen zordunen kontuak.*

VII.5. HORNITZAILEEN ORDAINKETA-EPEEN JARRAIPENA.

2013an, Nafarroako administrazio publikoek bete beharreko ordainketa-epeei buruzko bi araudi daude aldi berean. Honakoak dira, laburbilduta:

a) 2013ko martxoaren 5era arte:

- Obra kontratuak: 60 egun natural, obren ziurtagiriak ematen direnetik kontatzen hasita.
- Bestelako kontratuak: 30 egun natural, faktura edo dokumentu baliokidea jaso eta erregistratzen denetik hasita.
- Gainerako merkataritza-eragiketak: 60 egun natural, faktura edo dokumentu baliokidea jaso eta erregistratzen denetik hasita.

b) Martxoaren 5etik aurrera, orduan hartu baitzuen indarra KPFLa aldatzeko 3/2013 Foru Legeak:

- Kontratuak: 30 egun natural, Fakturen Erregistroan faktura edo agiri baliokidea jasotzen denetik kontatuta; eta obren kasuan, kasuko ziurtagiriak ematen diren egunetik kontatuta.
- Osasun laguntzako zerbitzuak ematen dituzten entitate publikoak: 60 egun natural.

Aurreko epe horiek fakturak erregistratzen diren datatik aurrera ezartzen dira.

Epe horiek iraganda, administrazio publikoek honakoek ordaindu beharko dituzte:

- Kasuko berandutza-interesak, berandutza-interesen legezko tasaren arabera.
- Kobrantzaren kudeaketak eragindako kostuengatiko kalte-ordaina, kostu horiek behar bezala egiaztatuta: 40 euroko kopuru finkoa eta arrazoizko kalte-ordain bat, kopuru hori gainditzen duten kobrantza-kostuengatik, betiere haiek behar bezala egiaztatuta.

Zehaztu beharra dago aurreko epeak enpresekin eta profesionalekin berariaz egindako merkataritza-eragiketei dagozkiela, eta kanpo uzten direla, beraz, merkataritza-harreman batean oinarrituta ez daudenak, langile-gastuetatik heldu direnak, ondare-kontratuetatik heldu direnak edo desjabetzeko

ahalmenetik heldu direnak, bai eta foru sektore publikoko entitateekin egindakoak ere. Merkataritza-eragiketara horiek, oro har, gastuen aurrekontuko 2. eta 6. kapituluetan egozten dira.

Kontabilitate zerbitzuek helarazi dizkigute bai 2013ko laugarren hiruhilekoaren txostena, aldi horretako ordainketarako batez besteko aldiari buruzkoa, bai 2013ko abenduaren 31n ordaintzeko dauden eragiketetatik iragandako batez besteko aldiari buruzko txostena.

Horiek egiteko abiapuntua da SAP programatik lortutako ordainketei buruzko informazioa; gero, "ordainketarako batez besteko epea" (PMP) kalkulatzeko da, bai eta "abenduaren 31n egiteko zeuden eragiketen batez besteko epea" ere (PMPP), honakoen zatidurak baitira:

$$\text{Periodo medio de pago} = \frac{\sum(\text{Número de días de período de pago} * \text{Importe de la operación})}{\sum \text{Importe total de las operaciones seleccionadas}}$$

$$\text{Periodo medio pendiente de pago} = \frac{\sum(\text{Número de días pendiente de pago} * \text{Importe de la operación})}{\sum \text{Importe total de las operaciones seleccionadas}}$$

Honakoak dira lortutako emaitzak eta haien eta 2012koen arteko alderaketa:

Ordaintzeko batez besteko epea

Entitatea	Ordainketarako batez besteko epea, 2. kap.		Ordainketarako batez besteko epea, 6. kap.	
	2012	2013	2012	2013
Administrazioa	26,71	27,96	26,75	26,85
Osasun arloaz besteko erakunde autonomoak	26,71	29,79	30,3	51,42
O-NOZ	35	31,94	55,16	38,41

2013ari dagokionez, oro har, ondoriozta dezakegu indarreko legedian ezarritako epeak arrazoizko moduan errespetatzen direla; soilik nabarmendu beharra dago osasunez besteko erakunde autonomoen 6. kapituluko ordainketa-epea luzeegia dela; funtsean, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari dagokio hori. 2012arekin alderatuta, nolabaiteko egonkortasuna ikusten da ordainketa-epeetan.

Ordainketarako batez besteko epea

Entitatea	Egiteko dauden ordainketen batez besteko epea, 2. kap.		Egiteko dauden ordainketen batez besteko epea, 6. kap.	
	2012	2013	2012	2013
Administrazioa	8,39	9,32	28,93	10,94
Osasun arloaz besteko erakunde autonomoak	10,67	7,68	7,39	11,92
O-NOZ	16,56	18,12	19,14	8,21

Hau da, 2013ko abenduaren 31n, ordaindu gabe dauden eragiketak ordaintzeko batez besteko epea 12 bat egunekoa da 2. kapitulurako eta 10 egunekoa, berriz, 6. kapitulurako; 2012an, 12 eta 18 egun ziren, hurrenez hurren.

2013ko kontabilitatean ez da gasturik ageri berandutza interesengatik eta justifikazioa hornitzaileentzako ordainketetan izandako atzerapenetan duten kobrantza-kudeaketako kostuengatik.

Zentroen mantentze gastuaren (Administrazioa) eta sendagaien (O-NOZ) gastuaren aurrekontu-kontzeptuetan egindako ordainketen batez besteko epearen jarraipena egin dugu, eta ikusi dugu bai araudia, bai epeak bete direla, aurkitu ditugunak ia bat baitatzen epe orokorrekin.

Halaber, fakturen erregistrotik abiatuta, milioi bat eurotik gorako zenbatekoa duten fakturen ordainketa-epea aztertu dugu. Ordainketen guztizkoak 121,15 milioi egiten du. Ondorioztatzen dugu egindako 68 ordainketetatik 12k 30 egunekoa epea gaintzen dutela eta, funtsean, itzalpeko bidesarien kanonei eta obra-ziurtagiriei dagozkiela.

Fakturen kontabilitate-erregistroari dagokionez, lehenbizi, gogorazi behar dugu 2012ko azaroan ezarri zela. Gutxiegitasun batzuk aurkitu genituen, zeinak urte horretako kontuei buruzko txostenan adierazi baikenituen. Faktura elektronikoen bultzadak eta Espainiako sektore publiko osorako Fakturen Kontabilitate Erregistroa sortzeak gomendatzen zuten foru erregistroaren funtzionamendua egokitzea. Hartara, 2014ko ekainean, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 150/2014 Foru Agindua

eman zuen, zeinaren bidez ezartzen baitira, funtsean, aurrekontuko kontusailaren eta aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunen 413. kontuaren arteko aldibereko lotura, betebeharren aitorpenerako kontabilitate-oharren sorrera automatikoa eta internet bidezko fakturen sarreraren indartzea.

Kontabilitate-lotura horrek bideratuko du aurrekontuan aplikatzekoak diren hartzekodunen kontuko saldoak uneoro eragiketa horiek isla ditzala, aurrekontu osoari dagokionez; bereziki, ekitaldiaren itxieran.

Era berean, aipatzen dugu 2014ko uztailaren 30ean, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua argitaratu dela, administrazio publikoetako hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia garatzen duena. Arau horrek 2014ko uztailaren 31n hartu zuen indarra. Metodologia berri horretan, existituko da, gainera, fakturen erregistroa egokitzea, ordainketa-epeak finkatze aldera.

- *Gomendatzen dugu Fakturen Kontabilitate Erregistroa garatzeko prozesua osatzea.*

VII.6. LANGILE-GASTUAK

2013ko langile-gastuak 1.096,4 milioikoak izan dira, eta gastu guztiaren ia ehuneko 30 egiten dute; 2012arekin alderatuta, balio berari eutsi dio du Nafarroako Gobernuaren guztizko gastuan daukan garrantziak. Arloka, guztizkoaren ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari, eta gainerakoa Administrazio-erroari.

Bateratuaren gaineko betetze maila ehuneko 100ekoa izan da, eta hasierako aurrekontuarekin alderatuta, ehuneko 103 bete da.

2013an, lansarien izozteari eutsi zaio, langileen ordainsariei aplikatuta. Halaber, langileen arloan hartutako zenbait neurriren indarraldia luzatu da; funtsean, 13/2012 Foru Legean ezarritako neurriak dira eta helburu dute Nafarroako Gobernuaren defizita geldiaraztea.

2012rekin alderatuta, langile-gastuak ehuneko bi egin du gora –hau da, 23,82 milioi gehiago–, hurrengo taulan adierazitakoaren arabera (euroak, milakotan):

Langile-gastuak	2012	2013	Aldearen ehuneko
Goi-karguak	5.650	5.151	-9
Behin-behineko langileak.	1.029	1.150	12
Lanpostuko ordainsariak	657.455	690.549	5
Langileen ordainsariak	111.996	119.927	7
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	231.415	224.942	-3
Ordainsari aldakorrak	51.803	50.475	-3
Beste hainbat ordainsari	13.242	4.217	-68
1. kapitulua, guztira	1.072.590	1.096.411	2

2012. urtearekiko alderaketan, honako bi alderdi garrantzitsuk eragin dute:

a) 2012an, langile publikoen abenduko ordainsaria kendu zen –58,3 milioian zegoan kuantifikatuta–; 2013an, betetzeak 2013ko ekaineko eta abenduko aparteko ordainsariak jasotzen ditu, azken horien ordainketa urte horretako urtarrilera eta ekainera aurreratu baitzen, hurrenez hurren.

b) 2013ko aurrekontuari egotzi zaio Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak likidatutako akten zenbatekoa; akta horiek 2009tik 2011ra doazen ekitaldietan ordaindu gabeko "familia-laguntza" prestazioko kuoten ordainketei dagozkie, eta 1,91 milioi egiten dute. Nafarroako Gobernuak akta horien aurkako errekurtsioa aurkeztua du Nafarroako Auzitegi Nagusian, zeren eta ez baitago ados Diruzaintzak aplikatutako atzera-eraginaren irizpidearekin; izan ere, Gizarte Segurantzaren beraren txosten bat badago, non adierazten baitzen laguntza horiek kotizazio-oinarritik kanpo zeudela.

2008tik, honako bilakaera izan dute Nafarroako Gobernuaren langile-gastuek:

Langile-gastuak	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Langile-gastuak (miliotan)	1.107,1	1.176,3	1.164,0	1.155,9	1.072,6	1.096,4
Aurkibidea	100	106	105	104	97	99
Nafarroako gobernuaren guztizko gastuetan egiten duten ehuneko	28	29	29	32	30	30

Hau da, 2013ko langile-gastuen zenbatekoa ia 2008ko maila berean dago, eta Gobernuaren gutzizko gastuaren ehuneko 30 inguru egiten du.

- 2013ko abenduaren 31ko plantilla organikoa –2014ko maiatzean argitaratua– eta haren 2012ko egoerarekiko alderaketa hurrengo taulan islatzen dira:

Plantilla organikoa	2012/12/31	2013/12/31	13/12 aldea
Betetako lanpostuak	19.040	18.456	-584
Lanpostu hutsak	3.641	3.860	219
Plantilla organikoko lanpostuak, guz-	22.681	22.316	-365

Hau da, 2012arekin alderatuta, plantillako lanpostuen kopuruak ehuneko bi egin du behera; lanpostu hutsak ehuneko sei egin dute gora eta betetako lanpostuek, berriz, ehuneko hiru egin dute behera.

Esparru organikoaren arabera, aurreko lanpostuak, 2013an, honako taularen arabera atxikitzen dira:

Esparru organikoa, 2013an	Guztira	Ehunekoak	Betetako lanpostuak	Hutsik dauden lanpostuak		
				Guztira	Betetakoak	Bete gabe daudenak
Administrazio Erroa	4.249	19	3.422	827	602	225
Hezkuntza	7.832	35	6.530	1.302	249	1.053
O-NOZ	8.489	38	6.946	1.543	1.217	326
Foruzaingoa	1.230	6	1.159	71	17	54
Justizia	516	2	399	117	108	9
Guztira	22.316	100	18.456	3.860	2.193	1.667

Lanpostuen ehuneko 73 O-NOZen eta Hezkuntzan daude. Izan ere, bi arlo horiek betetako lanpostuen ehuneko 73 eta hutsik dauden lanpostuen ehuneko 74 hartzen dituzte.

Lanpostu hutsak lanpostu guztien ehuneko 17 dira, eta haien ehuneko 57 daude beteta Lanpostu hutsen kopuru handiena O-NOZen eta Hezkuntzan daude.

Guztira dauden lanpostuen barruan, 10.442 lanpostu daude erakunde autonomoei atxikiak; hau da, gutzizkoaren ehuneko 47.

Atxikipenaren araubide juridikoa hurrengo taulan ageri da, 2013ko plantillari dagokionez:

2013ko araubide juridikoa	Lanpostuak, guztira	Ehunekoak	Betetako lanpostuak	Ehunekoak	Hutsik dauden lanpostuak	
					Betetakoak	Bete gabe daudenak
Gobernukideak	9	0,04	9	100		
Kabineteko behin-behineko langileak	31	0,14	31	100		
Izendapen askeko behin-behineko zuzendaritza-karguak	71	0,32	71	100		
Funtzionarioa	21.472	96,22	17.985	84	1.836	1.651
Estatutupekoa	220	0,98	220	100		
Lan-kontratuko finkoak	161	0,72	43	27	104	14
Lanaldi partzialeko lan-kontratudun finkoak	352	1,58	97	28	253	2
Guztira	22.316	100	18.456	83	2.193	1.667

Langile funtzionarioen lanpostuen betetze maila –gutzizkoaren ehuneko 96 egiten dute horiek– ehuneko 84 da; funtzionarioen 3.487 lanpostu hutsetatik, ehuneko 53 beteta zeuden 2013ko abenduaren 31n.

Lan-kontratudun finkoen lanpostuak –513– gutzizkoaren ehuneko bi egiten dute; haien ehuneko 69 lanaldi partzialekoak dira. Lanaldi partzialekoetatik, ehuneko 47 Lehendakaritza, Justizia eta Barne

Departamentuan daude, funtsean Nafarroako Larrialdietako Agentzian –159 lanpostu–, Suhiltzaile Zerbitzuan –150 lanpostu– eta SOS Nafarroan –9 lanpostu–.

2013an betetako lanpostuak honela banatzen dira, beren tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota	Kopurua
Behin-behineko langileak.	111
Betetako burutzak	1.425
Oinarrizko lanpostuak	16.920
Betetako lanpostuak, guztira	18.456

Oinarrizko lanpostuen barruan, 2.238 "bete gabeko" lanpostu bezala daude jasota; horien artean, 468 lanpostu zerbitzu berezien egoeran edo antzekoetan ageri dira, lanpostua erreserbatuta, eta 216, berriz, eszedentzian.

Plantillaren aldaketek, 2013an egindakoak eta NAO n argitaratu direnek –hiru foru dekreturen bidez–, funtsean, ekarri dute 393 lanpostu amortizatzea eta 51 lanpostu berri sortzea; amortizatuen artean, ehuneko 44 E mailakoak dira, eta horietatik gehienak O-NOZen hutsik zeuden lanpostuak dira; sortutako lanpostuei dagokienez, berriz, ehuneko 62 A eta B mailakoak dira. Departamentu guztietan amortizatutako lanpostuak sortutako baino gehiago diren arren, alde garbi handiena –121– O-NOZen ikus daiteke.

Argitaratutako aldaketa horiezaz gainera, plantillen fitxategiei erreparatuta, ikusi dugu 137 lanpostu amortizatu direla eta 116 lanpostu sortu direla; aldaketa horiek Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenen bidez onetsi dira. Amortizatu diren lanpostuen ehuneko 66 eta sortutakoehuneko 70 burutza-lanpostuei dagozkie.

Laburbilduz, plantilla aldatzeko bide batetik nahiz bestetik, 2013an, 530 lanpostu amortizatu dira eta 167 lanpostu sortu dira.

• 2013an guztira dauden lanpostuak 22.316 dira –22.681 lanpostu zeuden 2012an–, hurrengo taulan islatzen den bezala. Lanpostu horietatik 3.860 hutsik daude –hau da, ehuneko 17–. Osasunari, Hezkuntzari, Administrazio Erroari eta Justiziarri ehuneko 40, 34, 23 eta hiru dagozkie, hurrenez hurren. Lanpostu hutsetatik ehuneko 57 aldi baterako beteta daude.

Lanpostuak	Adminis- trazio Erroa	Hezkuntza	O-NOZ	Justizia	Guztira, 2013an	Guztira, 2012an
Betetakoak	4.581	6.530	6.946	399	18.456	19.040
Lanpostu hutsak	898	1.302	1.543	117	3.860	3.641
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	619	249	1.217	108	2.193	2.044
Bete gabeko lanpostu hutsak	279	1.053	326	9	1.667	1.597
Guztira	5.479	7.832	8.489	516	22.316	22.681

2012rekin alderatuta, esan beharra daukagu betetako lanpostuak 584 gutxiago direla, lanpostu hutsak 219 gehiago direla, aldi baterako betetako lanpostu hutsak 149 gehiago direla eta bete gabeko lanpostu hutsak 70 gehiago direla.

Azken batez, 2013an 435 lanpostu efektibo gutxiago daude 2012an baino: 20.649 eta 21.084 hurrenez hurren.

Lanpostuen 2008ko datuen eta 201eko datuen alderaketa ondorengo taulan ageri da:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Justizia		Guztira	
	2008	2013	2008	2013	2008	2013	2008	2013	2008	2013
Betetakoak	4.304	4.581	6.357	6.530	6.374	6.946	354	399	17.389	18.456
Lanpostu hutsak	1.292	898	640	1.302	1.665	1.543	100	117	3.697	3.860
Lanpostuak, guztira	5.596	5.479	6.997	7.832	8.039	8.489	454	516	21.086	22.316
Aurkibidea	100	97,9	100	112	100	106	100	114	100	106

Orokorrean, 2008tik 2013ra lanpostuen kopuruak ehuneko sei egin du gora; hau da, 1.230 lanpostu. Alabaina, Administrazio Erroan lanpostu kopuruak behera egin du eta O-NOZen, berriz, igoera orokorraren ehuneko berean egin du gora. Hezkuntzan eta Justizian igoera orokorretik gora hazi dira, ehuneko 12 eta 14, hurrenez hurren.

Betetako lanpostuek ehuneko sei egin dute gora; bete gabeko lanpostuek, berriz, ehuneko lau egin dute gora.

- Lan eskaintza publikoa 2013an, ez zen osasun-langileentzako edo hezkuntza-langileentzako eskaintzarik; soilik Funtzio Publikorako eskaintza partzial bat izan zen. Honakoak biltzen zituen: Ogasuneko teknikariaren 11 lanpostu, A mailakoak; Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzailearen bederatzi lanpostu, B mailakoak; eta Foruzaingoaren kabo izateko zazpi lanpostu, C mailakoak. 2013ko ekitaldiaren itxieran, urte horretako lan eskaintza publikoko aipatutako lanpostu guztietarako deialdia eginda zegoen.

2013ko abenduaren 31n, betetzeko daude osasun arloko eta Funtzio Publikoko langileen zenbait lanpostu, 2009ko lan eskaintza publikokoak. Hona xehetasunak:

O-NOZen lanpostuak	Maila	Kopurua	2013-12-31ko egoera
Erizaina	B	172	Deitutakoa
Kirurgia Ortopedikoaren eta Traumatologiaren Ataleko burua	A	1	Deialdia egin gabea
Farmazia Ataleko burua	A	1	Deialdia egin gabea
Pediatría Ataleko burua	A	1	Deialdia egin gabea
Emagina	B	6	Geldiarazia
U.E.T	C	14	Geldiarazia
Erizaintzako laguntzaileak	D	87	Geldiarazia

Funtzio Publikoko lanpostuak	Maila	Kopurua	2013-12-31ko egoera
Psikologoak	A	4	Geroratua
Goi mailako teknikaria	A	1	Geroratua

Aurreko lan eskaintza publikoen bitartez bete ez diren lanpostuen –2009koak zein 2013koak– multzoak 2013ko plantilla organikoko lanpostu huts guztien ehuneko zortzi egiten dute.

- Nafarroako Gobernuak langileen absentismoa²¹ honako lau kontzeptu hauetatik abiatuta kalkulatu da: aldi baterako ezintasuna, lanbide-gaixotasuna/lan-istripua, amatasun/aitatasun baimena eta baimen sindikala. Hartara, 2013an, absentismo-tasa –absentisten kopurua langileen kopuru baliokidearen gutzitzairean gainean– 5,24 da, eta langile absentisten galdutako egun-kopurua 19,14 da; 2011n eta 2012an balio horiek ehuneko 5,6 eta 4,98 izan ziren, eta 20,43 eta 18,16 egun, hurrenez hurren. Horrenbestez, 2011tik antzemandako goranzko joera aldatu da 2013an.

²¹ Txosten honen ondorioetarako, absentismotzat jotzen da lanpostutik modu justifikatu batengatik falta izatea.

Eremu organikoari erreparatuta, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den datu horien bilakera:

Eremua	Absentismo-tasa (ehunekoa)		Absentismo-tasa (egunak)	
	2012	2013	2012	2013
O-NOZ	5,41	5,70	19,75	20,82
Osasun langileak	5,45	5,72	19,88	20,87
Langile ez-sanitarioak	5,27	5,64	19,22	20,57
Hezkuntza	4,65	5,03	16,98	18,37
Irakasleak	4,74	5,11	17,29	18,66
Irakasle ez diren langileak	3,97	4,42	14,49	16,13
Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia	5,57	6,59	20,33	24,04
Foruzaingoa	5,97	5,46	21,78	19,92
Nafarroako Larrialdietako Agentzia	3,21	3,19	11,73	11,63
Justizia Administrazioa	5,85	6,83	21,37	24,93
Administrazio Erroa	4,33	4,25	15,79	15,50
Nafarroako Gobernua, guztira	4,98	5,24	18,16	19,14

Azken batean, 2013ko absentismo-portzentaje handienak Justizian eta Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzian gertatu dira, bieran absentismo tasak ia puntu batean egin baitu gora.

Absentismoaren arrazoiari erreparatuta, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den haren bilakera. Nabarmenezkoa da ehuneko handiena aldi baterako ezintasun kasuei dagokiela.

Arrazoa	Absentismo-tasa (ehunekoa)		Absentismo-tasa (egunak)	
	2012	2013	2012	2013
Aldi baterako ezintasuna	3,53	3,74	12,90	13,65
Amatasuna/aitatasuna	1,23	1,25	4,50	4,58
Lanbide-gaixotasuna/lan-istripua	0,15	0,20	0,56	0,71
Sindikatu gaietarako baimena	0,06	0,05	0,21	0,20
Nafarroako Gobernua, guztira	4,98	5,24	18,16	19,14

Lana osatzeko, honako alderdi hauek aztertu dira:

VII.6.1. Langile publikoen aparteko soldaten aurrerakina

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legeko xedapen gehigarriak –foru lege horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen dira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko– baimena ematen die administrazio publikoei eta Nafarroako sektore publikoko gainerako erakunde eta enteei langileei –finkoei nahiz aldi baterakoei– 2013ko aparteko soldaten ordainketa urtarileko eta uztaileko lehen egunetara aurreratze.

Gaikuntza horren arabera, Nafarroako Gobernuak 2013ko urtarrilaren 3ko eta 2013ko ekainaren 19ko erabakiak onetsi zituen; haien bidez, urtarileko eta uztaileko lehen egunetara aurreratu zituen urte bereko ekaineko eta abenduko aparteko soldaten ordainketa, 2012ko abenduko aparteko soldata kentzearen ondorioak arintze aldera; aurrerakina berdin aplikatzen zaie goi karguei eta behin-behineko kontratudunak diren gainerako langileei. Erabaki horietan, irizpide zehatz batzuk ezartzen diren horren kuantifikaziorako, bai eta langile finkoek zein aldi baterakoek bete beharreko baldintzak ere.

Erabaki zen 2013ko ekaineko eta abenduko aparteko soldatetatik aurreratutako zenbatekoak, kasuko aldi langileak direla-eta aurreikusitako den egoeraren arabera finkatuak, ekainari eta abenduari dagozkion nominetan, hurrenez hurren, erregularizatzea.

Neurria ezin zitzaizenez aplikatu Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileei –zeren eta haien ordainsarien araubidea Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatuari lotuta baitago–, hai-entzat, 2013ko urtarrilaren 3ko Erabakiaren bitartez, soldata aurreratze sistema bat ezarri zen, aurrerakin horiek 2013ko urtarileko lehenengo egunetan ordaintzeko moduan, gutxienez ere partzialki

betetze aldera gainerako langileentzat bilatutako helburua. Kopuruak aldatzen dira langileak atxikita dauden taldearen arabera: A, 2.100 euro; B, 1.300 euro; C, 1.000 euro; eta D, 900 euro. Kopuru horiek parte berdinetan deskontatuko dira urte horretako uztaileko eta abenduko nominetatik.

Funtzio Publikoak emandako informazioaren arabera, Justiziako langileen aparteko soldaten eta soldata-aurrerakinaren zenbatekoa, SAPen Giza Baliabideen datuen arabera kalkulatua, 81,93 milioi eurokoa izan zen; ordainketa nominaren fitxategitik kanpo egin zen uztailearen 3an eta 4an. Aurrerakin horien zenbatekoa honakoei egotzi zitzaizen: 2013ko gastuen aurrekontuko 8. kapituluari, "Familientzako eta langileentzako maileguak" izeneko 8308 kode ekonomikoarekin, eta diru-sarreraren aurrekontuko 8. kapituluari, "Langileen familientzako maileguen itzulketa" izeneko 8301 kode ekonomikoarekin.

VII.6.2. Nafarroako Larrialdietako Agentziako Prebentzio, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen Zuzendaritza

Zuzendaritza horren barruan suhiltzaileak daude. 2013ko plantilla organikoaren arabera, zuzendaritza horretan 611 lanpostu zeuden, 2012ko plantillan baino lanpostu bat gutxiago. Lanpostu horietatik, 432 beteta zeuden –431 langile funtzionarioek eta bat goi kargu batek beteta– eta gainerakoak hutsik zeuden –179–; halere, horietatik, 154 aldi baterako beteta zeuden.

2013an, langile berria altak 16 lanpostukoak izan ziren; lanpostu horietatik zortzi suhiltzaileei dagokie, bost suhiltzaileen sarjentuei eta hiru zenbait unitatetako buruei.

Nominaren azterketa bat egin da, aktiboan dauden suhiltzaileen lagin bat hartuta, eta ondorioztatu dugu ezen, orokorrean, ordaindutako lansariak eta egindako atxikipenak bat datozela araudi indardunarekin eta egoki baimendu eta kontabilizatu direla.

Hala eta guztiz ere, jasotzen duten produktibotasuneko osagarriari dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

- Langileen Estatutuko Testu Bateginaren 40.7 artikuluan araututa dago, eta Nafarroako Larrialdietako Agentziari (NLA) atxikitako funtzionarioei –langile operatiboek– aplikatzeko zaie, baldin eta ofizial suhiltzaile, ofizialorde suhiltzaile, sarjentu suhiltzaile, kabo suhiltzaile eta suhiltzaile lanpostuetan aritzen badira.

Osagarri hori jasotzea lotuta dago errendimendu-helburu eta -adierazle batzuk –NLAk ezarriak– lortzearekin, eta zerbitzuaren prestazioen kudeaketan eta kalitatean erdietsitako eraginkortasunari dagozkio. Osagarri horren zenbatekoak ezin izanen du gaintitu kasuko mailari dagokion hasierako soldataren ehuneko bosta, eta epe jakin batez kontzeptu horrengatik jasotzen diren kopuruak ez dute eskubide eskuraturik sortuko eta ez dute ondoriorik izanen hurrengo aldiatako balorazio edo aplikazioetan.

- 2013an, guztira NLAko 439 pertsonak jaso dute, eta 0,37 milioi egiten du. Hona xehetasunak:

Maila	Kopurua	Zenbatekoa
A Maila	5	5.237
B Maila	23	22.342
C Maila	411	341.658
Guztira	439	369.237

Maila bakoitzaren barruan, guztiek zenbateko bera jasotzen dute, salbu eta egoera aktiboan ematen duten aldia ekitaldia baino laburragoa denean.

- Osagarriaren aplikazioa zehazten duen erabakia 2003koa da, eta bertan honako parametro edo esleipen-irizpide ezartzen dira:

Parametroa	Gehieneko ehuneko; honakoa bitarte:
Forma fisikoari eustea	1
Trebatze-maniobrak eta praktikak	1
Laneko absentismoa	1,5
Barne agirien betetzea	1,5
Produktibotasunaren osagarria, guztira	5

Parametro horietatik, helburu kuantifikatu bat ezartzen da soilik laneko absentismorako: gaixotasun arruntak eragindako aldi baterako ezintasunaren kontzeptuari dagokion absentismo-adierazlea txikia-goia izatea Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario guzti-enaren batez bestekoa baino; hortik aurrera, pizgarriaren ehunekoa graduatzen joanen da ehuneko 1,50eko gehienekora iristeraino.

Ebaluazio Batzordearen 11. akta –2013ko abenduaren 9koa da eta 2013an ordaindutako produktibotasun osagarria bermatzen du– aztertuta, honakoa aipatu beharra daukagu:

a) Ez dago jasota parametroetatik hiruri –forma fisikoari eustea, maniobrak eta agiriak– emandako gehieneko balorazioari buruzko justifikazioa; soilik aipatzen da ez dela ezagutzen parametro horien ez-betetzea aurre-suposatzea dakarren gorabeherarik egon denik; hori dela eta, egokitzat jotzen da haiengatik erabakian aurreikusitako gehieneko ehunekoa ordaintzea –ehuneko 3,5, guztira–.

b) Absentismoaren parametroari dagokionez, alderaketarako erabiltzen diren datuak zenbait informazio-iturritatik datoz. Parametro hori dela-eta, orobat, gehieneko zenbatekoa ordaintzen da –ehuneko 1,5–.

2005etik, langile operatibo guztiei gehieneko balioa –ehuneko bosta– esleitu izan zaie.

Azken batean, langile operatibo guztiek jasotzen duten osagarri bat da, eta haren gehieneko zenbatekoa praktikan lanpostuaren beste ordainsari osagarri bat bihurtu da, teoriarik duen izaera pizgarria galduta.

VII.6.3. Langileen bestelako ordainsariak

Arlo honetako betetzea 4,22 milioikoa da. Hona xehakatzeko eta 2012rekiko alderaketa:

Langileen bestelako ordainsariak	2012	2013
Epaiak betetzea eta bestelako kalte-ordainak	6.181.820	817.537
Langileen bestelako ordainsariak	4.355.800	890.055
Aurreko ekitaldietako langile-ordainsariak	2.704.368	2.509.318
18. artikulua, guztira	13.241.988	4.216.910

2012rekiko alde nagusia zor zaio O-NOZeko osasun-langileen destino-osagarrien –arriskugarritasunari dagozkionak– aitorpena gutxitu izanari. Atzerapen horien zenbatekoa²² epaiak betetzeko kontusailei edo bestelako ordainsariei egozten zaie, aitorpen hori bide judizialek ala bide administratibotik aitortu izatearen arabera.

Artikuluak 2013an izan duen gastuaren ehuneko 81 Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei dagokie –3,41 milioi, guztira–; hona zehaztasunak: destinoko osagarria –1,25 milioi–, lanbide-karrera –1,04 milioi– eta atzerapenak eta familia-laguntza –1,12 milioi–.

Aurreko kontzeptuak direla eta kontabilizatutako gastuen arrazoizkotasuna aztertu da, eta ez da aipatzeko moduko gorabeherarik aurkitu. Hala eta guztiz ere, 2013an, 2012an bezalaxe, ez da kontabilitatez kanpoko kontrolik egin arriskugarritasuna dela-eta izandako epaiei buruz; hori dela eta, ezin da egiaztatu kontabilizatutakoa egokia edo arrazoizkoa den. 2014tik aurrera, berriz, kontrol hori egiten ari da.

VII.6.4. Nafarroako Gobernuaren erretiro-gastuen aurreikuspena

2013ko martxoan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin duela “Nafarroako Gobernuaren pentsioen gastuaren aurreikuspenari” buruz, oinarritzat balio dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioko pentsio arrunten kontusailaren aurrekontua egiteko.

Azterlan hori 2006an hasi zen, eta, horrenbestez, urte hartatik 2012ra arteko datuak errealak dira. Gainerako urteetarako, egindako kalkulua oinarrituta dago aurreko urteetan antzemandako jokabideen arabera finkatutako aldagai batzuetan; aldagai horiek, funtsean, honakoak dira: pentsioa zein adinetan hasten den eta zein urtetan amaitzen den eta zenbatekoa den batez besteko erretiro-pentsioa. Aldagai horien arabera, pentsioengatik urteko kostua finkatzen da, euro konstanteetan, 2013tik 2087ra arteko

²² Aurtengo sortzapena aurtengo aurrekontuko kontusailei egozten zaie.

aldirako; izan ere, 2087a izanen da, kalkulaturakoaren arabera, Montepioak gastua sortuko duen azken urtea.

Azterlanean ikusten da goranzko joera bat badagoela, bai onuradunen kopuruan (pentsiodunak eta gainerako onuradunak), bai pentsioen kostuan, 2026ra arte; izan ere, urte horretarako aurreikusten da kosturik handiena, 88,9 milioi euro konstanterena; 2035a izanen da sistemako azken jarduneko langileak erretiroa hartuko duen azken urtea; 2058an kalkulaten da ez dela jada pentsiodunik batere izanen, eta aurreikusi den 1,3 milioi euroko gastua sortuko da, soilik, pentsioa sortu duten 81 onuradunengatik; horietatik, ehuneko 78 hurrengo bost urteetan desagertuko dira, eta pentsioengatiko gastuak nabarmen eginen du behera. 2066tik 2087ra, kalkulaturako gastua urteko ehun mila euro baino txikiagoa da.

Azterlan horren arabera, 2087ra arte kalkulaturako guztizko kostua 2.785,64 euro konstanterena da. Zenbateko horretatik, ehuneko 77 pentsiodunei dagokie eta ehuneko 23 gainerako onuradunei.

Azkenik, eta 2013rako azterlan horretan kalkulaturako kostua dela-eta, erretiro-gastuak 74,5 milioi egiten zuela kalkulatu zen; urte horretako likidazioan ageri den aurrekontu-gastua, berriz, 75,2 milioi-koa da.

Langile-gastu guztiak direla-eta, hona gure gomendioak:

- *NLAko produktibotasun osagarriaren aplikazioa aztertzea, bera zerbitzuaren prestazioko errendimenduarekin eta kalitatearekin lotutako irizpide edo parametroen arabera izan dadin, dela orokorren, dela banaka hartuta.*

- *Kontu orokorretan jasotzea funtzionarioen montepiotik heldutako gorabeherak.*

VII.7. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

Kapitulu honetako gastua 2013an 523,2 milioi-koa izan da, eta ehuneko sei egin du behera –hau da, 32 milioi gutxiago– aurreko urtekoarekin alderatuta.

Egindako lana egin eta gero, hona esan nahi duguna:

- Lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez egindako inbertsioengatiko kanona.

Kanonaren kontzeptu horren barruan sartzen dira Bideko Autobiaren eta Pirinioetako Autobiaren ondoriozkoak. Nafarroako Ubideko ureztalurretan egindako obren kanona INTIA enpresa publikoari egindako transferentzia arruntaren kontusailaren barruan erregistratzen da.

Kanon horien zenbatekoa, BEZa barne, 2010etik 2013ra, hurrengo taulan islatzen duguna da:

Kanona	2010	2011	2012	2013
Bideko Autobia (A-12)	37.694.454	39.902.837	40.120.184	38.007.952
Pirinioetako autobia (A-21)	-	-	13.139.623	14.985.161
Nafarroako Ubideko ureztalurrak	6.256.163	10.025.301	14.157.241	13.983.079
Kanonak, guztira	43.950.617	49.928.138	67.417.048	66.976.192

Hemendik gutxira, Kontuen Ganberak berariazko txosten bat emanen du itzaleko bidesarien gastuaren fiskalizazioari buruz.

- Farmakoak

Farmazia-produktuengatiko gastuak 79,05 milioi egin du, aurreko ekitaldian baino ehuneko 11 gutxiago; hau da, 9,6 milioi txikiagoa izan da.

Unitate funtzionalen arabera, aurreko gastua honela banatzen da:

Farmakoak	2012	2013
Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia	1.188	125
Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	3.152.292	2.616.296
Nafarroako Ospitalegunea	73.195.774	64.816.439
Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza	945.302	749.104
Farmazi Prestazioen Zerbitzua	46.740	53.820
Tuterako osasun eskualdea	8.445.253	8.203.571
Lizarrako osasun eskualdea	1.593.979	1.448.375
Osasun Mentaleko Zuzendaritza.	1.273.426	1.158.436
Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia	11.722	7.379
Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua	1.173	1.057
Farmakoak, guztira	88.666.849	79.054.602

Gastu horren ehuneko 82 inguru Nafarroako Ospitalegunean kontzentratzen da.

Saldo horien osaera aztertu da, eta ondorioztatu da ez dagoela 2014ko aurrekontuei egotzitako zenbateko garrantzitsuko gasturik.

- Osasun itunak.

2013an, 53,7 milioiko gastua dago, 2012an baino ehuneko 16 txikiagoa; hau da, 10 milioi gutxiago.

Saldo horien osaera aztertu da, eta ondorioztatu da ez dagoela 2014ko aurrekontuei egotzitako zenbateko garrantzitsuko gasturik.

2012rekiko alderaketa zehaztu beharra dago, zeren eta urte horretako aurrekontuaren likidazioak 7,5 milioi euro biltzen baitzituen guztira, 2011ko itunetan egindako gastuari zegozkionak. Baldin eta bi aurrekontuetako kopuruak doitzen baditugu, 2012an sortutako gastua 56,2 milioikoa dela ondorioztatu dugu; horrenbestez, 2013ko gastu-gutxitzea ehuneko laukoa da; 2,5 milioi txikiagoa. Hurrengo taulan ikus dezakegu alderaketa hori, hornitzaileen arabera xehakaturik.

Hornitzailea	Gastua 2012	Gastua 2013
Nafarroako Unibertsitatea	18.776.972	18.854.84
San Juan de Dios	19.648.940	18.170.41
San Miguel Klinika	3.969.187	3.088.240
Gasmedi 2000 SA	2.622.286	2.592.238
HH HH Sagrado Corazón Jesús	2.651.262	2.380.983
Aho-hortzetako laguntza	2.372.539	2.238.283
ARFE Fundazioa	1.137.100	1.240.518
Argibide Fundazioa	1.177.662	1.179.867
Baxter SL	890.520	897.303
Resonancia Magnética, S.A.	384.888	460.909
Cannaregio, S.L.	352.360	302.820
ACOAD Laguntza Zerbitzuetako Elkartea	334.812	334.812
José Carreras Fundazioa	307.423	210.096
C. Diagnóstico Radiológico de Navarra, S.L.	294.035	527.782
C. Diagnóstico Granada, S.L.	284.275	552.553
Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	226.844	226.243
Beste zentro batzuk	752.350	428.098
Itunak, guztira	56.183.454	53.686.010

Nafarroako Unibertsitateak, San Juan de Dios Ospitaleak eta San Miguel Klinikak 2013ko gastuaren ehuneko 75 justifikatzen dute.

Nafarroako Unibertsitatea, 18,85 milioirekin –itun guztien ehuneko 35– honakoak dauzka itunduta: osasun sistema publikotik deribatutako gaixoen osasun laguntza (8,4 milioi), beren langileentzako osasun prestazioa (5 milioi) eta organoen transplanteetarako zerbitzua (5,4 milioi).

San Juan de Dios Klinikak, 18,2 milioirekin –guztizkoaren ehuneko 34– eta San Miguel Klinikak, 3,1 milioirekin –guztizkoaren ehuneko sei– funtsean osasun sistema publikotik deribatutako gaixoei osasun laguntza ematen dihardute.

Halaber, nabarmentzekoa da osasun mentalerako laguntza-zerbitzua, zeina nagusiki hiru zentzorekin egindako itunaren bitartez ematen baita: Ahizpa Ospitalariak (zentroak Iruñean eta Elizondon ditzutenak), ARFE Fundazioa (Josefina Arregui zentroa) eta Argibide Fundazioa. Batera hartuta, itundutako kopurua 4,8 milioikoa da –guztizkoaren ehuneko 9–.

• Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzaitza Orokorrak finantza-kontrol iraunkorreko bi lan egin ditu; hona gaiak: "2013ko gastu eta kontratu txiki aurrez kontu-hartzaitzarik behar ez dutenak" eta "O-NOZen 2013ko osasun horniduretako, osasun itunetako eta farmazia-prestazioetako gastuak". Gastu horiek, funtsean, 2. kapitulu honi dagozkio, nahiz eta inbertsioen 6. kapituluko gastuak – "Inbertsioak"– eta 4. kapitulukoak –"Transferentzia arruntak"– ere hartzen dituen. Aurreko lanak direla-eta, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

a) Gastu eta kontratu txikiak: aldeko iritzi bat ematen da haien aplikatzekoa den araudiari eta lanaren helburuei egokitzeari dagokionez. Gomendio multzo bat jasotzen duen txostena erantsi dugu; horien artean, honakoak nabarmendu behar dira: Prozedura bat diseinatzea, gastu horien izapidetzea eragotziko duena, dagokien fakturaren oinarria ez dutenean edo organo eskudunaren adostasuna ez dutenean; exijitzekoak diren kasuetan, kredituaren aurreiazko aginduzko erreserba egitea; eta esleipen-prozedura sustatzea behar den kasu guztietan, kontratuen balio kalkulatuari buruzko kontratazio-araudiaren arabera.

b) O-NOZ: aldeko iritzi bat ematen da gastu horiek aplikatzekoa den araudiari eta lanaren helburuei egokitzeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, Kontu-hartzaitzak atentzioa deitzen du O-NOZek egindako osasun produktuen eskuraketa guztiak esparru-akordioetan eta kontratu indardunetan babestuta egon behar izateari buruz.

VII.8. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2013an emandako transferentzia arruntek 1.387,1 milioi euro egin zuten, ehuneko 99ko betetze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 38 egiten dute. 2012rekin alderatuta, gastu horrek ehuneko 0,4 egin du behera –hau da, 5 milioi txikiagoa da–; artikularen arabera, nabarmentzekoa da enpresa pribatuei bideratutakoek behera egin dutela –ehuneko 14, hau da, ia 10 milioi gutxiago–, eta, bereziki, familientzako eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzako gastuak izandako jaitziera –ehuneko bederatzi gutxiago; hau da, 43 milioi gutxiago–. Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin zaion behin-behineko ekarpena ²³571,9 eurokoa da –hau da, kapituluaren ehuneko 41–, eta 2012rekin alderatuta, kontusail horrek ehuneko 10eko igoera izan du. Toki entitateentzako transferentziak 256 milioikoak dira, eta aurreko urtekoen aldean ehuneko bat egin dute gora.

2013an emandako kapital transferentziek 144,1 euro egin zuten, ehuneko 79 betetzearekin; guztira aitortutako betebeharren ehuneko lau egiten dute. 2012rekin alderatuta, ehuneko 40 egin dute behera –hau da, 100 milioi gutxiago–; artikuluko guztietan zenbatekoa jaitzi da. Nabarmentzekoa da familien irabazi asmorik gabeko erakundeen arloko gutxipenak –ehuneko 47 gutxiago, hau da, 43 milioi gutxiago–; toki entitateen arlokoak –ehuneko 44, hau da, 20 milioi gutxiago– eta enpresa pribatuen arlokoak –ehuneko 39, hau da, 29 milioi–.

²³ Aurrekontuetan jasotzen da 2013ko ekarpena –545,8 milioi– eta 2012ko likidazioa –26,1 milioi.

2013ko transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien hurrengo lagina aztertu da, nahiz eta Estatuaren ekarpena berriaz aztertzen den VII.9 atalaren barruan. Zenbatekoa (euroak milakotan).

Kontzeptua	Transferentzia arruntak	Kapital-
Estatuarentzako ekarpena (ituna)	571.859	
Farmazia-prestazioak	124.898	
Miguel Servet Fundazioa	920	
Azienda-hazleen elkarteak	421	
Kontseilu arau-emaileak	335	
Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilua	106	
Ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak	1.400	
ADITECH Fundazioa		500
Fidantza duten betebeharren ondoriozko transferen-		1.797

Halaber, parlamentu-erakundeei, enpresa publikoei eta fundazioei egindako transferentziak berdinkatu dira, eta diru-sarreretan diru-laguntzen eta transferentzien itzulketa moduan erregistratutako eragiketen izaera aztertu da.

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimendu, fiskalizatu, justifikatu eta kontabilizatu direla eta diru-laguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu direla.

Ondoren, aztertutako diru-laguntzen alderdi batzuk nabarmentzen ditugu:

- Farmazia-prestazioak:

Aurrekontu-gastuak aurreko urtekoaren aldean ehuneko 15 txikiagoa bada ere, ekitaldiko gastu erreala ehuneko sei jaitsi da. Hartara, hurrengo taulan erakusten dugu kontusail honetan 2008tik 2013ra aurrekontu-gastuak izandako bilakaera eta ekitaldiko berezko gastua:

Ekitaldia	Betebeharrak	Aldearen ehuneko, aurreko urtearekin alderatuta	Ekitaldiko berezko gastua	Aldearen ehuneko, aurreko urtearekin alderatuta
2008	160.868.647		161.889.555	
2009	169.588.475	5	169.937.438	5
2010	166.343.761	-2	165.759.318	-2
2011	144.590.041	-13	154.119.266	-7
2012	147.713.715	2	134.540.305	-13
2013	124.897.701	-15	125.965.892	-6

2012an farmazia-gastuan aurrezteko neurrien multzo bat ezartzeak (funtsean, koordinaketa farmazeutikoak gora egitea, farmako batzuk finantzaketa publikotik kanpora ateratzea eta generikoen nahitaezko preskripzioa) gastu-murrizketa hori justifikatzen dute.

Horrek berarekin ekarri du, gainera, sare publikoak finantzatzen dituen errezeta-kopuruak behera egitea. Hartara, 2011n, kopuru hori 12,32 milioi errezetakoa izan zen; 2012an, aldiz, 11,71 milioi errezeta izan ziren; hau da, ehuneko bost gutxiago; azkenik, 2013an, 10,92 milioi errezeta izan ziren, hau da, aurreko urtean baino ehuneko zazpi gutxiago.

Egiaztatu da aurrekontu-likidazioak, kontusail garrantzitsuenetarako, urte osoa hartzen duela, hau da, 12 hilabete.

- Miguel Servet Fundazioa: emandako diru-laguntza bideratuta dago Nafarroako osasun publikoaren arloko ikerketa eta irakaskuntza garatzera; haren zenbatekoarekin gastuen ehuneko 30 finantzatzen da. Gure ustez, Fundazioak aurkezten duen oroitidazkia zabaldu beharko litzateke, informazio ekonomikoarekin eta hark garatzen duen jardueraren eraginari buruzko adierazleekin. Halaber, Fundazioa ente instrumental gisa aitortzeko dago.

- Azienda-hazleen elkarteak: oroitidazkietan ageri diren datuen jarraipena egin beharko litzateke, batez ere jardueraren eraginari dagokionez.

- Kontseilu arau-emaileak: deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak eta bi diru-laguntza izendun (Errioxa Jatorri-deitura eta Patxaranaren Kontseilu Arau-emailea) biltzen dira.

- Ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak. Nafarroarako TDT emisio-lizentzia duten telebistetara, tokikoak zein autonomikoak, bideratuta dago, interes orokorreko edukiak sustatzeko baliabide berekiekin nahiz Nafarroako merkatuan azpi-kontratatuekin. 2013an, operadore bakarra dago baldintza horiek betetzen dituen; hori dela eta, justifikatuta dago diru-laguntza hori zuzenean ematea.

- ADITECH fundazioa, 2013ko abuztuan eratua, entitate pribatu bat da, nekazaritza-elikagaien, biomedikuntzaren, energiaren eta industriaren esparruko Nafarroako zentro teknologiko guztiak biltzen dituena. Haren sorreraren arrazoiak honakoak dira: ikerketa-taldeen tamaina eta gaitasunak handitzeko beharra; nazioartean ikusgarritasun handiagoa bilatzea; Europako lehiakortasun-finantzaketara eraginkortasun handiagoz iristea; ikerketaren emaitzak industriaren ingurunera hurbiltzea, eta sektoreen artean berrikuntza bideratzea. Patronatu bat du buru, eta bertako kideen ehuneko 70 enpresa pribatuetakoak dira, ehuneko 20 Nafarroako eta Espainiako gobernuak hautatzen dituzte eta ehuneko 10, azkenik, izen handiko profesionalen artean aukeratzen dira.

Nafarroan egoitza duten honako zentro teknologikoak biltzen ditu:

- a) Elikagai-segurtasun eta teknologiaren Zentro Nazionala (CNTA)
- b) Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Zentroa (CIMA)
- c) Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioa.
- d) Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala.
- e) Industriarako Teknologien Diziplina Anitzeko Zentroa.

Fundazioari ematen zaion diru-laguntza zentro teknologikoetarako eta ikerketa-zentroetarako diru-laguntzen zuzeneko ematearen barruan sartzen da; guztira, 4,7 milioi dira Baterako Ekintza Plana finantzatzeko, eta horietatik, 0,5 milioi ADITECH Fundazioari ematen zaizkio. Zuzeneko emakida hori, bere xedea dela eta, oinarritzen da beste onuradunik ez egotean, eta Industriako zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez eman zen.

Diru-laguntzaren xede den Fundazioaren jarduera aipatutako planaren barruan garatzen da, eta Fundazioa bera finkatzeko proiektuei dagokie –0,3 milioi–, bai eta laguntza teknikoko proiektuei ere –0,2 milioi–.

Aurkeztutako gastu-ziurtagiriek 472.163 euro egiten dute, eta Industriako zuzendari nagusiaren ebazpen bat badago, zeinaren bidez Fundazioari eskatzen baitzaio 27.837 euro itzul ditzan, jasotako diru-laguntza gehiegizkoa izatearen ondorioz. Txosten hau idazteko egunean, itzulketa hori gauzatu gabe dago.

Fundazioak aurkeztutako gastuak –2013ko gastu guztiak hartzen dituztenak– honakoei dagozkie:

- a) Langileak, 22.116 euro, Fundazioaren arduradunak 2013ko azaroan eta abenduan egindako gastuei dagozkienak.

- b) Aktibo finkoak, 1.649 euro, CENER fundazioak fakturatutako ordenagailu bat erosteari dagozki-onak.

- c) Materialak, 254.426 euro. Kopuru horretatik, 231.000 euro Cetena Fundazioaren sorrerako zuzkiduraren ekarpenari dagozkio.

- d) Kanpoko lankidetzak, 193.972 euro, zeinek erreferentzia egiten baitiote *consulting* enpresa baten faktura bati, 2013ko urtarriletik abendura laguntza teknologikoa emateari buruzkoa.

Gure iritziz, etorkizuneko ekitaldietarako, aurkeztu beharreko egiaztagirien artean, Fundazio horren auditatutako urteko kontuak sartu beharko liriteke.

- Finkatutako betebeharrengatiko transferentziak, zazpi enpresa pribaturen abalak ez-betetzearen ondoriozko gastuei dagozkienak.

- Diru-laguntzen eta transferentzien itzulketa. Jatorri hori dela eta, 13 milioiko diru-sarrerak identifikatu dira. Kopuru honetatik, ondorengo hauek azpimarratuko ditugu:

- a) Hiru milioiko guztizko kopurua, parlamentu-erakundeen transferentzien itzulketei dagozkie.

- b) 3,7 milioi heldu dira babes ofizialeko etxebizitzetarako emandako diru-laguntzen itzulketetatik.

c) Guztira, 1,9 milioi heldu dira funtsean enpresa pribatuetatik, I+G proiektuetarako eta inbertsio-eta enplegu-proiektuetarako hartutako diru-laguntzak tarteko.

d) 1,3 milioiren jatorria enplegua eta prestakuntza-programak sustatzeko diru-laguntzen itzulketei dagokie.

e) Itzulketen multzotik guztira 1,1 milioi agentzia exekutiboari eskualdatu zaizkio, haien kobrantza kudea dezan.

Hona gure gomendioak:

- *Gobernuaren diru-laguntza politikak berrikustea, gizarteak dituen beharrei eta eskatzen dituen helburuei erantzuna ematen ote dieten egiaztatzeko.*
- *Komenigarria litzateke eraginari buruzko adierazleak sartzea, zenbait diru-laguntzaren aplikazioaren jarraipena egiteko.*

VII.9. ESTATUAREKIKO HITZARMEN EKONOMIKOA.

VII.9.1. Alderdi orokorrak

Nafarroaren jardura ekonomiko eta tributarioa eta Estatuarekiko harremana, foru araubidearen ondoriozkoa, hitzarmen ekonomikoaren sistema tradizionalaren bidez arautzen da.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoak, 1990eko uztailaren 31n sinatuak, harmonizazio fiskaleko irizpideak ezartzen ditu eta metodo bat finkatzen du Nafarroak urtero Estatuari eginen dion ekarpena kalkulatzeko –eskualdatu gabe egon eta Administrazio Zentralak ematen dituen zerbitzu eta eginkizunen truke eginen duen ekarpena hain zuzen–. Bost urtez behin gaurkotu izan da.

2011ko otsaila

Hartara, 2010-2014 bosturtekorako, honakoa erabaki zuen Hitzarmeneko Koordinazio Batzordeak²⁴ :

- Estatuaren zama orokorretarako urteko ekarpena, 2010eko oinarri-urterako, 485,5 milioi eurokoa dela ezarri da, eta kalkulatu da Nafarroak Estatuko zamen guztizko kopuruari egotzi beharrekoaren adierazlea aplikatuz, Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen zamengatik. Adierazlea, zeina finkatu baita Nafarroako nazioko guztizkoan Nafarroak ordaindu beharreko errenta erlatiboaren araber, ehuneko 1,6an geratzen da.

Oinarri-urtearen ekarpena urtero gaurkotzen da bosturteko horretarako onetsi den homogeneizazio-metodoa aplikatuz.

- Balio erantsiaren gaineko zergaren eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien diru-bilketa dela eta egindako doikuntzari dagokionez.

a) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien diru-bilketaren doikuntza eraginkor egiteko metodoa luzatzea onesten da. Metodo hori Koordinazio Batzordearen 1997ko urriaren 28ko bileran onetsi zen.

b) 2010-2014 bosturtekoan balio erantsiaren gaineko zergaren diru-bilketaren doikuntza gauzatzeko metodoa onesten da, eta "tarte" deitutakoak urteko erregularizazioan dituen eraginak mugatzen ditu Nafarroarentzat itzulketa-tope maximo bat ezarriz: hasieran kalkulaturako doikuntzaren ehuneko 40.

2012ko maiatza

Nafarroan kokatutako enpresa batek esportaziorako ibilgailuak merkaturatzeko moduan egin den aldaketaren ondorioz, Hitzarmeneko Koordinazio Batzordeak, besteak beste, erabaki bat hartu zuen, zeinak 2010-2014 bosturteko BEZaren doikuntza kalkulatzeko metodoa aldatzen baitu; horren eraginak 2012ko apirilaren 1etik hasten dira aplikatzen. Laburbilduz, aldaketa hori honakoei dagokie:

a) Enpresa horrek egiten dituen esportazioak Nafarroatik zuzenean egiten dira 2012ko apirilaz gero, eta ez lehen, esportazio horiek Europako Batasunean zegoen mendeko sozietate baten bitartez

²⁴ Hitzarmen Ekonomikoko 67. artikuluan arautua.

egiten zirenean bezala. Hartara, ikusita esportazioak BEZetik salbuetsita daudela, Nafarroako Gobernuak BEZari dagokion tasa, lehen diru-sarrera gisa zuena, itzuli egiten du.

Zehaztu beharra dago Nafarroak BEZarengatik jasotzeko duen diru-bilketak bi atal dituela: zuzeneko diru-bilketa erreala eta kontsumoaren araberako doitzea, Hitzarmenean araututakoa. Doikuntza horrek, adierazle batzuetan oinarrituak, egokitu nahi du Nafarroan izan den kontsumo efektiboari dagokion BEZetik lortu den diru-bilketa; horrenbestez, baldin eta Nafarroan diru-bilketa erreala handitzen bada, konpentsazio-doikuntza gutxitu egingen da, eta alderantziz.

b) Horretarako, Nafarroaren diru-bilketa errealaren doikuntza-adierazlea aldatzen da, eta Estatuak 2012tik 2014rako ekitaldietan ordaindu beharreko urteko konpentsazioa ezartzen da; konpentsazio horren ordainketa hiruhilekoko zenbateko berdinetan egingen da, behin-behineko doikuntzekin batera. Halaber, jasotzen da ezen, behin betiko doikuntza erabakitzeko unean, alderatuko direla BEZaren guztizko diru-bilketa, aurreko metodologia erabiliz egindakoa, eta BEZaren guztizko diru-bilketa, metodologia berriarekin egingina; alderaketa horretatik eratorzen bada urteko amaierako aurrekontu-eragina Nafarroarentzat 25 milioitan txikiagoa dela, alde hori Nafarroako Gobernuak konpentsatuko dio Estatuari; zenbatekoa, aldiz, 25 milioitik gorakoa bada, aldea Estatuak konpentsatuko du.

Hitzarmenean sartutako aldaketarekin, bermatzen da Nafarroako zuzeneko diru-bilketan izan duen gale-raren zati bat Estatutik jasotzen duen BEZarengatik doikuntza fiskalaren bitartez konpentsatuko dela, halako moduz non Nafarroak bere lurraldean egiten den kontsumoari dagokion zerga jasotzen jarraituko baitu.

2013koa da metodologia berri hori guztiz aplikatzen den lehengo ekitaldia.

2014ko uztailan, Koordinazio Batzordeak erabaki zuen aurreko metodoa behin-behinekoz luza-tzea 2014 eta gero egitekoak diren likidazioetan, baldin eta hurrengo bosturtekoan aplikatu beharreko metodoa onesten ez bada. Modu horretara egindako doikuntzak behin-behinekoak izanen dira eta haien helburua behin betiko likidazioa izanen da, ezertan kendu gabe kalkulurako behin betiko meto-doa ezarri ondorengo erregularizatzea.

2013ko abendua

Koordinazio Batzordeak honako erabakiak hartu zituen:

A) 2010-2014 bosturtekoan balio erantsiaren gaineko zergaren diru-bilketaren doikuntza eta fabri-kazioaren gaineko zergen doikuntzak gauzatzeko metodoa onesten da.

Hartara, 2013tik aurrera, zergen behin betiko doikuntzaren kuantifikazioa eta likidazioa, bai eta 2013ko eta 2014ko konpentsazioa ere, urte bakoitzeko abenduan egingen dira, hurrengo urteko mar-toan egin beharreko erregularizatzearen "*aurrerapen*" gisa.

B) Gainera, honako behin betiko likidazioak onetsi dira:

- Nafarroak Estatuaren zametarako 2012n egindako ekarpena.
- 2012ko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren doikuntza, bai eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien diru-bilketaren doikuntzen likidazioa ere.

Bestalde, 2014ko maiatzean, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak 2007tik 2011ra bitar-teko BEZari dagozkion itzulketen jokabidearen gaineko eskumen-gatazkari buruzko epaia eman zuen. Hartan, kideen gehiengoak honakoa erabaki zuen: "*1) Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziako zuzendariak Nafarroako Zerga Administrazioaren kontra aurkeztutako eskumen-gatazka negatiboa (berak halakotzat izendatua) ez onartzea*". Batzorde horretako buruak boto partikular bat aurkeztu zuen, non adierazten baitu ez dagoela ados lortutako akordioarekin eta haren oinarrian dauden argu-dio juridikoekin.

2014ko irailean, Zerga Agentziak Arbitraje Batzordearen aipatutako ebazpenaren aurkako errekur-soa iragarri du.

2014ko urrian, Koordinazio Batzordeak, gatazka hau zela-eta 2012ko maiatzaren 7an izenpetutako akordioari jarraituz, erabaki zuen Batzordearen beraren baitan ebatzi behar dela auzigaia eta bera izanen dela erabakiko duena zenbatekoren bat ordaindu behar den BEZaren itzulketen ondoriozko eskumenean gatazkaren inguruan, eta hala bada, zenbat itzuliko den erabakiko duena, betiere aztertuta eta ebaluatuta nolako ondorio ekonomikoak izanen dituen horrek hurrengo bosturtekoaren, 2015-2019, gaurkotzeari buruzko negoziazioaren esparruan. Estatuak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du, erdi-etsitako akordioaren printzipioari erreparatuta, gatazka honi buruz Arbitraje Batzordeak eman duen ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren etete prozesala eskatzeko.

Behin akordioa erdietsita, Lankidetzak Batzorderako dei egingen da, akordio hori islatuta gera dadin, eta Estatuak erretiratuko egingen du aurkeztua duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Hitzarmenean jasotzeko dago Estatuan ezarritako zerga-figura berriei buruzko araupetzea – besteak beste, loterien, on-line jokoen eta ingurumen gaien gainekoak–, bai eta hidrokarburoen gaineko eta ekoizpen elektrikoaren gaineko zergetatik heldu diren egoera berriak ebaztea ere. Koordinazio Batzordeak 2014ko urrian egindako bilera horretan, adostasun printzipio batera iritsi zen loteria-sarien gaineko eta on-line jokoen ondoriozko sarien gaineko zergapetze berezia dela-eta.

Ganbera honen iritziz, 2015-2019 aldirako Hitzarmena berrikusteko eta gaurkotzeko prozesuaren hasiera, 2014an gertatu zena, une egokia da aurkitutako arazoei konponbidea emateko. Ildo horretan lan egiten ari da Nafarroako Gobernuak, eta horretarako, hasita dauden beste jarduketak batzuen artean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egituraren barruan Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzua sortu da, oinarriko eginkizun batekin: Estatuarekiko negoziazioak bultzatu eta koordinatzea.

Azkenik, adierazi behar dugu balizko arrisku bat badagoela foru erkidegorako, Hitzarmenaren 2012ko maiatzaren gaurkotzearen aurka formazio politiko batek Auzitegi Nazionalen 2013ko martxoan aurkeztutako errekurtsoa dela eta.

VII.9.2. 2013ko aurrekontu-likidazioa.

2013ko aurrekontu-likidazioan Hitzarmenak izan duen eragin kuantitatiboa eta 2011ko eta 2012ko ekitaldikoarekiko alderaketa hurrengo taulan ageri direnak dira (euroak, milakotan):

Hitzarmenaren aurrekontu-kontzeptuak	2011	2012	2013
Estatuarentzako ekarpena	498.106	520.687	545.775
Aurreko ekitaldian Estuari egindako ekarpenaren behin betiko likidazioa (gastua)	-	-	26.084
Gastu-kontusail guztiak	498.106	520.687	571.859
BEZaren ondoriozko doitzak	171.155	483.270	646.767
Alkoholaren gaineko zerga bereziak	-35.286	-39.947	-34.048
Garagardoaren gaineko zerga bereziak	4.197	4.177	8.501
Tabakoaren gaineko zerga bereziak	44.849	28.079	15.507
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziak	-29.897	-43.013	19.313
<i>Zergetan egindako doikuntzak, honaino</i>	<i>155.017</i>	<i>432.567</i>	<i>656.040</i>
Behin betiko likidazioa Aurreko ekitaldian Estuari egindako ekarpena (diru-sarrera)	24.324	8.066	-
Mendekotasunari arreta eskaintzea	13.081	12.569	11.554
Diru-sarreraren kontusailak, guztira	192.422	453.202	667.594

Ikusten den bezala, 2013koa lehenengo urtea da hitzarmenetik heldu diren diru-sarrerak haren gastuak gainditzen dutena, eta egoera horretan eragina du 2013ko zergen likidazioaren aurrerakinak, 200,31 milioi egiten duenak.

Estatuarentzako ekarpenaren 2011tik aurrerako bilakaera hurrengo taulan adierazi dugu, milaka eurotan adierazia, eta, kasuan kasu, aurreko urteetako erregularizatze negatiboak –aurrekontuko diru-sarrerak– zein positiboak –aurrekontuko gastuak– jasotzen ditu.

Hitzarmena: Estatuarentzako ekarpenetik heldutako	2011	2012	2013
Behin-behineko ekarpena	498.106	520.687	545.775
Aurreko urteko erregularizatzea	-24.324	-8.066	26.084
Estatuarentzako ekarpenaren aurrekontu-saldoa	473.782	512.621	571.859
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>108</i>	<i>121</i>
<i>Nafarroako aurrekontuen gaineko ehunekoa</i>	<i>13</i>	<i>14</i>	<i>15</i>
<i>Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehuna</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>3</i>

Hau da, 2013 eta 2012 artean, ekarpen horrek 59,24 milioi egin du gora, hau da, ehuneko 11 handitu da; 2011rekin alderatuta, 98 milioi eta ehuneko 21 gehiago da.

Oinarri-urterako –2010– itundutako zenbatekoa abiapuntutzat hartuta, Estatuarentzako ekarpena urtero gaurkotzen da itundutako zergen diru-bilketarekin lotutako adierazle baten arabera.

2013ko ekarpena zehazterakoan, desadostasun batzuk badaude –ebazteko daude– Nafarroako Administrazioaren eta Estatuaren artean, hidrokarburoen gaineko zerga berria aintzat hartzearen ondoriozko gaurkotze-adierazlea finkatzeari dagokionez. Hitzarmenean ezarri bezala, desadostasunik badago, ekarpena adostutako azken likidazioaren arabera –kasu honetan, 2012koa– eginen da ekarpena.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak kontusail horretan 545,77 milioiko gastua aitortzen du guztira. Honela xehakatzen da: 520,68 milioi –2012ko ekarpenaren berdina– gehi 25,09 milioiko beste gastu bat, ordaintzeko dagoena ²⁵, zeina heldu baita aurreko gastuaren eta bere kalkuluen arabera 2013an ordaindu behar zenaren arteko diferentziatik. Estatuaren arabera, guztizko ekarpen horrek 548,04 milioi eurokoa izan beharko luke –hau da, 2,27 milioi gehiago–.

Zergen doikuntzen bidezko diru-sarreraren kontusailak direla eta, lehen aipatu den bezala, 2013an bi inguruabar aipatu behar dira:

a) Lehenengo urtea da urteko ekitaldiko aurrekontuari zergen bidezko doikuntzen behin betiko likidazioaren aurrerakin bat egotzen zaiona. Hori dela eta, 2013an, batera gertatzen dira urte horretako likidazioaren aurrerakina eta aurreko ekitaldiko behin betiko likidazioa.

b) Halaber, lehenengo ekitaldia da non osoki aplikatzen baita BEZaren doikuntza kalkulatzeko metodo berria, 2012ko maiatzean onetsitakoa.

Hurrengo bi tauletan, 2011tik 2013ra ituneko diru-sarrerak izan duten bilakaera erakusten dugu, milaka eurotan, aurreko inguruabarrak kontuan izanda.

Hitzarmena-Zergen bidezko doikuntzen ondoriozko diru-sarrerak	2011	2012	2013
Aurreko ekitaldiaren behin betiko likidazioa	-110.694	-116.671	-178.530
Aurtengo ekitaldiko hiruhileko behin-behineko likidazioak	281.849	599.941	684.832
Aurtengo ekitaldiko behin-betiko likidazioaren aurrerakina	-	-	140.465
BEZaren ondoriozko doitzeak, guztira	171.155	483.270	646.767
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>282</i>	<i>378</i>
Aurreko ekitaldiaren behin betiko likidazioa	48.427	19.369	29.396
Aurtengo ekitaldiko hiruhileko behin-behineko likidazioak	-64.565	-70.072	-79.969
Aurtengo ekitaldiko behin-betiko likidazioaren aurrerakina	-	-	59.846
Fabrikazio-zerga berezietako doikuntza, guztira	-16.138	-50.703	9.273
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>314</i>	<i>-57</i>
Zergen ondoriozko doitzeak, guztira	155.017	432.567	656.040

Hau da, 2012 eta 2013 bitartean, zergen doikuntzen ondoriozko diru-sarrerak 223,47 milioi handitu dira –ehuneko 52ko handitzea–, eta horietatik 200,31 milioi urte bereko likidazioaren aurrerakinetik heldu dira. Aurrerakin hori kontuan hartu gabe, zergen doikuntzen ondoriozko diru-sarrerak ehuneko bost egin dute gora; hau da, 23,16 milioi handiagoak dira.

Aurreko aurrerakina, 2013koa, zergaren arabera xehakatu dugu (euroak milakotan):

2013ko behin betiko likidazioaren aurrerakina	Zenbatekoa
BEZaren 2013ko behin betiko likidazioaren aurrerakina	140.465
Alkoholaren gaineko zergaren 2013ko behin betiko likidazioaren aurrerakina	-3.555
Garagardoaren gaineko zergaren 2013ko behin betiko likidazioaren aurrerakina	4.235
Tabakoaren gaineko zergaren 2013ko behin betiko likidazioaren aurrerakina	9.729
Hidrokarburoen gaineko zergaren 2013ko behin betiko likidazioaren aurrerakina	49.437
2013ko aurrerakina, guztira	200.311

2014ko martxoan, behin betiko likidatu da 2013ko ekitaldia, eta Nafarroako Gobernuaren arabera, emaitza da lau milioi euroko saldo garbia dagoela Estatuaren alde.

²⁵ Zenbateko horrek berarekin dakar doikuntza positibo bat egin behar izatea Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorearen finantzaketa-beharrak zehazteko.

Halaber, ikusten da autonomiaren aldeko eta mendetasunari arreta eskaintzeko sistemako egitura-tzearen ondorioz Nafarroari dagozkion kopuruek pixkanaka behera egin dutela, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala (euroak, milakotan).

Mendekotasunari arreta emateko diru-sarrerak	2010	2011	2012	2013
AMASen zenbatekoa	17.673	13.081	12.569	11.554
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>74</i>	<i>71</i>	<i>65</i>

2010etik 2013ra, ekarpen horrek ehuneko 35 egin du behera; horrek 6,12 milioi gutxiago izatea dakar.

VII.10. INBERTSIOAK

2013ko inbertsioek 125,05 milioi euro egiten dute, 2012an baino ehuneko 12 gutxiago –17,6 milioi gutxiago–, eta gastu guztien ehuneko hiru egiten dute. Betetze-maila ehuneko 73koa izan da.

Kapitulu hau 363 kontusailetan xehakatuta dago; horietatik 97k (haien ehuneko 27) ez dute betetzerik ageri eta 80k (ehuneko 22) 10.000 eurotik beherako gastu-betetzea daukate. Ekitaldiko gastuaren ehuneko 50 baino gehiago bi kontusailek justifikatzen dute: bide-sarearen kontserbazioa eta AHTaren eraikuntza –38,5 eta 25,3 milioi hurrenez hurren–.

Betetze orokorra hurrengo taulan erakusten duguna da (euroak, milioitan):

Inbertsioak	Hasierako kreditua	Aldaketak	Kreditu bateratua	Aitortutako betebeharrak	Kreditu-gerakina
6. kapituluko zenbatekoa	157,51	14,16	171,67	125,05	46,62




Aldaketei dagokienez, nabarmendu behar dugu ebakuntza-geletako obretan izan den jaitsiera –2,6 milioi–, bai eta Arena Kiroldegiarena ere –1,8 milioi–. Handitzerik handiena ikusten da bide sarearen mantentzearen esparruan –16,63 milioi–. Kreditu-gerakinetatik, ehuneko 84 AHTaren obretan kontzentratuta dago –39,32 milioi–.

Urtean inbertsio gehien egin dituzten departamentuak –inbertitutako guztiaren ehuneko 66– Osasun Departamentua –ehuneko 11– eta Gizarte Politiketako Departamentuak –ehuneko zazpi– dira.

Hurrengo taulan, 2008tik 2013ra bitarteko urteetako inbertsioen kapituluko bilakaera ageri da, bai eta guztizko aurrekontuarekin eta BPGarekin duen lotura ere:

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Inbertsioengatikoa (milioitan)	305,98	341,10	273,59	193,93	142,61	125,05
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>111</i>	<i>89</i>	<i>63</i>	<i>47</i>	<i>41</i>
Ehunekoa, aurrekontu osoaren gainean	6,95	7,80	6,36	4,89	3,93	3,40
Ehunekoa, Nafarroako BPGaren gainean	1,66	1,88	1,47	1,04	0,79	0,71

Honela irudikatuko litzateke:



Kapitulu honek azken sei urteetan izan duen bilakaeraren azterketa eginez, ikusiko dugu 2013ko inbertsio-bolumen handiagoa 2008an inbertitu zenaren erdira baino gehiago gutxitu dela; hau da, 306 milioitik 125 milioira. Gutxitze hori azken lau urteetan gertatu da, 2009an ehuneko 11 igo ondoren.

Halaber ikusten da inbertsioek gastuaren guztizkoan daukaten garrantzi erlatiboak behera egin duela pixkanaka –2009ko goraldi txiki bat izan ezik–: 2008an ehuneko zazpi izatetik 2013an ehuneko hiru izatera pasa da.

Nafarroako BPGaren gainean, 2009ko igoyerengatik ez bada, ehuneko hori nabarmen jaitsi da, 2012tik ehuneko batekoa baino txikiagokoa izateraino.

2013an, Gobernuako departamentuek eta haien erakunde autonomoek guztira 261 kontratu igorri zituzten **Kontratuen Erregistrora**, 79,84 milioi euroko esleipen-kopuruarekin. Aurreko kontratuen xehetasunak, esleipen-motaren eta -prozeduraren arabera, honako tauletan islatzen da (euroak, milakotan):

Kontratu mota	Kopurua	Zenbatekoa
Obrak	37	15.882
Hornidurak	60	7.174
Laguntza	161	56.779
Zerbitzu-emakidak.	3	9
Guztira	261	79.844

Prozedura	Kopurua	Zenbatekoa
Irekia	101	45.898
Publizitaterik gabe negoziatua	154	31.597
Mugatua	6	2.349
Guztira	261	79.844

Arlo honetan egindako lana hurrengo ekintza hauetan osatu da:

VII.10.1. Inbertsio garrantzitsuen jarraipena

Atal honetan, Ganbera honen aurreko txostenean xehakatu genuen inbertsio hauen multzoaren gaineko azterketa osatu eta gaurkotu dugu.

A-12/A-68/AP-68 lotura.

2007ko apirilean, Nafarroako Gobernuak Bideko Autobiaren(A-12) eraikuntza amaitu zuen. Haren ustiaketa, berriz, itzaleko bidesariaren formularen bitartez eginen zen.

2009ko urtarrilean, Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten aipatutako A-12aren, etorkizuneko A-68aren eta Autopista Vasco-Aragonesa (AP-68) delakoaren arteko loturarako obrak egiteko.

Hitzarmenean jasotako jarduketak bi eraikuntza-proiektu desberdini dagozkie. Lehenengoa, AP-68 autobidea etorkizuneko A-68arekin lotzea da; obrak eta desjabetzeak direla-eta kalkulaturako guztizko kostua 12,08 milioi eurokoa da, eta Sustapen Ministerioak finantzatzen du guztiz. Bigarrenak, berriz, aurreikusten du Bideko Autobia (A-12) etorkizuneko A-68 autobiarekin lotzea, eta esleitutako obren kostua 71,3 milioi eurokoa da (BEZa barne). Zenbateko horretatik, Nafarroak 18,03 milioi euro jarriko ditu, eta gainerako 53,30 milioiak, berriz, gobernu zentralak ordainduko ditu; aurreikusi diren desjabetzeek 2,62 milioioiak dira, eta kopuru horretatik Nafarroari 0,73 milioi dagozkio guztira. Obraren guztizko luzera 6,45 kilometrokoa da. Horietatik, 1,8 kilometro Nafarroan daude.

Obrak honela eginen dira: Sustapen Ministerioako Errepideen Administrazio orokorra obrak kontratatzeaz eta zuzentzeaz arduratuko da, eta behar diren desjabetzeak eginen ditu Errioxako Autonomia Erkidegoaren lurraldeari dagozkion obrak exekutatzeko. Bestalde, Nafarroako Gobernuak, bere obra-zatia finantzatzeaz gainera, foru erkidegoari dagozkion desjabetzeak hartuko ditu bere gain.

Obren gastuak ordaintzeko, Nafarroan egindako obren ziurtagiriak eskuratu zizkion Nafarroako Gobernuak Ministerioari.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa izanen da bere lurraldean egindako bidezpiegituraren titularrak, eta azpiegitura hori Nafarroako errepideen sarean sartuko da, obrak zerbitzuan jartzen diren unetik aurrera.

Obra amaitzeko hasierako aurreikuspenetan 2011ko abuztua aipatzen zen. Hala eta guztiz ere, obra nabarmen mantsotu da Estatuko eta Nafarroako aurrekontuetan ondoz ondo kreditu-gutxipenak egin direlako, halako moduz non, azkeneko aldaketaren ondoren, epea 2015era arte luzatu baita.

2013an egindako jarduketei buruz, eta aurreko ekitaldietako kontuei buruzko txostenean adierazitakoaren osagarri, honakoa esan behar dugu:

- 2013ko ekainean, obren 1. aldaketaren emaitza gisa, obraren guztizko zenbatekoa doitu zen²⁶, eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren ekarpena, Hartara, jo zen aipatutako obra egitearen guztizko kostua 80,28 milioikoa dela. Kopuru horretatik, Nafarroako Gobernuak 20,30 milioi finantzatuko ditu guztira; hau da, guztizkoaren ehuneko 25,29.

- 2013ko abenduaren 31ra arte, obra horren exekuzioak 13,75 milioi euroko gastua ekarri dio, guztira, Nafarroako Gobernuari, honako taularen arabera:

A-12/A-68 lotura	2010	2011	2012	2013	Guztira
Desjabetzeak eta beste	1.278.269	13.037	16.880	10.448	1.318.634
Eraikuntza	1.807.637	2.863.403	1.565.433	6.198.420	12.434.893
Guztira	3.085.906	2.876.440	1.582.313	6.208.868	13.753.527

Hau da, Nafarroako Gobernuaren gastua 6,21 milioikoa izan da 2013an. Kopuru hori, ia guztiz, bat dator obren ordainketarekin, aurrekizutako hilez hileko 12 ziurtagirien arabera. Zenbateko hori bat dator ekitaldi horretarako aurreikusitako urteko ordainketarekin, aldatutako hitzarmenean xedatuaren arabera.

2013ko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuak obren exekuziorako ekarpenaren ehuneko 61 egin du.

- 2013ko amaieran, obren egoera, jarraipen batzordearen arabera, honakoa da:

a) A-12a A-68a lotzeko obren ehuneko 44,71 dago egina (2012an, ehuneko 24,35 eginda zegoen), eta Nafarroari dagokion zatiaren ehuneko 57,91 dago egina.

b) Aurreikusita dago aipatutako lanak 2015ko apirilaren 30erako amaituta egotea.

c) AP-68a eta A-68a lotzeko obrak, 2010eko apiriletik geratuta daude. Bi aldeak ados jarrita amaitu zen obretarako kontratua; gaur egun beste lizitazio egin beharra dago.

“Reyno de Navarra Arena” erabilera anitzeko kiroldegia

Arena kiroldegia lehentasunezko jarduketa bat zen Nafarroa 2012 Planaren barruan, eta 65,6 milioiko aurrekontua du aurreikusita. Hasiera batean, obra 2011ko lehenengo hiruhilekoan amaitzea aurreikusi zen.

Proiektu osoa, obrei eta ekipamenduari dagokienez, zazpi lotetan azpi-zatitua dago, SPRINi egindako enkarguaz gainera, non kudeaketa-gastu eta -kontratu guztiak, koordinazio-lanak eta laguntza teknikoa sartzen baitziren.

²⁶ Lehenago obren kostua doitu zen, esleipenetan 2010ean izandako bajengatik eta 2010eko eta 2012ko BEZak gora egin zuelako.

Nafarroako Erresuma kiroldogiko loteak
SPRINI egindako enkargua
1. lotea: Eraistea eta kiroldogaren I. fasea
2. lotea: Harmailak eta plataforma
3. lotea: Urbanizazioa eta kiroldogaren II. fasea
4. lotea: Bideo-markagailuak Lizitazioa eta exekuzioa
5. lotea: Afororako gortinak eta sareak Lizitazioa eta exekuzioa
6. lotea: Federazioen eraikina eta akabera-lanak Lizitazioa eta exekuzioa
7. lotea: Bestelako ekipamenduak Lizitazioa eta exekuzioa

Aurreko kontuei buruzko txostenetan jasotako informazioaren osagarri, honako alderdiak adierazi behar ditugu:

- Esleitutako kontratuen egoera honako taula honetan azaltzen da:

Kontratua	Esleipen data	Esleitutako aurrekontua	Gastua 2013-12-31n	Egungo egoera
SPRINI egindako enkargua, kiroldogiko urbanizazio eta exekuzio lanen kudeaketa (1)	2009/05/07	3.441.519	2.920.582	2011/10/24an amaitu zen
Kiroldogiko proiektua diseinatu, exekutatu, garatu eta kudeatzeko aholkularitza (2)	2008/06/24	612.480	408.928	Nafarroako Gobernuak subrogatua 2011-10-24an
Eraikuntza proiektua, ekipamendu-proiektua eta obraren zuzendaritza (2)	2008/12/11	2.030.000	1.060.637	Nafarroako Gobernuak subrogatua 2011-10-24an
Urbanizazio- eta eraikuntza-obren segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa (2)	2009/08/20	151.158	36.927	Nafarroako Gobernuak subrogatua 2011-10-24an
Laguntza teknikoa, honaino			4.427.074	
Eraispen-proiektuko obrak eta I. faseko eraikuntza-proiektua (1. lotea)	2009/08/07	12.642.676	13.008.110	2009-09-07an hasia 2011-07-04an jaso
Plataforma, harmailak eta eserlekuak diseinatu, fabrikatu eta muntatzea (2. lotea)	2009/11/20	10.322.840	10.980.008	2010-07-19an hasia 2011-06-20an berriz hasia 2013-04-26an jaso
Eraispen-proiektuko obrak eta I. faseko eraikuntza-proiektua (3. lotea)	2010/05/11	28.236.326	29.793.666	2010-06-10ean hasia Kiroldogaren harrera eta urbanizazioa, 2013-05-29
Azpi-estazio transformatzailea eta beste osatu behar direnak			470.788	
Obrak, honaino			54.252.572	
Kiroldogia, guztira, 2013-12-31n			58.679.646	

(1) Enkargu horrek laguntza teknikoko gastuak ere hartzen ditu, azkendu bitarte.

(2) Kontratu horien gastua Nafarroako Gobernuak subrogatzen den unetik hasten da.

Ikus daitekeen bezala, esleitutako obra-kontratuak 2011 eta 2013 bitarte jaso dira. Hiru loteetan jasotako obrak amaitu dira. Laguntza kontratuak oraindik ere indarrean jarraitzen dute, zeren eta pabilioa eraikitze eta ekipatzeko prozesu osoa hartzen baitzuten. Halere, haien indarraldia 2013an amaitzen da, teorikoki.

2013ko abenduaren 31ra arte bete den gastua aztertuta, honakoa nabarmendu behar dugu:

a) Laguntza teknikoko kontratuetan 0,86 milioi egiten duten gastuak sartu dira (erresulta gisa). Gastu horiek kontratuak 2011tik 2013ra luzatzeak eragindako kalteen erreklamazioari dagozkio –proiektua 2011n amaitzea aurreikusita baitzegoen–. Azkenik, 2014ko maiatzean, erreklamazioak ebatzi dira, eta aurrez aipatutakoa baino kopuru txikiagoa atera da –0,79 milioi–.

b) II. loteko kontratuan 282.782 euro egiten duten gastuak sartu dira. Muntaketa fasearen etetea eta hartan gertatutako atzerapenak eragindako aparteko gastuen erreklamazioari dagozkio. Enpresak likidazio horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen. Azkenik, 2014ko apirilean, errekurtsio hori ebatzi egin zen, eta aurreko kopuruari 1.223 euro gehitu zitzaizkion.

c) III. lotearen barruan, urbanizazioak berak sortutako gastua -4,11 milioi- Iruñeko Udaleko Hiri-gintza Gerentziak Gobernuari itzuli behar dio, bere garaian Nafarroako Kirolaren Institutuarekin egin zuen akordioaren arabera. 2013ko abenduaren 31n, 4,09 milioi itzuli dira guztira.

- 2013an, azpiegitura horrek honako aurrekontu-betetzea ageri du:

Nafarroako Erresuma kiroldegia 2013ko kontusailak	Kapitulua	Hasierako kreditua	Bateratua	Betebeharrak
Kiroldegiaren mantentzea eta funtzionamendua	2	-	274.668	153.512
Kiroldegiko inbertsioa	6	10.000.000	8.199.469	8.058.597
Guztira		10.000.000	8.474.137	8.212.109

Ia ehuneko 97ko betetzea dago, beraz. Halaber, nabarmendu behar dugu 2013ko aurrekontua aldatzen dela, eta, lehenengo aldiz, kontusail bat sartzen dela kiroldegiko mantentze- eta funtzionamendu-gastuak finantzatzeko, obra jasotzen denetik; kontzeptu horiek direla eta, 2013an 153.512 euro gastatu dira. Hona xehetasunak:

Reyno de Navarra kiroldegia. Mantentze-gastuak.	2013
Gasa	482
Ura	1.829
Elektrizitatea	44.916
Zaintza.	100.506
Bestelakoak	5.779
Guztira	153.512

- Obren guztizko gastua, 2009an hasi zirenetik 2013ko itxierara arte, 58,68 milioi eurokoak dira, eta honako xehetasunak daukate:

Nafarroako Erresuma kiroldegia	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Laguntza teknikoa	1.803.907	870.873	475.351	289.978	986.966	4.427.074
Obra eta beste gastu batzuk	2.914.315	12.767.149	21.811.650	9.687.826	7.071.631	54.252.572
Guztira	4.718.221	13.638.023	22.287.001	9.977.804	8.058.597	58.679.646

- Egungo egoera.

2013ko maiatzean, lizitatutako obra osoa jaso da, 1. 2. eta 3. loteei dagokiena.

Gainerako loteak, funtsean azpiegituraren ekipamenduari, obra osagarri txikiei, seinalezatzeari eta segurtasunaren arloko jarduketei dagozkienak, geratuta daude, eta kalkulatu da azpiegitura amaitzeko hiru milioiko finantzaketa-beharrak egonen direla. 2014ko aurrekontu-zuzkidura 0,5 milioikoa zen. Kopuru hori ez zen nahikoa egiteko zeuden obren lizitazioa egiteko. Gainera, ez da aurreikusten epe laburrean hasierako proiektuan bildutako gainerako jarduketei ekitea. Horien artean daude, kirol federazioetarako eraikina edo Nafarroako kirolaren museoa.

Gaur egun, Nafarroako Kirolaren Institutuak behar diren kontserbazio- eta mantentze-lanak egiten ditu eraikina erabiltzeko egoera egokian egon dadin. Jarduketa horien artean dago instalazioak zaintzea eta kiroldegia egunero irekitzea eta gutxienezko funtzionamendua izatea, obren eta instalazioen gaineko bermeen betekizunak betetze aldera.

Eraikinaren eta instalazioen mantentze-lan hori 2013an (maiatzaren amaieran obra jaso zenetik) eraikuntza-enpresak berak egin du, Institutuko langileei prestakuntza ematen zitzaien bitartean. 2014tik Institutuko langileek egiten dute lan hori.

Abiadura Handiko Trenaren lanak

2012ko kontu orokorrean buruzko txostenean, azterketa oso bat egin zen azpiegitura horren egoerari eta perspektibei buruz. Txosten honetan lehenengo txosten hartan deskribatu genuen egoeran antzemandako aldaketei baizik ez diegu erreparatuko, bai eta urtean zehar egindako obrei ere.

- Estatu/ADIFekiko negoziazioek jarraitzen dute, 2010ean izenpetutako lankidetzaz hitzarmenean jaso gabeko gai nagusiei konponbide bat emateko (Nafarroako tartea hegoaldearekin eta iparraldearekin lotzea, Ebro ibaiaren gaineko biaduktua, eraikuntza-kostuen gaurkotzea, jarduketan programazio berria...).
- 2013an, ez da inongo kontraturik esleitu; indarrean jarraitzen dute 2012ko txostenen aipaturakoak.
- 2013an, hiru enkargu egin zaizkie Tracasa eta Ganasa sozietate publikoei, laguntza teknikoko lan batzuk egiteko eta desjabetzeen kudeaketarako. Laburbilduz, 2013ra arte, honakoak dira sozietate horiei egindako urteko enkarguen xehetasun nagusiak (zenbatekoak, BEZik gabe):

Sozietate publikoa	Mandatuaren deskribapena	Data	Zenbatekoa
TRACASA	AHTrako Nafarroako korridorearen kartografia	2009-09-25	250.223
	Afekzioak eta katastro-identifikazioa	2011-02-21	66.939
	AHTaren katastro-identifikazioa, 2012	2012-04-27	68.941
	AHTaren katastro-identifikazioa, 2013	2013-02-15	68.941
	Castejón-Cadreita tarteko desjabetzeen izapidetzea	2012-03-09	196.798
<i>Tracasaren honainoko guztia</i>			651.842
GANASA	A.T. Ingurumena, AHT 2012	2012-12-21	101.623
	A.T. Ingurumena, AHT 2013	2013-02-15	61.955
	A.T. Ingurumena, AHT 2014	2013-12-11	59.149
<i>Ganasaren honainoko guztia</i>			222.727
AHTaren mandatuak, guztira			874.569

• 2013ko aurrekontua eta gastua 2013ko aurrekontuan, azpiegitura honetarako jasota dago guztira 68,5 milioiko hasierako kredituak egotea; kopuru hori inolako aurrekontu-aldaketarik izan ez duten honako kontusailetan banatzen da:

- a) AHTrako lurren desjabetzea: sei milioiko hasierako kreditua dauka.
- b) Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako korridorea egitea: 57,48 milioi.
- c) Abiadura Handiko Trenbidearen obra-zuzendaritza: 2 milioiko zuzkidura dauka.

Gainera, aurreko txostenetan esaten zen bezala, Segurtasunaren eta Osasunaren arloko laguntza teknikoan egindako gastua Departamentuaren kontusail orokor batean erregistratzen da, eta urtero kalkulatzen da hartatik zein parte dagokien AHTaren obrei.

2013ko abenduan, aitortutako gastuak 29,32 milioi egiten du, honako taula honen arabera:

AHTren lanak	Gastua 2013
Desjabetzeak	3.098.573
Eraikuntza	25.342.449
Laguntza teknikoa (proiektua, obra zuzendaritza eta beste)	721.844
Laguntza teknikoa (segurtasuna eta osasuna)	161.176
AHTa 2013an, guztira	29.324.042

Horrenbestez, betetze-maila orokorra ehuneko 43 ingurukoa da. Estatu/ADIFekin sinatutako itunaren arabera, 2013ko ekitaldirako aurreikusi den urteko ordainketa 139 milioikoa zen 2013an.

2013ko eraikuntza-gastuak Cadreita-Villafranca (13,65 milioi) eta Castejón-Cadreita (11,69 milioi) azpi-tartean 12 obra-ziurtagiriei dagozkie; desjabetzeak, funtsean Castejón-Cadreita tarteari dagozkio.

• 2013ko abenduaren 31n, azpiegitura horren gastua –desjabetzeak, eraikuntza eta laguntza teknikoak– honakoa izan da:

AHTren lanak	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Desjabetzeak			436.837	4.336.906	3.098.573	7.872.316
Eraikuntza			161.234	11.887.883	25.342.449	37.391.567
Proiektuak, obra-zuzendaritza eta bestelako laguntza teknikoak	228.100	5.050.529	757.468	1.061.831	883.020	7.980.947
Guztira	228.100	5.050.529	1.355.539	17.286.620	29.324.042	53.244.830
Hitzarmenean aurreikusitako urteko ordainketen kopurua			43.250.000	134.000.000	139.000.000	316.250.000

2013ra arteko guztizko gastua 53,24 milioikoa da, hau da, obra osorako aurreikusitako guztizkoaren —387,65 milioi— ehuneko 14. 2013ko abenduaren 31ra arte, inbertsio honek 263 milioi gutxiagoko gastua izan du aurreikusitakoa baino.

Gogora dezagun ezen, hitzarmenean ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak egin-dako trenbide-azpiegiturako inbertsio-gastuak, ADIFI egotziko zaizkiola, eta ez Nafarroako Foru Komunitateari. Horrenbestez, Kontabilitate Nazionalaren terminoetan foru erkidegoak daukan defizitak ez du nozituko aipatutako inbertsio-gastua.

- Obren finantzaketa. Nafarroako Foru Komunitaterako 2012-2014 urteetarako aurrekontua berrorekatzeko planean, aurreikusita zegoen Gobernuak zorpetze eragiketak egitea hitzartutako obren aurrerapena finantzatzeko, Estatuak (ADIF) haren diru-zenbatekoa itzultzen duen arte. Zorpetzearen aurreikuspenak, milioitan, honakoak ziren:

AHTren lanak	2011	2012	2013	2014
AHTaren finantzaketaren aurrerapena	43,3	134	129,1	45,7

2013an, obra horretarako zorpetze bat eskatzen da, 68,5 milioikoa. Kopuru horretatik, haren finantzaketari guztira 29 milioi egotzen zaizkio, eta jotzen da gainerako zenbatekoa Nafarroako Gobernuaren zorpetze handiagoari dagokiola.

Bestalde, Estatuarekin sinatutako itunaren arabera, ADIF entitateak konpromisoa hartzen du Nafarroako Gobernuak AHTrako aurreratu dituen zenbatekoen guztizkoa itzultzeko, honako egutegiari jarraituz (milioitan):

AHT-Nafarroa	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
ADIFen itzulketa	10	25,65	30	170	152	387,65

2013ko abenduaren 31n, ez da aitortu ADIFek Nafarroako Gobernuari inongo itzulketarik egin dionik azpiegitura honetan egindako gastu-aurrerakinarengatik.

Gastu horiek itzultzeko, Nafarroako Gobernuak ordaindutako obra-ziurtagiriak aurkezten dira Hitzarmenaren beraren jarraipenerako eraturako azpibatzerde tekniko batek ados dagoen ala ez adieraz dezan. 2011ko maiatzean, azpibatzerde horrek adierazten du ados dagoela Gobernuak 2009ko eta 2010eko ekitaldiak direla-eta ordaindutako ziurtagiriek; 2014ko martxoan, 2011koen eta 2012koen adostasuna adierazten da. Azken batean, azpibatzerdeak 23,54 milioi kontratatu ditu guztira. Nafarroako Gobernuak kopuru hori aitortu du 2014ko aurrekontuan, eta ia guztiz kobratu da.

Gaur egun, azpibatzerdea 2013ko ziurtagiriak aztertzen ari da; 29,32 milioi egiten dute.

- AHTren lanen egungo egoera.

AHTren Nafarroako korridorea hainbat tartetan xehakatuta dago. Honakoa da haien egoera 2013ko abenduaren 31n:

Castejón-Ezkizotz tartea	2013ko abenduaren 31ko egoera
1. Castejón-Alesbes	Obretan
Cadreita -Villafranca azpitartea	Ehuneko 82 exekutatu dira (1)
Castejón-Cadreita azpitartea	Ehuneko 41 exekutatu dira (2)
2. Alesbes-Erriberri	ADIFek oinarrizko proiektua onetsi du eta informazio publikoko al-dian dago
3. Erriberri-Tafalla	ADIFek oinarrizko proiektua onetsi du eta informazio publikoko al-dian dago
4. Tafalla-Artederreta	ADIFek oinarrizko proiektua onesteko zain dago
5. Artederreta-Ezkizotz	ADIFek oinarrizko proiektua onesteko zain dago

(1) 2014an amaitzea aurreikusi da

(2) 2015ean amaitzea aurreikusi da

2013ko irailean, Madrilgo Auzitegi Nagusiaren epai bat ezagutu da, Iruña-Castejón tarteari eta Iruñeko kiribilguneari buruz Sustapen Ministerioak egindako ingurumen-eraginaren adierazpenaren indaraldia baliogabetzen duena. Epai horren aurkako kasazio-errekurtsoa aurkeztu da Auzitegi Nagusian, eta haren epaiaren zain gaude.

Azkenik, 2014an, aipatu behar dugu maiatzean jada Cadreita-Villafranca azpitarteko obrak amaitu direla, eta ADIFek obra horiek jasotzeko zain gaudela; obretan zegoen beste azpitartekak ehuneko 54ko exekuzioa du. ADIF, bestalde, Zaragozatik Tuteraraino doan tartearen proiektuak eta Tuteratik Castejonera doan tartearen informazio-azterlana egiten ari da.

Halaber, 2014ko uztailaren 25ean, EAOk ADIFen ebazpen bat argitaratu zuen, zeinaren bidez lizitazio bat iragartzen baita, prozedura irekiz eta esleipenerako zenbait irizpiderekin. Honakoa da kontratuaren izenburua: *Kantauri aldea eta Mediterraneoan lotzeko abiadura handiko korridorearen plataformarako proiektua idazteko zerbitzua. Tartea: Zaragoza-Altsasu linea konbentzionala lotzea Castejón-Iruñerria abiadura handiko linearekin*. Kontraturako kalkulatu den zenbatekoa 589.684,71 eurokoa da, eta exekuzio-epea, berriz, 18 hilabetekoa.

0 deitutako tartea da, zeinaren xedea baita jarraitutasuna ematea Castejón-Iruña abiadura handiko lineari, horren trazadura lotuz, Castejón-Villafranca azpitartearen parean, Zaragoza eta Altsasu artean lehendik dagoen linea konbentzionalarekin. Kontratuak jasotzen du aukerei buruzko alde aurretiko azterlana egitea, bai eta oinarrizko proiektua eta eraikuntza-proiektua ere. Egungo linearen barruan egin beharreko jarduketak bilduko dira, zeinek aukera emanen baitute lotura hori egiteko hautatzen den moduaren arabera: zabalera aldatzeko aldagailua jartzea, hirugarren erreia eta abar. Halaber, zenbait konponbide tekniko-ekonomiko planteatuko dira Ebro ibaia gainditzeko biaduktu bat egiteko.

VII.10.2. Kontratu-lagin baten azterketa.

2013an esleitutako honako kontratazio-espeditentak fiskalizatu ditugu: (BEZik gabeko zenbatekoak)

Kontratuak	Prozedura	Esleipen data	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe	Amaierako exekuzioaren zenbatekoa
Belateko lubetako obrak	Zuzenekoa-Larrialdikoa	2013 apirila	-	1	939.190	1.193.741
Agoizko zentroko zoladurak sendotzeko obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti/eskainitako prezioa	2013 urria	1.200.702	5	1.200.702	1.198.281
Tafallako zentroko zoladurak sendotzeko obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti/eskainitako prezioa	2013 urria	1.579.672	6	1.579.672	1.579.657

Gainera, 2013an gastua aztertu da, bai "Nafarroako Zerga Ogasuneko korporazio-zerbitzuen aplikazioak mantentze eta gaurkotzea" kontratutik²⁷ heldu dena, 1,4 milioi egiten duena, bai "Herri Lan Zuzendari-tza Nagusiko prezioen berrikuspena" kontusailarena, 0,79 milioi egiten duena.

Oro har, **2013an izapidetu ziren kontratazio-espeditentak** esleitu eta exekutatu ziren kontratuei buruzko legediaren arabera eta haietatik heldu diren gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude. Datu horiek guztiak aztertuta, honako hauek dira aipagarri:

- Belateko lubeta. Larrialdiko egoeraren justifikazioak arrazoizkoa dirudi: istripuak gertatzeko arrisku handia, zeren eta Belateko tunelerako sarbidea itxi behar izan baita, euriteek eragindako luzien ondorioz, eta trafikoa Belateko portu zaharretik desbideratu behar izan baita. Lana eskualde horretako errepideen kontserbazioaz arduratzen den enpresari esleitu zaio. Esleipen-zenbatekoan gertatu den igoera heldu da bai hura, hasiera batean, kalkulatu gisa finkatu izatetik, bai kontratuaren exekuzioa bitartean eurite gogorak eta luiziak gertatu izatetik; arrazoi horiek, izan ere, hainbat lan gehigarri eta osagarri eragin zituen.

- Agoizko eta Tafallako erdiguneetako errepideen kontserbazio jarduketan arrazoia, aurreko obren kasuan bezalaxe, 2013ko lehen lauhilekoan izandako eurite eta elurteak dira, zeinek kalte garrantzitsuak eragin baitzituzten errepide-sarean²⁸. Bi kontratu horiek direla-eta egindako azterketatik, honako aipatu behar dugu:

a) Esleipen-irizpide gisa aplikatu zen soilik eskainitako prezioarena, zeina "merkatze-ehuneko bakarria izanen baitu, proiektuko prezio guztiei aplikatzekoa zaiena". Hau da, ez zen guztizko kopuru bat eskaini kasuko proiekturako, baizik eta merkatze-ehuneko bat, aipatutako proiektuak jasotzen dituen prezio unitarioei aplikatu beharrekoa. Hartara, Agoizko eta Tafallako erdiguneetarako, ehuneko 23,41eko eta ehuneko 27,85 merkatzeak eskaini ziren, hurrenez hurren, kasuko proiektuen prezioen gainean, betiere aurreikusitako gehieneko gastua errespetatuta.

b) Horren emaitza da esleipenaren zenbatekoa lizitazio-zenbatekoarekin edo gehieneko gastuarekin bat datorrela.

Azken batean, lizitaziora atera zena da obra-unitateen gutxi gorabeherako kopuru bat egitea – Administrazioak zehaztuko du gero–, esleipen prozesuan finkatutako prezio unitario baten truke –hau da, dagokion merkatzearekin– lizitazio-gastuaren gehieneko zenbatekoa iristeraino. Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, amaieran likidatu zen zenbatekoa bat dator ia lizitazio- eta esleipen-zenbatekoarekin.

2010ean esleitu zen "Nafarroako Zerga Ogasuneko korporazio-zerbitzuetako aplikazioen mantentzea eta gaurkotzea" kontratua. Honako ezaugarriak zituen (BEZik gabeko zenbatekoak).

Kontratua	Prozedura	Kontratuaren iraupena	Urteba-koitzeko kalkulatu-tako balioa	Esleipen data	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe 2011	Merkatzea (%)	Gastua 2013
A.T. NZOko aplikazioen mantentzea eta gaurkotzea	Irekia, Europako mugatik gaindi / eskaintzarik onena	Urtebete, gehi luzapen gisako beste hiru	1.016.949	2010eko abendua	1	977.172	3,91	1.122.264

Bai esleipen prozedura, bai haren exekuzioa aztertu dira, 2013ra bitartekoak. Azterketa horretatik, honakoa adierazi behar dugu:

a) Orriek ez dute behar beste definitzen kontratuaren xedea, zeren eta mugatzen baitira deskribatzen zein diren bete beharreko eginkizunak eta zein beharkizun tekniko bete behar dituzten zerbitzu horietan diharduten langileek. Ez da ezartzen, ezta ere, sistemarik balizko lizitatzailleek eman beharreko zerbitzua zehatz dezaten.

²⁷ 2010ean esleitutako kontratua da.

²⁸ Departamentuak egindako azterlanen arabera, guztira 56 errepide eta 151 azpiegitura ukitu ziren, eta afekzio eta kalte larriak izan zituzten. Konponketa-lan horien guztizko kostua 17,78 milioikoa izan zen.

b) Soilik eskaintza bat aurkezten da, zeina zerbitzu horiek 1995etik ematen dituen enpresarena baita. Horrenbestez, ikusten da Administrazioarentzat nolabaiteko arriskua dagoela, mendetasun hori dela eta.

c) Enpresaren eskaintzan sartzen da prestazioaren kostu finko bat, eta harekin batera eranskin bat, non zehazten baita zein langilek jardunen duten eta zenbat ordu eta ordu bakoitzeko zenbateko prezioan lan egingen den. Zerbitzuaren fakturazioa egiten da esleipen-hartzailearen eskaintzan eta fakturretan baizik jasota ez dauden zehaztapenen arabera.

Azken batean, esleitzen dena da lan batzuk egitea eskainitako ordu kopuruan eta eskainitako prezioan, esleipen-aurrekontuan ezarritako mugarekin. Kontratua urtero luzatzen da, legezko beharkizunak beteta, baina jarraitzen dugu ikusten eman beharreko zerbitzuak zehaztu gabe daudela, ikusita, gainera, ondoz ondoko luzapenetan jasotako ordu kopuruak gora egiten duela.

Kontratu horren jarraipen- eta kontrol-txostenen eta haren fakturazioaren arabera, fakturatutako lan guztiak aurrez esleipen-hartzaileari eskatu zaizkio, esleipen-hartzaileak aurrekontua egin du, ardura-dun publikoek aurrekontu hori onetsi dute eta zenbateko horren arabera fakturatu dira.

Herri Lan Zuzendaritza Nagusiaren "**Prezioen berrikuspena**" kontusailak 0,79 milioiko gastua dauka; 2012an, berriz, 5,18 milioiko gastua izan zuen. Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera, obra-kontratuetan berrikuspena egingen da esleipenetik urtebete baino gehiago iragan denean eta gutxienez ere zenbatekoaren ehuneko 20 bete denean; berrikuspen horiei likidatuko dira, prezioen adierazle ofizialen arabera, ziurtagiri eta ordainketa partzialetan edo, kasu berezietan, amaierako ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan. Gai horri dagokionez, honakoa nabarmentzen dugu:

a) Kontabilitate-tratamendua obra-kontratuaren gastu bera islatzen duenaz beste kontusail batean egiten da, eta horrek, berrikuspenaren kudeaketa erraz badezake ere, gardentasuna zailtzen du obraren gutzizko gastua finkatzeko orduan.

b) Prezio-berrikuspenen bidezko likidazioak urtean behin edo bitan egiten dira, ziurtagiri partzial guztietan aplikatu beharrean, araudiak dioen bezala; irizpide hori justifikatzen da prezioen adierazle ofizialak argitaratzerakoan dagoen atzerapen handiarengatik.

Horrenbestez, inbertsio-gastuei dagokienez, adierazi behar dugu ezen, aurreko urteko txostenean aipatzen zen bezala, haien gauzatzeak honako baldintzak bete behar dituela:

- Oparotasun ekonomikoko garaietan diseinatu eta hasitako inbertsioak, amaitu behar direnak, nahiz eta horietako bakarren baten gainean arrazoizko zalantzak daude funtzionamenduan jartzeko egokitasunari buruz.

- Estatuarekin koordinatuta planifikatutako eta exekutatutako inbertsioak, zeinetan atzerapenak baitaude Estatuaren aldetik, bai eta haien diseinu eta gauzatzeari buruzko zalantzak ere.

2013an, inbertsio horiek 6. kapituluko aurrekontu-gastuaren ehuneko 35 hartzen dute, gutxienez. Kapitulu gainerakoa urte anitzeko beste konpromiso batzuetarako da, eta jarduketa berrietarako aurrekontu-tarte txikia geratzen da.

- *Gomendatzen dugu inbertsio politika aztertzea egungo krisi ekonomiko eta aurrekontukoaren testuinguruaren barruan. Horri dagokionez, komenigarria litzateke epe ertaineko inbertsio plan bat egitea, zeinak islatuko baititu lehentasunezkoetat eta bideragarritzat jotzen diren jarduketak, aurrekontu-irizpideei eta errentagarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideei erreparatuta.*

VII.11. TRIBUTUEN ARLOKO DIRU-SARRERAK ETA ZORDUNAK

VII.11.1. Alderdi orokorrak

Diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapituluaren eginen den 3. kapitulura bitarteko **aitortutako eskubide garbiek** honako betetzea ageri dute 2013an, 2012koarekin alderatuta (euroak, milakotan):

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak, 2012	Aitortutako eskubide garbiak, 2013	Aldearen ehunekoak, 2013/2012
PFEZa	1.132.106	1.079.890	-5
Sozietateak	196.909	166.734	-15
Egoiliar ez direnen errenta	6.012	6.739	12
Ondarea	36.524	54.528	49
Oinordetzak eta dohaintzak	48.979	90.662	85
Saltoki handiak	-	1.298	-
Energia elektrikoaren ekoizpena	-	23.249	-
1. Zuzeneko zergak	1.420.530	1.423.100	0,18
BEZa	1.049.975	985.663	-6
Berariazko kontsumoen gainean	399.489	476.212	19
Aseguru primen gaineko zerga	21.771	20.386	-6
Ondare eskualdaketak.	28.773	27.679	-4
Egintza juridiko dokumentatuak	15.371	12.128	-21
2. Zeharkako zergak	1.515.379	1.522.068	0,44
Tasa fiskalak	13.128	11.401	-13
Salneurri publikoak.	47.056	48.192	2
Ondasunak saltzea	1.768	1.786	1
Eragiketen itzulketak	25.837	12.578	-51
Bestelako diru-sarrerak	58.017	56.928	-2
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrera batzuk	145.806	130.885	-10
Zerga bidezko diru-sarrerak, guztira	3.081.715	3.076.053	-0,2


Datu horiek aztertuta, honako nabarmendu behar dugu:

- 2012arekin alderatuta, zergengatik aitortutako eskubideek ia berdin jarraitzen dute; tasek, ordea, ehuneko hamar egin dute behera.
- Hiru zerga-figura handietan –PFEZa, Sozietateen gaineko zerga eta BEZa–, berriz, eskubideek behera egin dute, eta horrek ekarri du 2012an baino 146 milioi gutxiago biltzea.
- Zuzeneko zergen barruan, nabarmentzekoa da oinordetzen gaineko zergaren igoera –41,7 milioi, hau da, ehuneko 85eko igoera–, ondarearen gainekoaren igoera –ehuneko 49 gehiago, hau da, 18 milioi gehiago– eta saltoki handien gaineko eta energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga figura berrien aplikazioa, zeinak 2013an 24,5 milioiko diru-sarrerak ekarri baititu.
- Oinordetzen gainekoz ergaren ehuneko 85eko igoera justifikatzen da, funtsean, aitortu gabeko herentzien gainean izandako jarduketetan eta munta handiko aitortpenak egotean.
- BEZaren eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien zenbatekoak honakoak ukituta daude: Hiztarmenean 2013rako onetsitako egozpenaren irizpide-aldaketa (ikus VII.9 atala), zeinak urteko ekitaldiko likidazioaren gaineko aurrerakin bat biltzen baitu, 200,31 milioikoa.

- BEZari dagokionez, hurrengo taulan xehakutzen dugu haren zenbatekoa (milaka eurotan adierazia), bere kudeaketa-moduari erreparatuta: Foru Ogasunaren bidezko zuzeneko kudeaketa eta Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren bitartekoa.

Aitortutako BEZa	2011		2012		2013	
	Zenbatekoa	Ehuneko	Zenbatekoa	Ehuneko	Zenbatekoa	Ehuneko
Zuzeneko kudeaketa	937.005	85	566.705	54	338.896	34
Hitzarmenaren doitzea	171.155	15	483.270	46	646.767	66
BEZa, guztira	1.108.160	100	1.049.975	100	985.663	100

Hau da, 2011n, zergaren ehuneko 85ek zuzenean Nafarroako Gobernuak kudeatzen zuen; 2013an, ordea, kudeaketa horrek ehuneko 34an baizik ez du eraginik. Hona haren irudi bidezko adierazpena.




2013ko ekitaldia da lehenengoa non urte osoan zehar BEZa kalkulatzeko metodo berria, 2012ko maiatzean onetsitakoa, aplikatu den; halaber, urte horretako likidazioaren aurrerakin bat biltzen da –140,46 milioi–. 2013an aitortutako guztizkoa aurreko urteko zenbatekoa baino 64 milioi txikiagoa da; aurrerakin hori kontuan hartu ezean, gutxitze hori 204,78 milioiokoa izanen litzateke.

- Berriazko kontsumoen gaineko zergen barruan, aipatu behar ditugu honakoetan izan diren igorak: hidrokarburoen gaineko zerga –99,5 milioi–; alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga –5,6 milioi–, eta garagardoaren gaineko zerga –4,3 milioi–. Gutxitze handienak, berriz, hidrokarburoen txikizkako salmentari buruzkoan, xedatutakoarekin, gertatu dira –17,2 milioi–, bai eta tabakoaren gainekoan ere –13,4 milioi–. Gogorarazi behar dugu Estatuarekin itundutako zerga berezietako eskubideek 2013ko likidazioaren aurrerakina biltzen dutela.

- Ondare-eskualdaketen gaineko zergak eta egintza juridiko dokumentatuen gainekoak krisialdi ekonomikoaren hasieratik antzemandako beheranzko joerarekin jarraitzen dute.

- Hurrengo taulan eta irudian erakusten da, milaka eurotan adierazia, zergengatik aitortutako eskubideek 2008tik 2013ra izan duten bilakaera:

Zergak	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Zuzeneko zergak	1.702	1.604	1.280	1.309	1.421	1.423
Zeharkako zergak	1.543	1.423	1.655	1.645	1.515	1.522



Azken batean, zuzeneko zergak 300 milioi inguru egin dute behera; zeharkako zergak, berriz, ia lehengo maila berean daude. Hori guztia alde batera utzita aldi horretan gertatu diren arau-aldaketak.

Aztertutako informazioari jarraituz, **zordunen eta hartzekodunen** kontu nagusien saldoak, 2013ko abenduaren 31ko tributu-kudeaketari lotutakoak, eta haien eta aurreko urtekoen arteko alderaketa hurrengo taulan adierazita datoz milaka eurotan adieraziak.

Zordunak	2012	2013	Aldearen %, 13/12
Zordunak: ohiko kudeaketa	135.091	125.286	-7
Geroratutako zordunak	243.637	259.083	6
Premiamendu bideko zordunak	386.901	431.600	11
Egoera berezietako zordunak	18.006	20.234	12
Bestelako zordunak	12.055	14.481	24
Sortu ez diren korrituak eta gainkarguak	(38.482)	(40.207)	6
Kobrantzak eta aplikatzeko dauden sortak	(2.417)	(1.064)	-55
Kaudimen gabeziatarako probisioa	(435.577)	(496.013)	14
Hartzekodunak	2012	2013	Aldearen %, 13/12
Tributu-zordunak. Saldo hartzekoduna	306.577	284.687	-7
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	73	137	88
Bestelako hartzekodunak	48.947	33.490	-32

Esan behar dugu kudeaketa arrunteko zordunek behera egin dutela –ehuneko zazpi–; bitartean, igoera aipagarri bat antzematen da geroratzeak dituzten zordunen kopuruan –ehuneko sei– bai eta premiamenduzko bidean daudenen kopuruan ere –ehuneko 11–. Kaudimen gabeziatarako probisioak ehuneko 14 egin du gora eta 496 milioi euroraino iristen da.

Saldo hartzekoduneko zerga-zordunak, zeinek funtsean islatzen baitituzte zerga kudeaketako zerbitzuek onetsitako zergen itzulketak, ehuneko zazpi egin dute behera.

Zergen **kontabilitate-tratamenduari** eta SAP kontabilitate-sistemaren eta hirugarrenen kontabilitate lagun-garriaren (CAT) loturari dagokionez, aurreko txosten batzuetan adierazitakoa errepikatu behar dugu, bi sistemen artean dauden disfunczioei dagokienez, zeinei, ganbera honek gomendatu izan duen bezala, presaz eman behar baitzaie konponbidea; halaber, aipatzen da zergen eta zordunen eta tributu-hartzekodunen kontabilitate-tratamendu egokirako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrak dauzkan kontu eta irizpideak beren zabaltasun guztiarekin aplikatu behar direla.

Azken batean diru-sarrerei eta zerga-zordunei buruzko ekitaldi itxierako informazioak, Nafarroako Gobernuak aurkeztuak, honakoa exijitzen du:

- CATen bidez emandako zordunei eta zerga-hartzekodunei buruzko informazioa egokitzea kontabilitate orokorreko beharretara. Horrek berarekin dakar ezen kontu orokorretan sartzen den egoera-balantzea ez duela zuzeneko euskarririk kontabilitate-sistematik ondorioztatzen egiaztapen-balantzean.

- Abiapuntutzat hartuta aurrekontu-likidazioaren diru-bilketari buruzko informazioa CATk zuzenean ematen duela, beharrezkoa da horretan zenbait estimazio-esleipen hartzea bera diru-sarreraren aurrekontu-kontzeptuei zein urteko aurrekontuari eta itxitako aurrekontuei egostera.

2012an, aurreko egoera berrikusteko prozesua hasi zen, antzemandako arazoei konponbidea emate aldera; hartara, lehenengo analisi fase bat kontratatu da, hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen egoera eta, bereziki, diru-bilketaren kudeaketa eta kontabilitate orokorrean daukan eragina aztertzeko; gero, bigarren fase gisa, edo garapen-fase gisa, konponbide tekniko egokiak bilatuko dira, dauden disfuntzioei aurre egiteko.

Ganbera honek egindako **azterketa**, funtsean, honakoan zentratu da:

- Egiaztatzea CATen erregistratutako sortzapen guztiak aurrekontu-likidaziora eta kontabilitate orokorrera aldatu direla. Egindako lanetik ondorioztatzen da prozesu hori egoki bete dela.

Egiaztapen horretan, BEZ Orokorra deitutako CATen kontroleko kontuan erregistratutako eragiketak identifikatu dira. Kontu horrek 48,5 milioiko saldoa dauka. Zerga hori dela-eta hurrengo urteko urtariletik aurrera itzulketa-eskubideren bat sor dezaketen BEZ zenbatekoak islatzen du kontu horrek.

- Egiaztatzea aurrekontu-likidazioko diru-bilketa garbia. Kontu Orokorren 2013ko aurrekontu-likidazioan islatzen den diru-bilketa garbia 37,98 milioi handiagoa da kontabilitatetik ondorioztatzen dena baino. Hori azaltzeko kontuan hartu beharra dago CATen kobrantzak kontabilitatera aldatzean, ezin direla bereizi ea haiek bat datozen urteko ekitaldiarekin ala itxitako ekitaldiekin; arazo horri konponbide teknikoa emateko zain gaudela, bereizkuntza hori eta haren aurrekontu-eragina gauzatzeko aldera, beharrezkoa da gaur egun kontabilitatez kanpoko kalkulua egitea, diru-bilketa likidoari buruzko informazioetik abiatuta.

- Zordunen eta hartzekodunen kontuak. Kontabilitate orokorraren eta CATen arteko alderaketatik, bi alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

a) "Bestelako zordunak" atalaren barruan "CAT kontabilitate lagungarrian formalizatu beharreko eragiketak" kontua sartzen da, 13,67 milioi euroko saldo zordunarekin (8,04 eta 10,40 milioi 2011n eta 2012an, hurrenez hurren): haren jatorria edo justifikazioa ezezaguna da. Zenbateko hori guztiz hornitu da.

b) "Aplikatzekoak diren kobrantza aplikatuak" kontuko "Bestelako hartzekodunak" atalak 25,14 milioiko saldoa dauka. Zenbateko hori heldu da aurretiko aitortzen ez duten kobrantzetatik. Horietan, CATk "hartutako" edo onarpen fikzioso bat sortzen baitu, zeina deuseztatzen baita aitortpena edo/eta berrikuspina jasotzen denean. Hala eta guztiz ere, 2012an, aurreko irizpide hori aldatu zen – kontabilitate publikoko plan berriari egokitzeko –, zeren eta zuzenean deuseztatu baitziren fikzioso hartutakoak, betiere haien kobrantzari helduta. Horrek esan nahi du ekitaldiko aurrekontuak ez dituela fikzioso hartutako horiek islatzen. Hartara, 2012rako eta 2013rako, honakoa izan zen irizpide-aldaketa horren eragina:

Aplikatzekoak diren kobrantza aplikatuak	2012	2013
Abenduaren 31ko saldoa	40.245.988	25.141.912

Hau da, 2012ko aurrekontuak 40,25 milioitik beherako aitortutako eskubideak aurkeztu ahal izan zirenen; 2013ko aurrekontuan, berriz, 15,10 milioitik gorako diru-sarrerak jasotzen ditu.

- 2011ko eta 2013ko BEZaren alderaketa. BEZak aipatutako bi urte horietan izan duen jokaerari buruzko ikuspegi orokorra lortze aldera alderatu eta analizatu dira bai zergadunen kopurua eta haien urteko zenbatekoa, bai aldaketak sortu duen eragina, 2012ko maiatzetik aurrera, autoen esportazioen merkaturatzeari dagokionez.

Horretarako, zuzeneko kudeaketako BEZaren CAT apunteetan zentratu gara.

a) Zergaren urteko kopuruaren tarteen arabera datuen eta zergadunen arabera datuen alderaketa (Fiza/NANa)

Tarteak	2011		2013	
	Zergadunak	Zenbatekoa	Zergadunak	Zenbatekoa
-500.000 baino gehiago	180	-423.987.267	165	-646.131.761
-100.000 eta -500.000 bitartean	337	-72.582.091	337	-72.266.563
-25.000 eta -100.000 bitartean	682	-34.044.957	723	-36.411.429
-5.000 eta -25.000 bitartean	1.282	-15.562.408	1.260	-15.136.533
0 eta -5.000 bitartean	2.039	-3.174.471	2.604	-3.579.204
Honainoko zenbateko negatiboak, guztira	4.520	-549.351.194	5.089	-773.525.490
0 eta 5000 bitartean	31.420	51.805.894	30.402	49.229.672
5.000 eta 25.000 bitartean	9.345	103.415.959	9.620	101.706.278
25.000 eta 100.000 bitartean	3.161	153.677.963	2.909	141.711.149
100.000 eta 500.000 bitartean	1.315	260.784.722	1.149	229.675.098
500.000 baino gehiago	290	905.670.957	276	636.540.652
Honainoko zenbateko positiboak, guztira	45.531	1.475.355.495	44.356	1.158.862.849
BEZa, zuzeneko diru-bilketa	50.051	926.004.301	49.445	385.337.359

Hau da, zergadunen kopuruan aldaketa txiki batekin –606 gutxiago 2013an–, zergaren oinarritzko egiturak funtsezko aldaketa bat izan du; hartara, zenbateko negatiboak ia 224 milioi handitu ziren, eta 569 subjektu pasibo gehiago zegoen; zenbateko positiboek, berriz, 316 milioi behera egin zuten, zergadun kopuru txikiago batekin : 1.175. Oro har, BEZa 541 milioi jaitsi da.

Tarteen muturretan, eta zenbateko negatiboek dagokienez, ikusten da zergadun gutxiago daudela, baina haien saldo negatiboak handiagoak direla; zenbateko positiboek tarteterako, bai kopurua, bai zenbatekoa jaitsi egin dira.

b) Bai 2011n, bai 2013an aitorpenak aurkeztu zituzten zergadunak. Bi ekitaldietan bat datoz, guztira, 39.038 zergadun, eta horien tribulazio garbia 519 milioi jaitsi da. Hona xehetasunak:

2013an eta 2011n	2011		2013	
	Zergadunak	Zenbatekoa	Zergadunak	Zenbatekoa
Zeroko saldoa edo saldo positiboa	35.972	1.343.049.841	36.064	1.034.332.751
Saldo negatiboa	3.066	-499.059.905	2.974	-709.569.616
Guztira	39.038	843.989.936	39.038	324.763.135

Hau da, saldo positiboek eta negatiboek arteko zergadunen xehakatzeko ia berarekin, zenbateko positiboak 309 milioi jaitsi dira eta negatiboek, berriz, 210 milioi egin dute gora.

c) Zergadun bakoitzak 2011n eta 2013an egin dituen aitortzen zenbatekoen arteko aldean sailkapena, tartean arabera.

2013-2011 aldearen tartea	Zergadunak	Zenbatekoa, guztira
-5 milioi baino gehiago	11	-617.574.258
-1 eta -5 milioi bitarte	63	-133.421.335
-500.000 eta -1 milioi bitarte	58	-40.535.995
-100.000 eta -500.000 bitartean	526	-111.061.477
-25.000 eta -100.000 bitartean	1.122	-56.476.432
-5.000 eta -25.000 bitartean	3.137	-34.856.712
-1.000 eta -5.000 bitartean	5.494	-13.107.719
0 eta -1.000 bitartean	8.946	-3.242.892
0 eta 1.000 bitartean	9.675	3.708.730
1.000 eta 5.000 bitartean	5.365	12.738.958
5.000 eta 10.000 bitartean	1.474	10.490.798
10.000 eta 25.000 bitartean	1.410	22.079.133
25.000 eta 50.000 bitartean	674	23.495.341
50.000 eta 100.000 bitartean	459	32.634.770
100.000 eta 250.000 bitartean	346	52.589.822
250.000 eta 500.000 bitartean	138	47.465.930
500.000 eta 1 milioi bitarte	70	48.644.223
1 eta 5 milioi bitarte	63	122.991.056
5 eta 10 milioi bitarte	3	21.371.742
10 eta 25 milioi bitarte	3	37.335.809
25 milioi baino gehiago	1	55.503.706
Guztira	39.038	-519.226.801

Bi ekitaldien artean bost milioi eurotik gorako alde negatiboa duten hamaika zordunak direla eta, honakoa aipatu behar dugu: bi kasuetan bi ekitaldietan "itzultzeko" egoera gertatzen da, aipatzeko moduko alderik gabe; bostetan, "ordaintzeko" egoeran jarraitzen dute, baina kopuruan beherakada handia dago; azkenik, lau kasu "ordaintzeko" egoeratik "itzultzeko" egoerara aldatu dira. Azken horietatik, zergadun bat nabarmendu behar dugu, zeinak 2011n guztira 243,8 milioi ordaindu zituen eta 2013an, berriz, 255,1 milioi itzuli zaizkion.

• Zuzeneko eta zeharkako zergen diru-bilketa likidoa²⁹ eta haren eta 2012ko informazioaren arteko alderaketa hurrengo taulan erakusten dugu, milaka eurotan adierazia.


Zergen diru-bilketa likidoa (euroak, milakotan)	2012	2013	Aldea (%), 13/12
PFEZa	1.118.359	1.054.885	-6
Sozietateak	201.389	194.286	-3
Zuzeneko beste zerga batzuk	89.997	176.016	196
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>1.409.745</i>	<i>1.425.188</i>	<i>1</i>
BEZ zuzeneko kudeaketa	584.389	272.704	-53
Estatuarekiko doikuntza, BEZa dela eta	483.270	646.767	34
Zuzeneko kudeaketa duten zerga bereziak	431.972	450.927	4
Estatuarekin doitu beharreko zerga bereziak	-50.703	9.273	-118
Zeharkako beste zerga batzuk	91.845	71.535	-22
<i>Zehar. zerg., guztira</i>	<i>1.540.772</i>	<i>1.451.206</i>	<i>-6</i>
Zergak, guztira	2.950.517	2.876.394	-3

2013 eta 2012 artean ehuneko hiruko –hau da, 75 milioi– beherakada garbi bat egon da diru-bilketa likidoan. Baldin eta 2013ko diru-bilketan ez baditugu kontuan hartzen Hitzarmeneko likidazioen egozketan egindako irizpide-aldaketatik heldu diren diru-sarrera gehigarriak –200,31 milioiko zenbatekoa egiten dute–, 2013ko diru-bilketa likidoa ehuneko 9 txikiagoa izanen zen –hau da, 274,4 milioi gutxiago–.

²⁹ Diru-bilketa likidotzat hartzen dira ekitaldi korronteko eta itxitako ekitaldietako eskudiruko kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken eskudiruko itzulketak eta konpentsazio-erakoak.

Zerga nagusien eta guztizkoaren diru-bilketa likidoaren bilakaera, 2009 eta 2013 artekoa, hurrengo taulan eta irudian erakusten da (euroak, milakotan):

Diru-bilketa likidoa	2009	2010	2011	2012	2013
PFEZa	1.110	1.039	1.096	1.118	1.055
Aurkibidea	100	94	99	101	95
Sozietateen gaineko zerga	410	186	211	200	194
Aurkibidea	100	45	51	49	47
BEZa	878	1.025	1.208	1.068	919
Aurkibidea	100	117	138	122	105
Zerga bereziak	402	422	440	381	460
Aurkibidea	100	105	109	95	114
Diru-bilketa likidoa, guztira	3.042	2.873	3.148	2.983	2.913
Aurkibidea	100	94	103	98	96



2013 eta 2009 bitarte, diru-bilketa likidoak ehuneko lau egin du behera; hau da, 129 milioi gutxiago daude.

Zergen arabera, sozietateen gainekoaren 2013ko diru-bilketa likidoa 2009an bildutakoaren ehuneko 47 eskas egiten du; bestalde, PFEZak ehuneko bosteko gutxipena ageri du.

BEZak ehuneko bosteko igoera badu ere, komeni da gogoratzea, besteak beste, batetik tasak bi aldiz goitik aldatu direla aztertutako aldiaren eta, bestetik, 2013an likidazioaren aurrerakina jasota dagoela; aurrerakin hori gabe, BEZaren adierazlea 82koa izanen zen 2013an.

Zerga berezietan, joera hobea da; izan ere, beren diru-bilketa likidoa ehuneko 14 igo dute; hau da, 58 milioi gehiago bildu dira.

- 2012an onura fiskaletatik heldu diren gastuak eta diru-sarrerak erregistratzeko irizpidea aldatu zen, eta halakoak ez zaizkio ez aurrekontuari, ez exekuzioari egotzi, urte horretara arte egiten zen bezala. 2013ko kontu orokorrek, aurreko urtekoek bezala, ez dute 2013ko onura fiskalen aurrekontuaren exekuzioari buruzko azterlan edo analisirik. Komenigarritzat jotzen dugu analisi hori egitea, zeren eta ez baita ahaztu behar aurreko ekitaldietako onura fiskalek diru-sarreraren aurrekontuaren ehuneko 25 inguru egin dutela.

VII.11.2. Zergen itzulketa

Zerga-diru-sarrerren itzulketetatik gehienak CATen bitartez kudeatzen dira hartutakoekin batera; informazio hori orokorrean aldatzen da aurrekontu-likidaziora, eta ezin da identifikatu aitortutako esku-bideetatik zein parte dago gutxituta egindako itzulketen eraginez. Horrek berarekin ekarri du 2013ko aurrekontuaren likidazioak, diru-sarrerren 1. kapitulutik 3. kapitulura bitartekoentzat, soilik islatzen dituela CATen bitartez kudeatzen ez diren itzulketak, zeinek 1,19 milioi egiten baitute –0,76 milioi zerga zuzenetan eta 0,43 milioi tasetan–.

CATen informazioari jarraituz, 2013an zergen itzulketek 1.461,52 milioi egin dute; horietatik, ehuneko 87 efektiboan dira eta gainerakoak konpentsazio bidez; 2012arekin alderatuta, ehuneko 34 egin dute gora. Zenbateko horretan sartzen dira Estatuak Hitzarmenaren doikuntzen ondorioz (BEZa eta zerga bereziak) egin dituen itzulketak, zeinek urte horretan 248,17 milioi egiten baitute (2012an, berriaz, 142,93 milioi izan ziren).


Hurrengo taulatan, 2011tik 2013ra CATetik kudeatutako itzulketen guztizkoak eta kontzeptu nagusien itzulketek izan duten bilakaera aztertu dugu.

Zergen itzulketak, CATen arabera	2011	2012	2013
Zenbatekoa (milakotan)	857.759	1.092.893	1.461.516
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>127</i>	<i>170</i>

Alegia, 2013tik 2011ra, zergen itzulketak ehuneko 70 hazi dira. Horrek 604 milioiko kopurua egiten du.

Hurrengo taulan eta irudian erakusten dugu haren bilakaera, figuraren/zerga-kontzeptuaren arabera:

Zerga-itzulketak	2011	2012	2013
PFEZa	234.467	246.269	255.673
Sozietateak	75.721	58.963	73.011
BEZ zuzeneko kudeaketa	439.373	633.701	874.965
Estatuaren doikuntzak	104.181	142.934	248.174



Hau da, zuzeneko kudeaketa duen BEZa da, zalantzarik gabe, itzulketa gehien eragiten duen zerga –guztizkoaren ehuneko 60 inguru– eta, gainera, hazkunde handiena izan duena –2011tik 2013ra ia bikoiztu da–.

Aztertu da ea 2012an eta 2013an eskudiruan ordaindutako BEZ itzulketak Ogasunak itzulketa egin dezan legean ezarritako sei hilabeteko gehieneko epean egin diren. Itzulketa jaso gabe sei hilabete igarota, zergadunak eskubidea izanen du, gainera, kasuko berandutza interesak jasotzeko.

Lan honen ondorio gisa, adierazi behar dugu ezen, orokorrean, 2013an aurkeztutako likidazioen gainean ordaindutako BEZ itzulketak sei hilabeteko mugaren barruan gauzatu direla; 2012ko likidazioak direla-eta ordaindutako itzulketei dagokienez, berriz, antzeman da 39 milioi egiten duten aitortetan muga hori gainditu dela; gainera, 25 milioi egiten duen aitortean bat ere hurrengo ekitaldira aldatu zen, aplikatutako ohiko epea zergadun horren kasuan gaindituta.

Zergei dagozkien berandutza-interesak, diru-bilketa zerbitzuaren arabera, 2013an 0,42 milioira jaitsi dira; kopuru horretatik, 0,23 milioi BEZari dagozkio berariaz.

Hona gure gomendioak:

- *Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean zerga-zordunentzat eta -hartzekodunentzat jasotako irizpideak eta kontabilitate-kontuak beren zabaltasun osoan aplikatzea, kontrola eta informazioa hobetzeko eta aurrekontuaren hileroko egoera-orriak eta urtearen itxierakoak kontabilitateetik zuzenean atera ahal izan daitezen, gaur egun egiten den bezala estimazioak egin beharrik ez izateko.*

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (HKL) sistemaren eta kontabilitate orokorraren sistemaren arteko koordinazioa hobetzeko prozesua amaitzea..*

- *Zerga-zordunen saldo justifikatu gabeak aztertzea eta, kasua bada, haiek erregularizatzea.*

- *Urteko oroitidazkian azterketa bat jasotzea onura fiskalen exekuzioari buruz eta haiek ezarritako helbururako egiten duten ekarpenari buruz.*

- *Aztertzea zergak kudeatu eta biltzeko egitura eta prozedurak, analizatzeko aldera ea ongi egokitzen zaizkien egungo egoera ekonomikoaren eskakizunei eta gizartearen eskariei.*

VII.12. DIRUZAINZTA

2013ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina 123,15 milioikoa zen; 2012an, berriz, 189,48 milioikoa zen –hau da, ehuneko 35 jaitsi da–. Honena xehakatu daiteke:

Kontzeptua	Saldoa 2012-12-31n	Saldoa 2012-12-31n
Kontu korrante operatiboak	1.927.592	1.255.696
Inbertsio kontuak	167.556.815	121.897.235
Ezarpenak	20.000.000	0
Guztira	189.484.407	123.152.931

Kontu guztiak hartuta, 2013an 1,95 milioiko interesak sortu dira (2,84, 2,88 eta 6,37 milioi 2012an, 2011n eta 2010ean, hurrenez hurren).

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen izenean dauden kontuei dagokienez, bi egoera bereizten ditugu haiek kontabilitatean erregistratuta egotearen ala ez egotearen arabera:

a) Kontabilitatean islatzen diren kontuak.

- Aurreko kontuak, diruzaintzako azpitaldean erregistratu daudenak.

- Kutxa finkoaren aurrerakinei lotutako kontu korranteak eta justifikatu beharreko ordainketa-aginduak; kontu horiek, zeinak kontabilitatean islatzen baitira, 54 dira guztira, eta 0,25 milioiko saldo garbia egiten dute. Balantzean erregistratzen dira, epe laburreko bestelako zordunak eta hartzekodunak atalaren barrenean, beren saldoaren izaeraren arabera.

b) Kontabilitateak korrelaziorik ez duten kontuak. 417 dira eta 14,3 milioi inguruko saldoa dute.

- Hezkuntza Departamentuaren kontuak, bai ikastetxeen kudeaketarako –funtzionamendu gastuak eta tasak/tarifak– bai jantokien kudeaketarako. 395 kontu inguru dira eta 9,10 milioiko saldoa dute.

- Kontabilitatean korrelaziorik ez duten bestelako kontuak. 22 dira guztira eta 5,2 milioiko saldoa dute. Funtsean, beste departamentu batzuen kontuak dira: finantza-entitateekiko hitzarmenetarako eta Europako proiektuetarako irekitako kontuak dira.

2013ko **guztizko diruzaintza-gerakinak** 0,5 milioi egin du hobera 2012rekin alderatuta, nahiz eta negatiboa izaten jarraitzen duen, kobrantza-eskubideek gora dutelako –11,3 milioi–; eta ez da nahikoa ordaintzeko betebeharren jaitziera –59,4 milioi– eta funts likidoen jaitziera –70,2 milioi– konpentsatzeko.

Honako taulan ageri dena da 2008tik 2013ra bitarteko aldiaren diruzaintza-gerakinak izan duen bilakaera (euroak, milakotan):

Diruzaintza-gerakina	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Atxikitako diruzaintza-gerakina	27.746	46.123	54.285	98.359	103.464	85.412
Gastu orokorretako diruzaintza-	100.505	-147.161	-126.369	-174.939	-239.750	-221.192
Diruzaintza-gerakina, guztira	128.251	-101.038	-72.084	-76.580	-136.286	-135.780

Ikusten den bezala, 2009tik, magnitude honek saldo negatiboa izan du. Bereziki nabarmentzekoak dira gastu orokorretarako gerakinen zenbateko negatiboak. Diruzaintza-gerakin atxikia funtsean Nafarroako toki entitateentzako kapital transferentzien funtsari dagokio.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboak, likidezia-tentsioko egoerak adierazteaz gainera, hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzea eragozten du.

Halaber, diruzaintza-gerakinaren kalkuluaren barruan, nabarmentzen dugu, alde batetik, kobratzen zailak diren edo kobratzea zalantzakoa den eskubideen kontusailak aurten izan duen bilakaera, bider 2 eta gehiago egin baitu 2008tik 2013ra; bestetik, funts likidoen jaitsiera dago, ehuneko 75 egin baitute behera. Bi kontzeptu horien bilakaera hurrengo taulan erakusten dugu (euroak, milakotan):

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-210.086	-251.623	-293.433	-359.319	-425.188	-482.343
Funts likidoak	483.851	199.551	174.659	224.669	193.380	123.153

Likidezian dagoen tentsio-egoera islatzen da finantzaketa epe laburreko diruzaintza-kredituen bidez lortu behar izatean. Hartara, honako eragiketa hauek egin dira:

Entitatea	Zenbatekoa (milioitan)	Baliatzearen data	Amortizazioaren data	Eragiketaren epea (egunetan)
Caixabank	100	2013/01/15	2013/02/06	22
Santander	200	2013/01/16	2013/12/31	349
Santander	50	2013/07/03	2013/09/03	62
Santander	86	2013/10/07	2013/10/25	18
Santander	145	2013/12/16	2013/12/30	14
Santander	55	2013/12/20	2013/12/30	10
Bankinter	50	2013/05/31	2013/12/31	214
Bankinter	14	2013/10/07	2013/10/25	18
Sabadell	50	2013/06/28	2013/08/12	45
BBVA	90	2013/07/04	2013/08/09	36

Hau da, kreditu-lineak hitzartu dira, guztira, 840 milioi egiten dutenak. Haietatik, 262 milioi egiten duen urteko batez bestekoa lortu da.

Linea horien finantza-kostua 3,57 milioikoa izan da, komisioak eta interesak barne; 2012an, berriz, gastu hori 0,38 milioikoa izan zen.

Kasu batzuetan, kreditu-kontuak kontu korronteen bitartez erabil daitezke; beste kasu batzuetan, kontu horien aldeko saldoak hitzartutako interes tasa batekin ordaintzen dira; hartara, 2013an, 0,49 milioiko diru-sarrerak lortu dira (2012an, 0,87 milioi izan ziren).

• *Gomendatzen dugu hartu beharreko neurriak behar bezala erregulatzea gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinean saldo negatiborik izanez gero.*

VII.13. IBILGETU EZ-FINANTZARIOA

Ganbera honek bere fiskalizazio txostenetan adierazi duen bezala, azpitalde horri dagokion balantzearen saldoak (2.135,54 milioi) ez ditu islatzen 2013ko abenduaren 31n ondasunen guztizkoa eta Nafarroako Gobernuaren jabetzaren egoera. Honakoak dira arrazoiak:

- Erabilera orokorrerako inbertsioak ez dira erregistratzen ibilgetuan eraikuntzaren fasean, eta, logikoa den bezala, behin abian direnean, ez dira aldatzen azpitalde horretatik erabilera orokorrera bideratutako ondare-kontura.
- Ez dira ibilgetu ez-materialeko inbertsioak aktibatzen, eta zuzenean emaitzen kontuan aplikatzen dira, zeren eta ez baitago prozedura bat determinatuko duenik zein baldintza edo betekizun bete behar dituzten inbertsio horiek aktibatzeko.
- Ez daude jasota esleipen-erara entregatutako ondasunak.
- Ez da erantsi Lurzoruaren Foru Bankuaren osaketari eta bilakaerari buruzko informaziorik.
- Ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.
- Balantzeari buruzko zifra ez dago ez bermatuta, ez berdinkatua kasuko ondasunen inbentarioarekin. Ondare Zerbitzuak egindako inbentarioaren ardatza, funtsean, higiezinak dira, eta irizpide juridikoekin eta haiek identifikatzeko irizpideekin gauzatzen da.

Kontabilitate publikoko plan berriaren ezarpenaren esparruan, une egokia izan daiteke salbuespen horri konponbidea emateko Nafarroako Gobernuaren kontuetan, bai eta harentzako tratamendu informatikoa ezartzeko ere, zeina SAP inbentario-moduluaren bitartez egin baitaiteke, behar diren egokitzapen logikoekin.

Bestalde, 2014ko maiatzean, 10/2014 Foru Legea onetsi da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzekoa. Foru lege berri horretan 121.1.f) artikulua aldatzen da, kontabilitate publikoko printzipioak arautzen dituena, eta ezartzen du ezen Gobernuaren ondasunen barruan azpiegiturak eta erabilera publiko edo orokorreko gainerako ondasunak sartuko direla, haiek erosi zireneko prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera baloratuta.

2013an nabarmentzekoak diren alderdiak:

a) Aribideko ibilgetuaren barruan, "Abiadura handiko trenaren Nafarroako korridorerako aribidean dauden azpiegiturak" kontua aktibatu zen 2012an, azpiegitura horretan egin diren inbertsioak eta hurrengo ekitaldietan egiten direnak jasotzeko. 2013ko abenduaren 31n, 52,94 milioiko³⁰ saldoa dauka, zeina bat baitator 2009tik 2013ra egindako inbertsioarekin.

b) 2013an egindako jabari publikoko ondasunen inbertsioa 53,29 milioi jaitsi da, funtsean errepedetan eta garraio-azpiegituretan; ibilgetu ez-materialeko inbertsioek, berriz, 11,57 milioi egin dute guztira. Bi azpitalde horiek ez dituzte biltzen AHTan egindako izaera horretako inbertsioak.

c) 2012an, NASUVINSA sozietate publikoari eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta orubeak saldu zitzaizkion, 20,6 milioi ordainduta; zenbateko horren ordainketaren zati bat, 0,4 milioi, eskudirutan egin zen eta gainerakoa, -20,2 milioi- zortzi urteko gehieneko geroratze baten bidez, 2015etik aurrera, diruaren legezko interesaren arabera -2013an, ehuneko 4a zen-. 2013ko abenduaren 31n, ordaintzeko dagoen saldoa 18,8 milioi eurokoa da, zeren eta enpresak maileguaren parte bat, 1,4 milioi, amortizatu baitzuen, higiezin bat saltzearen ondorioz.

d) NEKPren kapitala zabaldu da Nafarroako Gobernuak Sarrigurren dituen finka batzuen diruz besteko ekarpenaren bitartez; 2,6 milioian daude baloratuta. Eragiketa horren xedea da Salestarrek Iruñean duten Lanbide Heziketako Ikastetxea Sarrigurengo egoitza berrira aldatu ahal izatea. (Ikus VII.14.1 atala)

Hona gure gomendioak:

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria bere zabaltasun osoan aplikatzea ibilgetuaren eragiketei dagokienez.*

³⁰ Ez dira aktibatu segurtasunaren eta osasunaren arloko laguntza teknikoaren gastuak, 0,30 milioi egin dutenak

- *Nafarroako Foru Komunitateko ondasunen eta eskubideen inbentario osoa egitea, eta hartan haiek guztiak sartzea.*

- *Inbentario hori, ondasunen kontabilitate-tratamendurako ezinbestekoa den tresna bat eratze aldera, halako moduz egin beharko da non kontuan hartuko baitira, irizpide juridikoez gainera, haren kontabilitate-tratamendutik heldu diren beharrak. Horretarako, gehitu beharko dira Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako irizpideak, ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoak bermatze aldera.*

- *Ibilgetuko kontabilitate-datuen eta inbentariokoan berdinkatze iraunkorrerako prozedurak diseinatu eta aplikatzea. Horrek eskatzen du presaz, eta behin eta berriz adierazi bezala, ukitutako zerbitzuen arteko koordinazio egokia egin dadila.*

VII.14. NAFARROAKO ENPRESEN KORPORAZIO PUBLIKOA TALDEA ETA SOZIESTATE PUBLIKOAK

VII.14.1. Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa enpresa-taldea

Corporación Pública Empresarial de Navarra, S.L.U. (NEKP) sozietate nagusi bezala duen enpresa-taldea, kontuak bateratzearen xede bakarrarekin, 2013ko abenduaren 31n, honako menpeko sozietate eta sozietate elkartuek osatzen dute:

A) Menpeko sozietateak edo azpian hartutakoak

Zuzenean nahiz zeharka, kontrola daukan edo izan dezakeen sozietateak. 17 dira, guztira:

- 16 sozietate publiko, kapitalaren ehuneko 50eko edo gehiagoko partaidetzarekin.
- Parque de la Naturaleza S.A. sozietatea³¹, non taldeak kapitalean duen partaidetza ehuneko 44,13koa izan arren, jotzen baita haren gaineko kontrola badagoela, entitatearen arrisku eta emaitzak direla eta akziodunen eta taldearen artean dauden akordioen arabera.

Azken sozietate horri dagokionez, uste dugu Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legean jasotako baldintzak betetzen dituela, "enpresa publikotzat" hartua izateko, zeren eta NEKPren partaidetza, Sodenaren bitartezkoa, une hauetan kapitalaren ehuneko 44,13koa bada ere, taldearen gaineko kontrolik badago, gainerako bazkideekin izenpetutako hitzarmenen bitartez³² eta, gainera, Sodena enpresa haren administratzaile bakarra da. Hau da, aurreko inguruabarrek adierazten dute nagusitasun-eragin bat badagoela eta, nolana ere, NEKPren enpresa-taldeak enpresa hori menpean duela eta haren zuzendaritza bakarra dagoela.

Iritzi hori honako egitateak abalatzten du: kontabilitate-araudiaren arabera, NEKPk sozietate hori bateratzen du integrazio orokorraren metodoaren bidez –gainerako sozietate publikoetan bezalaxe–; hau da, haren kontabilitateko egoera-orrietan sartzen ditu menpeko sozietate horren aktibo, pasibo, diru-sarrerak, gastu, kobrantza, ordainketa eta gainerako kontusailak, dagozkien doitzak eta deuseztatzeekin.

2012an, menpeko sozietateen atal honen barruan, Burnizko azpitaldea ere sartzen zen.

B) Talde anitzeko sozietateak, sozietate elkartuak eta beste

Haien gainean sozietate nagusiak, zuzenean nahiz zeharka, menpekoen bitartez, eragin aipagarria dauka³³. 31 dira guztira. Horien artean, honakoak nabarmendu behar ditugu: Autopistas de Navarra, S.A., Canal de Navarra, S.A. eta Sodena S.A.ren bitartez parte hartutako sozietateak. 2012an, 35 ziren.

C) Parte hartutako sozietateak

³¹ Senda Viva aisia-parkearen jabea.

³² Beren erantzukizuna kapital gisa jarritako kopuruetara mugatu duten bazkideak.

³³ Kontrako frogarik ezean, eragin garrantzitsua dagoela pentsatuko da taldeko sozietate batek edo gehiagok taldekoa ez den sozietate baten boto-eskubideen ehuneko 20 edo gehiago dituztenean (kontabilitateko 28. nazioarteko araua).

Haien gainean, sozietate nagusiak ez du kudeaketaren arloko eragin garrantzitsurik, eta guztira 37 dira; 2012an, berriz, 40 sozietate ziren.

Laburbilduz, urte bakoitzeko abenduaren 31n, NEKParen enpresa taldearen osaera, honakoa zen bateratzearen ondorioetarako:

NEKParen Taldearen osaera	2012	2013
Menpekoak-Sozietate publikoak	20	16
Menpekoak diren beste batzuk	1	1
Talde anitzekoak, elkarteak eta Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoan eragin aipagarria dutenak	35	31
Menpekoak, Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoan eragin aipagarririk ez dutenak	40	37

Modu gehigarrian, taldeak 16 enpresen aldi baterako batasunetan hartzen du parte, bere menpeko sozietateen bitartez. 2012an, partaidetza hori 13 enpresen aldi baterako batasunetan gertatzen zen.

Talde bateratuaren 2012ko eta 2013ko datu nagusi gisa, honakoak adierazi behar ditugu (euroak, milakotan, pertsonen buruzko datuetan izan ezik):

NEKP taldearen adierazle bateratuak	2012 ⁽¹⁾	2013
Ondare garbi bateratua	642.655	632.545
Epe luzerako zorrak	278.579	207.469
Epe laburreko zorrak	203.911	212.789
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	84.794	60.996
Maniobra-funtsa	214.216	121.102
Negozio-zifraren zenbateko garbia	167.071	147.493
Negozio-zifraren ehunekoa, Nafarroako Gobernuarekin batera	27	32
Nafarroako Gobernuak jasotako kapitaleko diru-laguntzak	3.637	824
Ustiapenerako Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	13.441	8.534
Eragiketa jarraituen ustiaketaren emaitza	(23.956)	(13.335)
Ekitaldiko emaitza bateratua	(62.102)	(29.255)
Sozietate nagusiarri esleitutako emaitza	(60.867)	(28.986)
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak (2)	244.667	174.811
NEKPko Administrazio Kontseiluko ordainsariak (bederatzi kide)	30	5
Administrazio kontseiluetako kideen kopurua (2) (3)	175	136
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (2)	25	20
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (2) (4)	1.438	1.129

(1) 2012ko galeren eta irabazien kontua berriz adierazi da, Burnizko azpitaldeak garatutako jarduera etendako jardueratzat jo baita.

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

(3) Zenbaki erreala txikiagoa da, zeren eta administrazio kontseilu batean baino gehiagotan dauden pertsonak baitaude.

(4) 2012an Burnizko azpitaldeko langileak sartzen dira (217 langile, guztira).

Kanpoko enpresa batek NEKParen kontu bateratuen kanpoko auditoria bat egin du, eta kontu horien aldeko iritzia eman du.

Iritzi horrekin batera, iritzi horretan eraginik ez duen lerrokada bat ageri da, taldearen sozietate bati –Sodena– buruzkoa. Sozietate horrek abalak eta maileguak eman dizkie enpresei, eta enpresa horietako batzuk orain finantza- eta ondare-egoera zailean daude. 2013ko abenduaren 31n arrisku-mailak aurreko ekitaldiarekin alderatuta behera egin badu ere, prozesu horien bilakaera honakoaren baitan egonen da: hartutako arriskuak eta, zehazkiago, horietako batekin hartutakoak, zeinek 20,7 milioi egi-ten baitute³⁴, berreskuratzea edo taldearen galera gisa konkretatzea³⁵; haietarako bermerik ez dago, ordea.

³⁴ Mailegutuan 10 milioi formalizatu dira eta abaletan, berriz, 10,7 milioi.

Halaber, ondoko alderdiak nabarmendu nahi ditugu:

- 2013ko abuztuan, 28/2013 Foru Legea onetsi zen, NEKPa sortzeko Foru Legea hein batean aldatzekoa. Aldaketa hori dagokio, funtsean aginduzkoa den parlamentu-baimenari, sozietate publikoen partaidetzak Foru Komunitateko Administrazioaz kanpoko pertsoneri edo entitateei eskualdatu edo besterentzeko, sozietate publikoaren izaera galtzea dakarren edozein berregituratze-eragiketa egiteko eta enplegu-erregulazioko eta plantillak berregituratzeko planetako espedienteetarako.

- 2013ko azaroan, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen NEKParen kapitala 2,6 milioi handitzea, Sarrigurenge finka batzuen diruz besteko ekarpenaren bidez; eragiketa horren xedea da Salestarrek Iruñean duten Lanbide Heziketako Ikastetxea Sarrigurenge egoitza berrira aldatu ahal izatea, 2011n Nafarroako Gobernuak, Eguesibarko Udalak eta Salestarren Kongregazioak izenpetutako lankidetzaprotokoloari jarraituz.

Protokolo horren arabera, kongregazio horrek konpromisoa hartzen zuen, batetik, egun ikastetxeak Iruñean betetzen duen lursaila Nasuvinsa sozietate publikoari saltzeko eta, bestetik, Eguesibarren, Sarrigurenge Nafarroako Gobernuak zeuzkan lursail batzuk erosteko.

Konpromiso horiek gauzatze aldera, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen NEKPren kapitalaren aipatutako handitzea, bere jabetzapeko lursail horiek jarritz; halaber, baimena ematen zaio Nasuvinsa enpresa publikoari bere kapitala 2,6 milioi handitzeko, hain zuzen ere bere bazkide bakarrak –NEKP– Gobernutik jasotako lursail horiek eman ahal diezazkion.

- Taldeak 631,86 milioi dauzka sozietateen gaineko zergako zerga-oinarri negatiboetan, aktibatu gabekoetan, zeinak konpentsatzekoak baitira etorkizuneko onura fiskalekin. Halaber, aplikatzeko dauden kenkari batzuk badauzka, aktibatu gabekoak, 45,38 milioi egiten dutenak.

- 2013ko maiatzean, Burnizko azpitaldearen akzioak zuzendaritza-taldeari eta langile batzuei saltzeko kontratua publiko egin zen. Euro bateko prezio sinbolikoa izan zuen salerosketa. Aurrez, taldeak 35,23 milioiko ekarpena egin zuen azpitaldearen funts propioetan, honakoen bitartez:

a) Aurreko ekitaldietan emandako 12,6 milioiko partaidetza-maileguen konpentsazioa.

b) Eskudiruko ekarpenak, zeinek aukera emanen baitute aurrez kreditu-entitateekin hartutako 14,75 zorrak, taldeak abalaturakoak, kitatzeko.

c) Eskudiruko ekarpena keta bestelakoak, 6,3 milioi egiten dutenak.

Halaber, taldeak industria-planta egokitzeko, baldintza jakin batzuetan, egin beharreko inbertsioaren ehuneko 50 hartuko du bere gain; 1,75 milioikoa dela jo da.

Halaber, 32,5 milioi bitarteko prezio bat hitzartu zen azpitaldearen akzioak hirugarrenei eskualdatzeko balizko transmisio baterako; hori 2020an iraungiko da eta baldintza jakin batzuk dauzka.

- Parque de la Naturaleza de Navarra, S.A. (Parquenas). 2013ko abenduaren 31n 32,02 milioiko ondare garbi negatiboa dauzka, eta ekitaldiko emaitza ere 3,80 milioi negatiboa da; 2012an, halaber, balio horiek negatiboak izan ziren: 28,22 eta 4,05 milioi, hurrenez hurren. Ondare garbiaren balio negatiboa heldu da Senda Viva aisiarako parkea funtzionamenduan jarri zenetik izan diren galera jarraituetatik.

2013ko abenduaren 31n, 56,23 milioiko epe luzeko zorpetzea dauka –horietatik, 55,43 milioi taldearen enpresekikoa da–; finantza-entitateekiko epe laburreko zorra, berriz, 1,45 milioikoa da.

2013ko abenduaren 31ra arte, Sodenak sozietate horren alde egin dituen finantza-eragiketek 61,95 milioi egiten dute; honela xehakatuta daude: kapitaleko partaidetzak³⁶ –4,05 milioi–, epe luzeko maileguak –55,43 milioi, zeinetatik 33,27 milioi partaidetza-maileguenak baitira– eta abalak –2,47 milioi–. Aurreko kopuruetatik, Sodenak 36,26 hornituta dauzka guztira. Aipatutako maileguek merkatuko interesak sortuko dituzte, sozietatea errentagarritasunaren atalasea iristen den ekitalditik aurrera, eta haien mugaeguna 2015eko abenduaren 31n dago.

³⁵ Lerrokada hau, halaber, NEKParen banakako auditorian eta SODENArenean datu da.

³⁶ Hasiera batean, Parquenasaren kapitala bederatzi milioi eurokoa izan zen; kapitaleko bi murrizketa egin ondoren –2005ean eta 2006an–, 2013ko abenduaren 31ko kapitala 1,8 milioikoa da.

Parquenasaren urteko kontuetan adierazten den bezala, Sodenak konpromisoa hartzen du 2014an sozietateak egin beharreko inbertsioen kopurua, jarduera arrunten diruzaintza defizita eta banku-zorraren amortizazioaren zenbatekoa finantzatzeko.

VII.14.2. Sozietate publikoak

Berez publikoak diren sozietateei soilik erreparatuta, 2013ko alderdi garrantzitsuenen gisara aipatu behar dugu 17 sozietate direla, aurreko ekitaldian baino lau gutxiago. Kopuruaren gutxitze horren arrazoia da bai Burnizko azpitaldearen –hiru sozietatek osatua– salmenta, bai Navarra Deporte y Ocio, S.L.ren eta Navarra de Espacios Culturales S.A.ren xurgatze bidezko bategitea ere³⁷.

Hurrengo taulan, 2013ko adierazle metatuak eta 201koekiko alderaketa eman dugu: Alderaketa hori homogeneoa izan dadin, 2012ko informazioak ez du aipatutako Burnizko azpitaldea biltzen.

Adierazlea	2012	2013
Sozietate publikoen kopurua	18	17
Ondare garbia	876.711.332	850.154.908
Epe luzerako zorra (metatua)	320.146.122	249.096.483
Finantza-entitateekin epe laburrera hartutako zorra	152.267.339	201.463.570
Negozio-zifraren zenbateko garbia	171.514.441	147.476.072
Nafarroako Gobernuak jasotako diru-laguntzak	16.088.976	9.092.482
Langile-gastuak	49.329.602	47.584.108
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	70.676.111	60.192.245
Maniobra-funtsa	236.238.446	138.440.838
Ekitaldiko emaitza	-109.642.868	-48.123.211
Administrazio kontseiluetao kideen kopurua	174	139
Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak	544.376	126.858
Goi karguen kopurua (A)	23	17
Gainerako enplegatuen kopurua (B)	1.090	1.023
Langileen kopuru osoa (A+ B)	1.113	1.040

Taula horren eta berrikusitako gainerako informazioa aztertuta, honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Enpresa publikoen multzoaren epe luzeko zorpetzea³⁸ 249,1 milioikoa da; 2012rekin alderatuta, zorpetze horrek 71 milioiko jaitsiera garbia izan du. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

a) Zorpetze horren ehuneko 66 finantza-entitateetatik heldu da; ehuneko 12, berriz, taldeko enprekin dauden epe luzeko zorrak dira.

b) Sodenarekin epe luzeko zor handiena duten sozietateak honakoak dira: Sodena, 100 milioi; Nasuvinsa, 37,6 milioi; eta Nilsa, 29,6 53 milioi.

c) CAT sozietateak, zeinak 2012an 53,1 milioiko epe luzeko zorpetzea baitzeukan, 2013an zor hori epe laburreko zor gisa birsailkatu du, mugaegunari erreparatuta.

d) Nasuvinsak Nafarroako gobernuarekin daukan zorra, zeina heldu baita 2012an zenbait higiezin erosi izatetik, 18,8 milioikoa da 2013ko abenduaren 31n (2012an, berriz, 20,2 milioikoa zen).

e) Ez da gauzatu Sodenari Europako Inbertsio Bankuak eman zion 150 milioiko kredituaren bigarren baliatzea –Moderna Planeko proiektuak finantzatzekoa zen, bereziki enpresa txiki eta ertainenak–; 2012an, lehen baliatzea egin zen, 100 milioikoa. 2013ko abenduaren 31ra arte, Sodenak guztira 33,2 milioi egiten duten eragiketak edo finantzatzeko proiektuak formalizatu ditu.

- Finantza-entitateekiko epe laburreko zorpetzeak ehuneko 32 egin du gora –49,2 milioi–; igoera horren justifikazioa da, funtsean, CATen zorraren birsailkapena, arestian aipatu duguna. 2013an, epe laburreko banku-zorpetze handiena duen enpresa Sodena da, eta zorpetze hori 133 milioikoa da.

³⁷ Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. sozietatearen sorrera.

³⁸ Finantza-entitateekiko zorpetzea jasotzen da, taldeko enprekin eta enpresa elkartuekin, bai eta epe luzeko bestelako zorpetzea ere.

- Negozio zifra orokor horren zenbateko garbiak ehuneko 14 egin du behera –24 milioi–; horietatik, 19 milioi Nasuvinsari, 4,7 milioi NEKPri eta 3,6 milioi Tracasari dagozkie. Nabarmentzekoa da INTIA izandako gorakada, 7,4 milioikoa.

- 2013an Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak –9,1 milioi– ehuneko 43 gutxitu dira, hau da, zazpi milioi gutxiago jaso ditu. Oro har, gutxitze horrek enpresa guztietan du eragina, baina nabarmendu behar direnak CEIN –5,2 milioi gutxiago– eta Nasuvinsa –1,3 milioi gutxiago– dira. 2013an diru-laguntza gehien jaso zituzten enpresak INTIA –5,1 milioi– eta Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. –1,3 dira–.

- Langile gastuek ehuneko 3,54 egin dute behera; hau da, 1,75 milioi gutxiago daude.

- 2013ko emaitza negatibo metatuak ehuneko 56 egin du behera, eta 2013an 48,1 milioikoa da; aurreko urtean, berriz, 109,6 milioikoa izan zen. Galera handienak Sodenan ikus daitezke –14,2 milioi–, bai eta NEKPan ere –12,7 milioi–; galera horiek heldu dira, funtsean, enpresen partaidetzen balioespenari buruz eta emandako mailegu eta bermeei buruz egindako zuzenketetatik; aurreko urtean balio negatibo horiek 61,3 eta 36 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren. Halaber, nabarmendu behar ditugu Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio sozietatearen galerak, 9,1 milioikoak, bai eta Nasuvinsarenak ere, sei milioikoak –enpresa horrek 2,7 milioiko etekinak izan zituen 2012an–. Etekin handienak Salinas de Navarra sozietateak lortu zituen; 1,3 milioi eurokoak, hain zuzen.

- Langileen batez besteko kopuruan, 73 pertsona gutxiago ageri dira; hau da, aurreko urtean baino ehuneko 6,5 gutxiago. Nabarmentzekoak dira CEINen –32 langile gutxiago– eta GANen eta Naseritcen –18na langile gutxiago– egindako murrizketak. Tracasa sozietateak izan du langile-kopuruan igoerarik handiena, zortzi gehiago baitaizka. Hiru sozietate publiko badaude langilerik ez dutenak: Potasas de Navarra, Start Up eta Natural Climate Systems.

- 2013an, NEKPak kapitaleko bere partaidetzetatik dibidenduak lortu zituen, 5,75 milioikoak. Funtsean, Audenasatik –5,72 milioi– heldu dira. 2012an, kontzeptu hori dela-eta, 10,69 milioi jaso zituen, funtsean, arestian aipatu bezala, Audenasatik –6,67 milioi– eta Nasuvinsatik –lau milioi–.

- Iberdrolaren akzioak, Sodenak 211,6 milioiko erosketa-kostuarekin eskuratutakoak, 133,72 milioiko arrazoizko balioa dute 2013ko abenduaren 31n (2012an, 121,02 milioikoa zen). Akzio horiek 8,3 milioi inguruko dibidenduak sortu dituzte (9,8 milioi 2012an).

Prenda gisa emandako akzio horiekin eta Nafarroako Gobernuaren babesletza-gutun edo “comfort letter” delakoarekin, 2012an Sodenak zenbait kreditu-kontu urtebeteko eperako berritu zituen, 175 milioiko gehieneko kopuruarekin; 2013ko ekitaldiaren amaieran, guztira 130 milioiren erabilpena bermatzen dute.

- Nafarroako Gobernuaren balantzean, 2013an NEKPn egindako finantza-inbertsioen balio galera-erregatiko zuzkidura bat jarri da, 71,5 milioikoa (47,7 milioikoa izan zen 2012an).

- Nafarroako Gobernuak sozietate publikoei babesletza-gutunak edo “comfort letter” direlakoak emateari buruz, esan behar dugu 2013ko egoera honako hau dela (euroak, milakotan):

Babesletza-gutunak	Babesletza-gutunaren tipologia	Noiz eman diren	Mugaeguna	Bermatutako modalitatea	Zenbatekoa	2013-12-31ko egoera
Tuterako Nekazaritza-elikagaien hiria	Ahula	2009ko uztaila	2014ko uztaila	Zazpi mailegu	52.999	Sistema
Sodena	Sendoa	2012ko maiatza	2013ko maiatza	Bost kreditu poliza, pignorazio-bermea dutenak	150.000	Itxitakoak
Sodena	Sendoa	2013ko uztaila	2013ko azaroa	Lau kreditu poliza, pignorazio-bermea dutenak	145.000	Itxitakoak

Gai horri dagokionez, 2012ko kontuei buruzko txostenean esandakora jo beharra dago; hartan, laburbilduta, aipatu genuen ez dagoela figura horri buruzko berariazko araupetze administratiborik –ez dago jasota Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean– eta babes bakarra duela Nafarroako Gobernuko lehendakariordetzak izenpetutako agiri batean.

Gure ustez, funts publikoak konprometitzen diren eragiketa guztiak iraunkortasun finantzarioaren, efizientziaren eta gardentasunaren irizpideen arabera planifikatu eta gauzatu behar direla.

Gaur arte, babesletza-gutun horiek ez dute berarekin ekarri Nafarroako Gobernuak baliabide publikoak aplikatu behar izatea. Halaber, aipatu genuen ezen 2014tik aurrera haien gaineko kontrola eta jarraipena Ondare Zerbitzuak berak egiten duela.

- Aurrerago gertatutako egitate gisa, honakoak aipatu behar ditugu:

a) 2014ko urtarrilean, bazkide bakarrak –Nafarroako Gobernuak– erabaki zuen NEKPk izenpetutako eta ordaindutako kapitala handitzea –43,5 milioi–. Ekarpen hori erabili da soilik sozietate publikoen zorra kitatzeko: Sodenaren kasuan 30 milioi, eta Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L.ren (CAT) kasuan 11 milioi.

b) 2014ko martxoan, Sodenaren banku-zorra birfinantzatzeko esparru-akordioa sinatu zen. Amortizatze dagoen kopurua, behin zor-kapitalaren 30 milioiko handitzea kitatuta, bi tarteren bidez egituratuta dago: 1. tarte 102,5 milioiko mailegu bat da, 2017ko abenduaren 31n mugaeguna duena; 2. tarte, berriz, 32,5 milioiko kreditu bat da, 2014ko abenduaren 31n mugaeguna duena eta 2017ra arte berriro daitekeena.

Bi tarte horien berme gisa, Iberdrolaren akzioak, taldearen jabetzakoak, pignoratzeko dira –betiere haiek saltzeko konpromisoarekin³⁹, hartatik lortutako funtsak zorraren amortizatzeko aurreratura bideratzeko– eta Nafarroako Gobernuaren konpromiso-gutun edo "comfort letter" bat ematen da.

c) 2014ko martxoan, CATen banku-zorra birfinantzatzeko esparru-akordioa sinatu zen. Amortizatze dagoen kopurua, behin 11 milioiko zorra kitatuta –kapital-handitze baten bidez–, bi tarteren bidez egituratuta dago: 1. tarte 26,6 milioiko mailegu bat da, 2017ko abenduaren 31n mugaeguna duena; 2. tarte, berriz, 15,4 milioiko mailegu bat da, 2017ko abenduaren 31n mugaeguna duena.

1. tarteren berme gisa, Gobernuaren 2014ko erabakia dago, eta bi tarteretarako, berriz, Nafarroako Gobernuaren konpromiso-gutun edo "comfort letter" bat dago.

d) Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. sozietateak, 2014ko otsailean, Nafarroako Zirkuiturako errentamendu-kontratu bat egin du hirugarren batekin, 2018ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldiarekin. Erosterako eta saltzeko aukera loteslea eta eroslehetasun-eskubidea jasotzen ditu. Halaber, 2014ko ekainean, Nafarroako Gobernuak, 0,94 milioiko prezioan, berrasfaltatzeko zenbait obra esleitu zituen, zirkuituaren eraikuntzari egoztekoak diren akats batzuei konponbidea emateko; eraikitzaileari zenbaterako hori itzultzeko eskatuko zaio.

e) 2013ko abenduan, NEKPk Administrazio Kontseiluak erabaki zuen Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroko akzioen ehuneko 51 saltzea sozietate horretako zazpi langileri. Erabaki horren barruan sartzen da NEKPk oraindik ere kapitalaren ehuneko 49ri utsiko diola hiru urteko gehieneko epean. Epe hori amaituta titularitate guztiz pribatukoa izatera pasatuko da.

2013ko ekitaldiari dagozkion **auditoria txostenetatik** honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Potasas de Subiza, S.A. Txostenak **kontrako iritzia** du enpresaren urteko kontuen adierazgarritasunari buruz, honako salbuespenak izan duten eragin oso aipagarriaren ondorioz: Ez da erregistratu, epe luzeko zuzkiduren barruan, ingurumen-lehengoratzeari buruzko planetik heldu den pasiboa, zeina 8,6 milioitan kuantifikatu baita bost urteko epe baterako (2014-2018); huts horrek eragina du, halaber, aurreko ekitaldien emaitzetan –9,4 milioitan azpibalaratua–. Pasibo hori bai dago erregistratuta NEKP Taldearen urteko kontu bateratuetan.

Iritzian eraginik izan gabe, txostenak lerrokada bat jasotzen du sozietateak bere eragiketekin jarraitzeko daukan ahalmena dela-eta zalantza aipagarriak egoteari buruz, zeren eta ez baitu behar adina funts sortu bere jarduketekin jarraitzeko. Horri dagokionez, sozietateak aipatzen du akziodun bakarrak hartu zuela, bi aldeek sinatutako kontratuaren indarrez, sozietatearen diruzaintza-defizita finantzatzeko konpromisoa; hori dela eta, sozietatearen administratzaile bakarrak urteko kontuak egin ditu funtzionamenduan dagoen enpresa izatearen printzipioari jarraituz.

Horri dagokionez, aipatu behar dugu 2013an, Sodena sozietateak, aurreko konpromiso hori betetzeko, 0,11 milioi euro eman zituela guztira. Halaber, 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Potasasi emandako maileguetatik ordaintzeko dagoen saldoa 9,32 milioikoa da.

³⁹ 2014ko urriaren amaieran, akzio horiek guztiak salduta daude, guztira 154 milioi euro egiten duen zenbaterako baten truke.

- NEKP dela eta, iritzian eraginik izan gabe, lehenago esandako lerrokada aipatzen da, parte hartutako sozietate batek abalak eta maileguak, guztira 20,7 milioi egiten dutenak, bermerik gabe emateagatik hartu dituen finantza-arriskuei buruzkoa.

- SODENA dela eta, iritzian eraginik izan gabe, lehenago esandako lerrokada aipatu behar da, bermerik gabe emandako 20,7 milioiko abal eta maileguen ondorioz dauden arriskuei buruzkoa.

- Natural Climate Systems, SAri dagokionez, iritzian eraginik izan gabe, sozietateari buruzko lerrokada bat jasotzen da, non esaten baita sozietatea, ekitaldiaren amaieran, merkataritza-leggedian bildutako desegite-kasuetako batean dagoela. Ikusi da aipatzeko moduko zalantza bat dagoela konpainiak bere eragiketekin jarraitzeko daukan gaitasunari buruz. Administrazioaileek behar diren neurriak hartu dituzte ondare-oreka berrezarri ahal izateko, eta uste dute akziodunen finantza-babesa edukitzen jarraituko dutela; hori dela eta, jotzen dute funtzionamenduan dagoen enpresa izatearen printzipioa egokia dela urteko kontuak aurkezteko.

Sozietate horri buruz, aipatu behar dugu, halaber, 2013ko abenduaren 31n Sodenak haren alde egindako finantza-eragiketek 1,46 milioi egiten dutela. Kopuru hori honela xehakatzen da: kapitaleko partaidetza –milioi bat–, maileguak –0,1 milioi– eta bazkideen ekarpenak⁴⁰ –0,36 milioi–. Halaber, data horretan, 0,43 milioiko ondare garbi negatiboa dauka.

- Navarra de Infraestructuras Locales SAU. Iritzian eraginik izan gabe, lerrokada bat gehitu da sozietatearen jarduera nagusiaren berezitasunari buruz, Saneamendu Plan Zuzendaria eta Saneamendu Kanona kudeatzeari dagokionez; hartara, sozietatearen balantzeko aktiboan, aipatutako planaren egungo defizita jasotzen da –30,1 milioi–, zeina denborarekin zuzentzen joanen baita aipatutako kanonaren kudeaketarekin eta diru-bilketarekin; gainera, eta horrekin lotuta, 18,7 milioiko pasibo ez-korronte bat jasotzen da: toki entitateen jabetzapeko arazketa-instalazioetan egindako berritze-jarduketei eta aparteko konponketa-lanei aurre egiteko plan zuzentzailetik hartutako kopuruari dagokio. Horrenbestez, sozietatearen urteko kontuak aztertu behar dira plan zuzentzailea sartuta dagoen esparruari dagozkion eragiketekin batera.

- Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. Iritzian eraginik izan gabe, aipatzen da sozietatearen 2013ko abenduaren 31ko ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa dela, eta hori bera desegiteko arrazoi bat da, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen arabera, kapital sozial hori behar adina handitzen edo murrizten ez bada. Sozietateak esaten du bazkide bakarraren konpromisoa duela ondare-oreka berrezartzeko behar diren ekintzak abiatzeko.

Hona gure gomendioak:

- *Aztertzea ea Parque de la Naturaleza, S.A. sozietateak behar diren baldintzak betetzen dituen enpresa publikotzat hartua izateko, Ondareari buruzko Foru Legearen eta Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.*

- *Neurri egokiak hartzea kontabilitate-eragiketetatik heldu diren salbuespenak datorren ekitaldirako konpondu ahal daitezen.*

- *Jarraitasunari edo beren eragiketekin jarraitzeko ahalmenari buruzko zalantza nabarmenak antzematen diren enpresa publikoen kasuan, haien bideragarritasuna aztertzea, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ikuspuntu sozialetik, inplikaturako alde guztien ahaleginak eta ekarpenak kuantifikatuz eta dauden aukerak kontrastatuz.*

- *Berriaz erregulatzen ez diren bitartean, Nafarroako Gobernuak bermeak bere gain hartzea dakarten finantza-tresnak erabiltzen direnean, abalak emateko legez araututako prozedura administratiboak aplikatzea.*

⁴⁰ Gainerako bazkideetatik, Nasuvinsa sozietate publikoa da 2013an dirua jarri zuen bakarra, 0,3 milioi hain zuzen.

VII.15. FUNDAZIO PUBLIKOAK

Foru erkidegoko fundazio publikoak zazpi dira guztira. Haien izena eta xede soziala honako taulan ageri dena da:

Fundazioa	Xedea
Baluarte	Baluartean garatzekoak diren kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Nafarroako Bikaintasunaren aldeko Fundazioa	Nafarroako enpresetan –publikoetan zein pribatuetan– kalitate-zerbitzuak sustatzea.
Pertsona Helduen Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza

Txosten honen II.1 atalean aipatu den bezala, 2014an prozedura bat abiatu da honako fundazioak desegin eta azkentzeko: Conservación del Patrimonio Histórico de Navarra, Formación en Energías Renovables, Instituto Navarro de Artes Audiovisuales y Cinematografía eta Navarra para la Excelencia.

Azpi-sektore publiko honen 2013ko datu ekonomiko metatu nagusi gisa, 2012ko datuekin alderatuta, honakoa nabarmentzen ditugu:

Adierazlea	2012	2013
Fundazio publikoen kopurua	7	7
Ondare garbia	4.515.077	3.821.881
Epe luzeko zorra	0	0
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	6.533.212	6.555.813
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	2.763.374	2.805.213
Langile-gastuak	1.984.687	2.975.606
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	1.564.236	2.640.924
Maniobra-funtsa	4.234.911	3.517.351
Ekitaldiko emaitza (metatua)	-148.083	-581.116
Patronatuetako kideen kopurua	64	63
Patronatuko kideetako ordainsariak	0	0
Goi karguen kopurua (A)	6	5
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	48,87	72,47
Langileen kopuru osoa (A+ B)	54,87	77,47

Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

- Jardueratik bertatik deribatutako diru-sarrerei eutsi zaie bi ekitaldietan, ia kopuru berdinetan; kontzeptu hori dela-eta nabarmendu behar dira Miguel Servet Fundazioak –2,9 milioi– eta Baluarte Fundazioak –2,5 milioi– 2013an lortutakoak.

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak, halaber, ia berdinak dira. Ekarpen handienak egiten dituzten fundazioak Baluarte –0,9 milioi– eta Miguel Servet –0,92 milioi– dira.

- Emaitza metatu negatiboak ia lau aldiz handiagoak dira. 2013an, fundazio guztiek soberakin negatiboa daukate, Miguel Server Fundazioaren kasuan izan ezik, kasu horretan 13.571 euroko emaitza positiboa baitago.

- Langileen urteko betez besteko kopurua 23 enplegatu gehiagokoa da; horietatik, 20 Miguel Servet Fundazioari dagozkie. Batez besteko enplegatu kopuru handiena duten fundazioak Miguel Servet Fundazioa –53 langile– eta Tutela de Personas Adultas –11 langile– dira.

- Bi ekitaldietako bakarrean ere ez dute ez epe luzeko, ez epe laburreko zorrik.

Fundazio horien 2013. urteko kontuak kanpoko profesionalek auditatuak izan dira Auditoria guztietan aldeko iritziak ageri dira edo salbuespenik gabekoak; halere, horietako lautan lerrokada bat ageri da, adierazte aldera 2014an haiek azkentzeko prozesua hasia dela.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean 2014ko azaroaren 11n

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera (2008tik 2013ra)⁴¹




	(euroak, milioitan)					
	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Zuzeneko zergak	1.701,5	1.603,6	1.279,7	1.309,3	1.420,5	1.423,1
Zeharkako zergak	1.542,7	1.422,5	1.655,3	1.644,8	1.515,4	1.522,1
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	112,0	346,6	395,9	162,0	145,8	130,9
- Jasotako transferentzia arruntak.	51,1	71,8	76,1	65,0	49,6	46,9
Ondare bidezko diru-sarrerak	43,2	21,1	15,7	14,2	21,5	17,4
Diru-sarrera arruntak	3.450,5	3.465,6	3.422,8	3.195,3	3.152,8	3.140,4
Langile-gastuak	1.107,1	1.176,3	1.164,0	1.155,9	1.072,6	1.096,4
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	496,8	511,8	575,1	513,1	555,2	523,2
Gastu finantzarioak	30,5	35,1	41,8	57,6	93,0	107,3
Emandako transferentzia arruntak	1.608,7	1.562,4	1.472,0	1.399,6	1.392,1	1.387,1
Ohiko gastuak	3.243,1	3.285,7	3.252,9	3.126,2	3.112,9	3.114,0
Inbertsioak	306,0	341,1	273,6	193,9	142,6	125,1
Emandako kapital-transferentziak	359,7	324,6	328,6	223,2	241,3	144,1
Inbertsio errealeen besterentzea	8,1	12,3	6,4	2,7	4,1	1,4
Jasotako kapital-transferentziak	125,9	123,5	41,2	22,8	26,4	22,8
Kapital-emaizta	-531,7	-529,9	-554,6	-391,6	-353,4	-245,0
Finantza-aktiboekiko eragiketak	-71,2	-16,3	2,1	0,8	1,3	1,0
Zorraren amortizazioa	60,2	0,03	103,2	91,2	107,3	193,2
Hitzartutako zorra	240,3	214,7	595,2	483,2	418,9	463,7
Zorpetze-maila	2,63	1,01	4,24	4,66	6,35	9,57




Laburbilduz, ondoko taulan islatzen da 2008tik 2013ra bitarteko guztizko gastu eta diru-sarreraren alderaketa (onura fiskalik gabe), biztanle bakoitzeko emanak (euroak milakotan):




	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Aurrekontu-gastuak, guztira	4.003,22	3.992,18	3.979,25	3.657,63	3.625,44	3.679,62
<i>Aurkibidea</i>	100	100	99	91	91	92
Per capita gastua (eurotan)	6.453	6.331	6.248	5.697	5.625	5.715
<i>Aurkibidea</i>	100	98	97	88	87	89
Aurrekontu-diru-sarrerak, guztira	3.787,66	3.840,57	4.088,56	3.727,90	3.624,93	3.732,53
<i>Aurkibidea</i>	100	101	108	98	96	98
Per capita diru-sarrerak (eurotan)	6.105	6.091	6.419	5.806	5.624	5.797
<i>Aurkibidea</i>	100	100	105	95	92	95

⁴¹ 2008tik 2013ra, gasturik gabe eta onura fiskaletatik heldutako diru-sarrerarik gabe.

Hurrengo irudietan, aurreko datuen laburpen bat bildu dugu.










2. ERANSKINA Nafarroako Gobernuaren defizitaren eta zorpetzearen bilakaera, aurrekontu egonkortasunaren ondorioetarako (2008tik 2013ra)


2.1. Finantzaketa-beharrak

(euroak, milioitan)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
I. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-321	-347	-379	-321	-317	-220
II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak	-459	-120	-218	-55	5	-21
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	-278	-33	-2	-	-	25
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	11	9	3	2	-	-5
Barneko transferentziak	-4	-2	-	-	-	1
Europako funtsetako transferentziak	-5	-	-	5	-3	-3
IDAEn transferentziak	-	-	-	3	-	-
Diru-bilketa ez-segurua	-120	-56	-105	122	-5	-94
Kapital-ekarpenak	-	-8	-	-	-	-
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-5	-1	6	-33	27	3
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak	-58	-29	-113	-139	6	3
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	-	-	-12	-14	-10	-6
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)	-	-	5	1	17	29
Abalen exekuzioa	-	-	-	-2	-2	-2
Higiezinak besterentzeko eragiketak	-	-	-	-	20	-
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	-	-	-	-	-46	28
Osasun gastua	-	-	-	-	-	-8
Hidrokarburoen gaineko zerga	-	-	-	-	-	8
III. Administrazio publiko gisa hartzen diren beste unitate batzuk	-97	-56	-13	8	1	-14
IV. Finantzatzeko beharra (I.etik III.era)	-877	-523	-610	-368	-311	-255
Inbertsio produktiboengatik kenkaria (BPG erregionalaren % 0,25)	0	46	46	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria
V. Finantzaketa beharrak, aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzearen eragineterako	-877	-477	-564	-368	-311	-255
BPGaren gaineko finantzaketa beharraren ehunekoa	-4,7	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72	-1,45
Ezarrিতako helburua, BPGaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,75	-0,75	-2,4	-1,3	-1,5	-1,2
Helburuaren gainean, beharra gehiegizkoa izatea (milioitan)	738	341	118	125	40	44
Nafarroako BPGa	18.481	18.183	18.596	18.726	18.126	17.557

Grafikoki, hauxe ikusten dugu:








2.2. Zorpetzea , GDPren arabera

(euroak, milioitan)

Zorra, GDPren arabera	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Nafarroako Gobernua	786,8	999,0	1.490,2	1.878,7	2.191,8	2.486,9
Lankidetzak publiko pribatua. Pirinio- etako Autobidea	0	1,0	85,4	202,1	199,1	199,3
Lankidetzak publiko pribatua. Nafa- rroako Ubideak ureztatutako eremua	69,5	75,4	106,5	127,5	124,6	124,9
Sozietate publikoak	1,6	1,3	1,4	226,3	333,3	315,3
Fundazio publikoak	9,6	8,8	8,5	8,8	7,9	7,2
Zorra guztira	867,5	1.085,5	1.692,0	2.443,4	2.856,7	3.133,6
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>125</i>	<i>195</i>	<i>282</i>	<i>329</i>	<i>361</i>
<i>BPGa</i>	<i>18.481</i>	<i>18.183</i>	<i>18.596</i>	<i>18.726</i>	<i>18.126</i>	<i>17.557</i>
<i>BPGaren ehunekoa</i>	<i>4,69</i>	<i>5,97</i>	<i>9,10</i>	<i>13,05</i>	<i>15,76</i>	<i>17,85</i>

Grafikoki, honela erakuste da bilakaera hori:



3. ERANSKINA Nafarroako parlamentu-erakundeen 2013ko aurrekontuaren likidazioa.

A. Nafarroako Parlamentua

2013ko gastuen aurrekontuaren likidazioa

Kontzeptua	Behin-behineko aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehuneko
1. Langile-gastuak	6.614.689	0	6.614.689	6.004.297	91
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	2.421.966	88.703	2.510.669	1.428.038	57
4. Transferentzia arruntak	3.031.737	0	3.031.737	2.803.704	92
6. Inbertsio errealak	518.210	59.649	577.859	241.864	42
8. Finantza-aktiboak	57.795	0	57.795	35.846	62
9. Finantza-pasiboak	89.449	-40.000	49.449	0	0
Gastuak, guztira	12.733.846	108.352	12.842.198	10.513.749	82

2013ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kontzeptua	Behin-behineko aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehuneko
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	82.439	2882
4. Transferentzia arruntak	12.050.532	0	12.050.532	11.661.651	97
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	15.000	0	15.000	53.353	356
7. Kapital-transferentziak	634.849	0	634.849	510.294	80
8. Finantza-aktiboak	30.010	108.352	138.362	36.363	26
9. Finantza-pasiboak	595	0	595	0	0
Diru-sarrerak, guztira	12.733.846	108.352	12.842.198	12.344.100	96

Foru Ogasunari itzulitakoa: 1.802.469

B. Arartekoa

2013ko gastuen aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehuneko
1. Langile-gastuak	503.559	0	503.559	459.492	91
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen arloko gastuak	244.600	0	243.953	153.646	63
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.747	33.379	96
6. Inbertsio errealak	39.500	0	39.500	34.373	87
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Gastuak, guztira	822.059	0	822.059	680.889	83

2013ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehuneko
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	0	100	0	0
4. Transferentzia arruntak	781.150	0	781.150	742.700	95
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.009	0	1.009	351	35
7. Kapital-transferentziak	39.526	0	39.526	37.200	94
8. Finantza-aktiboak	174	0	174	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Diru-sarrerak, guztira	822.059	0	822.059	780.251	95

Foru Ogasunari itzulitakoa: 99.362

C. Nafarroako Kontuen Ganbera

2013ko gastuen aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehuneko
1. Langile-gastuak	2.136.419	0	2.136.419	2.062.016	97
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen arloko gastuak	399.506	25.014	424.520	304.616	72
4. Transferentzia arruntak	28.000	0	28.000	12.801	46
6. Inbertsio errealak	63.000	18.725	81.725	45.558	56
8. Finantza-aktiboak	30.000	0	30.000	2.500	8
Gastuak, guztira	2.656.925	43.739	2.700.664	2.427.491	90

2013ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehuneko
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	72	0	72	12.646	17.564
4. Transferentzia arruntak	2.582.853	0	2.582.853	2.548.542	99
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	7.800	0	7.800	999	13
7. Kapital-transferentziak	63.000	0	63.000	28.000	45
8. Finantza-aktiboak	3.200	43.739	46.939	2.941	6
Diru-sarrerak, guztira	2.656.925	43.739	2.700.664	2.593.129	96

Foru Ogasunari itzulitakoa: 184.995

